ASTELEHENEKOA

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2011-07-11
ASTELEHENA
329. ZENBAKIA
7. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



"M-15 bezalako mugimenduek ekarriko dute aldaketa gizartera"

Koldo Saratxaga | GBEko presindentea | 7

Autoek jaso dute San Kristobalen bedeinkapena, jai giroan | 13

Pilotari federatuen txanda izan zen atzo Dorletan | 26

Arrasatearrak aho zabalik, Kukairen 'Karrikan' ikuskizunarekin | 30

Umeak, Gatzagako altxorra

Bisita gidatuak eta txikitxoendako jolas ugari Gatzagako Umeen Egunean | 12

Ume taldea gurasoekin, zapatuan Gatzagan

JULIO CALLEJA

Lau fitxaketa berrirekin egingo du jauzi EBAra Sustrai Aloña Mendik

EBA mailan lan duina egitea da Sustrai Aloña Mendiren helburua eta bide horretan lau fitxaketa egin ditu taldeak; hain justu, hiru jokalari eta entrenatzaile laguntzaile bat. Taldekide berriez gain, Sustrai Aloña Mendin jarraituko dute orain arteko jokalari guztiek ere. | 24

Juan Mari Enekotegi da UDAko presidentea

Egubakoitzean hartu zuen Enekotegik Altuberen lekukoa | 25

Kontsumo arduratsua aldarrikatu du EkoBirak

Askotariko 20 postu ipini zituzten Arrasateko Biterin | 4

Artisauen postuak, EkoBira azokan. | J.C.

DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 22 | JAKINGAI 28 | KULTURA 29 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

KOTXEA ETA ETXEA PUNTU-PUNTUAN

RENAULT AUTOBERRI

ARRASATE AVIA

IKER SUKALDEAK

Txartela, beti aldean

► Zoaz 21. orrialdera

Jendartearen eta baloreen ordua aldarrikatu zuten krisiaren aurrean

- Ekonomia humanista eskatu zuten Mondragoneko, Ipar Kutxako eta CCOOko ordezkariek
- Mahai ingurua egin zuten, Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeak antolatuta

Ezkerretik eskumara, Luis Miguel Pariza, Arantza Laskurain, Roberto Ruiz de Infante eta

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Krisia oraindik luzerako doa, eta "izerdi eta malko asko" kostako zaigu irtetea. Irtenbidea aldaketatik etorri beharko da: ekonomia soziala, pertsonetan oinarrituta eta balore gizatiarrak dituena, horixe izan daiteke eredua. Horrela laburtu daiteke joan den eguenean Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundean (IISJ) izan zen mahai-inguruan mamitu zen mezua.

Ekonomia soziala izan da aurtengo udako jardunaldietako gaia IISJn, eta hiru egunetan jardun zuten horren gainean. Egueneko mahai-ingurua izan zen izarretako bat. Deustuko Unibertsitateko Marta Encisok moderatuta, Euskal Herrian indar handia duten hiru eredu ekonomikoren ordezkariak izan ziren berbetan: Mondragon Korporazioko idazkari nagusi Arantza Laskurain, Ipar Kutxako Errektore Kontseiluko presidenteorde Roberto Ruiz de Infante eta Europako sindikatuen konfederazioan CCOO ordezkatzen duen Luis Miguel Pariza.

Eredu desberdinetatik etorri arren, bakoitzak bere erara, denek goraipatu zuten ekonomia soziala: Laskurainek kooperatibismoaren baloreek eta oinarriek inoiz baino biziago eta baliagarriago daudela esan zuen, "ingurunea asko aldatu" den arren; Ruiz de Infantek filosofoen irakaskuntzak hartu zituen aintzat, eta "humanismoa euskarri duen ekonomia sozial" batera bueltatzea aldarrikatu zuen, langileok ere euren erantzukizuna eta ardura onartuta; azkenik, Parizak soluzioa kokatu zuen Eurogunearen politika ekonomikoa "demokraziatik gobernatzean", eta horretarako gai diren "erakunde berri" batzuetan.

ARANTZA LASKURAIN
MONDRAGON KORPORAZIOKO IDAZKARI NAGUSIA

"Eredu kooperatibista edozein lekura egokitzeko gai da, eta baliagarria da"

Jose Mari Aldekoaren, Mondragon Korporazioko presidentearen iragarpenak gaurkotu zituen Arantza Laskurainek: "Krisiaren hasieran, esan zuen gutxienez 2014ra arte iraungo zuela, eta inork ez zion sinistu; aldiz, orain, inork gutxik jartzen du zalantzan horrela izango dela".

Krisia zelan kudeatzen dabiltzan laburtu zuen Laskurainek. Oro har, eredu kooperatibista berretsi egin dutela eta, are gehiago, edozein ingurunera eta herrialdera egokitzeko gai dela esan zuen Mondragon Korporazioko idazkari nagusiak.

Gogoratu zuen zelan 2008 bukaeran, "ikusten zenean krisia luzerako zihoala", gomendio batzuk egin zituzten korporazioko buruek, eta "egokitzeko prozesuen" alde egin zuten, "baina beti oinarrietako bat izan da enpleguari eustea", esan zuen. Hori bai: "Uste dugu lana izateko eskubidea bermatu behar dela, baina ez lanpostu jakin baten eskubidea".

Horrekin batera, munduan gehiago hedatzeari ekin zioten, halabeharrez: "Gure salmentak, batez ere industria aldetik, asko txikitu ziren Espainian. Abantailak emango zizkiguten merkatuetan sartu behar ginen", esan zuen Arantza Laskurainek. Gaur egun, bere esanetan, "etorkizuna kanpoan dago: industrian, gure salmenten %63 Espainiatik kanpo egiten ditugu".

Mondragonen apustua izan da ezartzen zen tokian "balio erantsiko enplegua sortzea" eta balore kooperatibistak eroatea, "egiaztatu delako funtzionatzen duen eredu bat dela"; baina bere sustraiak eta jatorriko lekua alde batera utzi barik. Horretarako, Debagoienean, Arrasaten, bere sorterrian, erabaki jakin batzuk hartu behar izan dituzte Mondragonen: "Egutegiak malgutzea erabaki genuen, lana zegoenean egitea eta ez zegoenean egoerara moldatzea, baina denon artean erabaki genuen, kooperatibari dagokion moduan", esan zuen Laskurainek.

Krisian, "egokitzea eta irudimena erabilita konponbideak asmatzea" izan da euren formula. Baita berrikuntza ere: "Gaur egun, gure salmenten %21,4 orain bost urte existitzen ez ziren produktu eta zerbitzuena da", esan zuen.

ARANTZA LASKURAIN
MONDRAGONEKO IDAZKARIA

"Korporazioaren erronka izan da gure enpresa-ehunaren zati handi bat aldatzea. Beste tamaina bat hartuta –gure ingurunearen ezaugarrietara egokituta– lan egitea; internazionalizazioa; berrikuntza eta jakintza bultzatzea; interkooperazioa; eta gure nortasun kooperatiboarekin konprometituta jarraitzea, horiek dira gure jarraibideak krisia kudeatzeko".

ROBERTO RUIZ DE INFANTE
IPAR KUTXAKO ARDURADUNA

"Ekonomia soziala alternatiba bat da, oraindik gutxi batzuena baina. Eredu berrietara daroan bide berri bat urratzeko balio duten baloreak dauzka. Nire hitzaldian filosofoen esanak aipatu ditut, izan ere, aro klasikoak, filosofoenak, eta aro barrokoak, ekonomialarienak, tartekatzen dira historian, eta krisiaren aroa barrokoa da; orain aro klasikoan sartzen gabiltza, eta filosofoen ideiak behar ditugu".



LUIS MIGUEL PARIZA
CCOO-REN ORDEZKARIA

"Jende gehienaren interesen aurkako interesak dituzten eragile ekonomikoek gobernatzen gaituzte: merkatuek espekulazioa egiten dute, eta orain interesatzen zaie euroa hondoratzea. Horregatik, euroaren aurka dabiltza espekulatzen. Gobernuak oso ahulak dira merkatuaren aldean. Eurogunea gobernatzeko erakunde berriak, demokratikoak behar ditugu".

ROBERTO RUIZ DE INFANTE
IPAR KUTXAKO KONTSEILU ERREKTOREKO PRESID.ORDEA

"Langilea bere gotorlekuan sartzen da, eta ez du krisiaren erantzukizunik hartzen"

Alde humanistatik eta filosofikotik jo zuen Ipar Kutxa kreditu kooperatibako arduradunak krisiaren gaineko gogoeta egiteko, baina ez zen irakaskuntza edo hitz

Marta Enciso, eguenean Oñatiko Lege Soziologiaren Nazioarteko Erakundean, mahai-inguruan. | LEIRE KORTABARRIA

ESANAK

"Aberasgarria da krisiaz Euskal Herriko ekonomia eredu handienek zer esaten duten entzutea"

MARTA ENCISO | DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

"Ekonomialarien aro batetik irten eta filosofoen aroan gaude; ideiak, baloreak behar ditugu"

ROBERTO RUIZ DE | IPAR KUTXORDEZKARIA

"Europako Batasunari dagokio indarrak batzea merkatuari aurre egiteko"

LUIS MIGUEL PARIZA | EUROPAKO SINDIKATUEN KONFEDERAZIOA

leunetan geratu, kritikoa ere izan baitzen, nahiz eta bere hitz batzuk gehiengoaren gustukoak ez izan: "Kapitalaren eta lanaren arteko gatazka ez dugu oraindik gainditu, eta lanak uko egiten dio krisian bere ardura eta erantzukizuna onartzeari". Gero Goienari hauxe esan zion: "Finantza erakundeok autokritika egin behar dugu, baina finantza sistema etorri zaigun itsasaldiak eraman du ere. Denok bizi izan gara neurrigabekeria garai baten. Orain, gure burua berrasmatzeko garaia da".

Bere mezua humanista izan zen: "Ekonomia pertsonaren zerbitzura egon behar da; hau da, ekonomia gizatiarra izan behar da. Ez bada, humanizatu egin behar dugu". Izan ere, bere iritziz, "ekonomia sozialak, pertsonengandik hasita, erantzun sozialak ematen ditu. Horregatik, ekonomia sozialak gehigarri gizatiar bat dauka; gatazkak gainditu egiten ditu eta interesen gainetik kokatzen da".

Baina horretarako, Ruiz de Infanteren iritziz, kapitala eta langileak adiskidetu egin behar dira. Eta horretarako, krisiak kentzen digun "lasaitasuna" berreskuratu egin behar da.

Erantzukizunak banatu egin zituen Ipar Kutxako ordezkariak: "Jendartearengan ez dago erantzukizun sentimendu orokorrik. Langilea bere gotorlekuan sartzen da, eta ez du erantzukizunaren eta arduraren bere zatia onartzen. Horrek guztiak ondorio bat dauka: solidaritate eza", esan zuen.

"Bestalde, korporazio handiak ez dira solidario sentitzen, eta sortu diren jendartean sustraiak galtzen dituzte. Hartzen dituzten erabakiek ez dute jendearen adostasuna, eta jendeak erantzun egiten die enpresetako liderrei. Horrenbestez, etengabeko gatazka sortzen da. Ez da akordiorik sortzen, eta gatazka krudel bihurtzen da. Horrek guztiak esan nahi du baloreak oso ahul daudela".

Horren guztiaren ondorioz, "krisia baloreen krisia da?", galdera hori airean utzi zuen.

Kooperatiben eredua aipatzeaz bukatu zuen: "Kooperatibak jaio ziren lekuetan daude sustraituta, eta leku horiek dira euren izatearen arrazoia. Buruak denen artean aukeratzen dituzte; adiskidetasun printzipio bat sortzen da".

LUIS MIGUEL PARIZA
EUROPAKO SINDIKATUEN KONFEDERAZIOKO KIDEA

"Bidegabeak diren baloreekin gobernatzen gaituzte espekulatzaileek"

CCOO sindikatuko kide horren hitzaldia ere kritikoa izan zen, aurkezpenetik hasita: "Herritar sumindua nauzue", esanez agurtu zuen publikoa. Eta segituan, zeinekin sumindua dagoen esan zuen: "Ustezko profetekin, urrezko zekorra, hau da, merkatuak gurtzen dituztelako". Merkatuak zuzentzen dituzten eragileen eta, batik bat, balorazio-agentzien aurkako hitz gogorrak izan zituen.

Krisi korapilatsua nondik datorren eta bere barruan zer dagoen azaltzen ahalegindu zen: "Krisi handi honen barruan, hiru krisi desberdin daude: AEBetan, defizita eta langabezia dira arazo handienak; Eurogunean, periferiako herrialdeek duten zor handia; eta hazten dabiltzan herrialdeetan, metatzen dabiltzan soberakinak. Bada, krisi horiei guztioi errezeta berbera aplikatu nahi diete". Eta joera hori, dio, XIX. mendetik dator: "Orduz geroztiko krisi guztiak zelakoak ziren aztertu aurretik, ekonomialariek errezeta berberak eman izan dituzte: zuhurtasuna, austeritatea; ongizate estatua ez da lehiakorra; soldatak produktibitatearen araberakoak izatea; bankuek kontrol barik irabazi behar dute; estatuak ez du ekonomia erregulatu behar; zergak txikitu egin behar dira..."

Bide horretatik jarraituta, gaur egun Greziari edo Irlandari jarri dizkieten neurriek "gurpil zoroa, bukaera bako soka" sortzen dutela esan zuen, eta krisitik irtetea "galarazten" dietela herrialde horiei.

Krisiak edo, behintzat, Eurogunearen krisiak jarrai dezan interesatzen zaien aldeak daudela esan zuen: "Krisia Londresko Cityan eta New York-eko Wall Street-en sortu zen. Eragileen diru-gosearengatik sortu zen. Moneta-politika jakin batengatik, kalifikazio-agentzien utzikeria interesatuagatik, eta estatuek ez zutelako ekonomia erregulatu nahi izan, ideologiagatik. Gastua murriztu zuten, austeritatea ezarri zuten, pentsioak txikitu zituzten... Azkenean, herrialde hori ez da gai bere ekonomia onbideratzeko, ezinezkoa zaio. Ezingo da bere zorra finantzatu, ez delako jasangarria ekonomikoki, sozialki eta ez politikoki ere". Baina "kalifikazio agentziek, Lehmann Brothers-en krisiaren aurretik, Portugalen bonuak A+++ kalifikatzen zituzten. Agentziek espekulazioa finantzatzen dute, hori interesatzen zaielako". Are urrutiago joan zen: "Momentu honetan, espekulatzaileei interesatzen zaie euroak porrot egin dezan, eta horregatik, euroaren aurka dabiltza espekulatzen. Euroari alde ahuletatik erasotzen diote: momentu honetan, Grezia, Irlanda edo Portugal". Esan zuenez, Alemaniak ere "euroaz beste helburu batzuk" ditu.

Beraz, Parizaren iritziz, finantza-eragile handiek agintzen dute ekonomian, gobernuen eta erakunde demokratikoen gainetik, eta horren aurka, jendartearen, demokraziaren ordua aldarrikatu zuen: "Eurogunea gobernatzen zaila da, baina inork ez du eurotik irten gura. Hala ere, ez dugu herrialdeen gainetiko erakunderik eurogunea kudeatzeko gai direnak.Gaur egun ez ditugu ekonomia komun baterako tasak, zergak...", esan zuen. Hala ere, onartu zuen Christine Lagarde-ek, NDFko zuzendari berriak, "pauso batzuk" eman dituela; "zerbait mugitzen hasi da, baina atzerapen handiarekin".

Laburtzeko, esan zuenez, "bidegabeak diren baloreekin gobernatzen" dabiltza mundua. Eta berak irtenbidea bide honetatik ikusten du: "Finantza sistema eraberritu; hezkuntza bultzatu; lan erreformari buelta eman; administrazio publikoak erreformatu; ekintzailetasuna sustatu, arriskua, sorkuntza bultzatu; fiskaltasun progresiboa; ustelkeria borrokatu; eta gizarte babes sistema defenditu".

Kontsumo arduratsuaren mezua zabaldu dute Arrasaten

EkoBira azoka ibiltariak Donostian ekin zion bere ibilbideari; zapatuan, Biteri plazan izan zen

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Rakel Perez de Arenaza arrasatearraren tomate ekologikoen kiloa 3 eurotan erosteko edo Eva Argiñanok sinatutako sukaldeko txanoa lortzeko enkante solidarioan parte hartzeko aukera izan zuten zapatuan Arrasateko Biteri plazan jarritako EkoBira azokara joan zirenek.

Eguerdian, pozik zeuden antolatzaileak Kontsumo Jasangarriaren I. Azokak izandako harrerarekin. Askotariko 20 postu jarri zituzten han, hala nola, energia berriztagarrien enpresak, baserritar eta ekoizleak, eta artisauak. Horretaz gainera, bigarren eskuko objektuen saltzaileak, taberna ekologikoa eta enkante solidarioa ere bazeuden. Azken horretan, besteak beste, Peio Zabalak utzita, Jose Agustin Mendizabal fraideak asmatutako etxe barruko haize orratza enkatean hartzeko aukera zegoen. Azaroan jakinaraziko dira irabazleak.



Umeendako tokia izan zen EkoBiran. | JULIO CALLEJA

Artisauak izan ziren azokan; tartean, larrua lantzen dutenak. | JULIO CALLEJA

BEATRIZ CAÑO
IKUSLEA

"Azokara etorri naiz mutilarekin; berak altzariak egiten ditu kartoiarekin. Aurretik ere beste hainbat herritan egon gara; Arrasaten oso ondo gaude, kalean egoteak mugimendua sortarazten du. Jendea bisitan dator".

JAIONE CABALEIRO
ANTOLATZAILEA

"Ondo doa eguna; Seber Altuben egin behar genuen, baina eguraldia dela-eta, Biterira etorri gara, eta tokiarekin asmatu egin dugu. Primeran dago, jendea pozik dago. Emaus Internazionalaren enkante solidarioak ere harrera ona du".

NEKANE LIZARRALDE
IKUSLEA

"Gustura nabil, gauza ederrak daude. Ikusi eta bekatu ere egin dut; euskal pastela erosi dut-eta. Eskaintza zabala dago, hala nola, ogia, barazkiak eta baita umeendako eskulanak ere. Horrelako azokak sarriago egin beharko lirateke".

JAVI REDONDO
SALTZAILEA

"Arrasateko Garagune elkartearen postuan pozik gaude; jendea gerturatu da guk egiten ditugun eskulanak ikustera eta baita erostera ere. Bitxiak eta bestelakoak egiten ditugu eta azoketan saltzen ditugu".

MUk II. Unibertsitate Jardunaldia egingo du irailaren 6an, Oñatin

Mondragon Unibertsitateak (MU) II. Unibertsitate Jardunaldia antolatu du irailaren 6an, IKTak eta hezkuntza ingurukoa. Dagoeneko zabalik dago horretarako izenematea; interesatuek *egalindez@mondragon.edu* helbide elektronikora idatzi dezakete.

Oñatiko Enpresagintza fakultatean egingo dute, 08:45-tatik 13:30era bitartean. IKTak erabiltzen dituztenen eta erabili nahi dituztenen topagunea izango da, eta parte hartzen dutenek MUko esperientzien berri izateaz gain, elkarrengandik ikasi eta etorkizunaz hausnartuko dute. Besteak beste, Web 2.0ko tresnen eta E-learning edo sareko irakaskuntzen gaineko esperientziak entzungo dira han.

Mondragon Taldeko Cikautxo ekoizten hasiko da Txinan

Mondragon Taldeak iragarri du hilabete honetan hasiko dela Cikautxoren produkzioa Txinan. Lea Artibaiko kooperatibak hainbat aplikaziotarako piezak edo multzoak egiten ditu material polimeroetan, eta korporazioak Shangaitik hurbil, Kunshanen, duen industrialdean ireki duen lantegi produktiboan ekingo dio bere jarduerari. Proiektu berria martxan jartzeko egindako inbertsioa 7 milioi euro da.

Cikautxo Txinak hasieran 6 injekzio makina izango ditu, Txinako merkatuko bezeroendako kautxuzko piezak fabrikatzeko. Aurreikusita dago urtea amaitu baino lehen langile taldean 45 pertsona aritzea eta fakturazioa 1,2 milioi euro izatea.

Zuhaitz bana landatu dute Oñatin, Ulmako negozio bakoitzeko

Taldearen 50. urteurrenaren harira egin zuten ekitaldi hori egubakoitzean

M.B. | OÑATI

Ulmaren 50. urteurrenaren harira, ekimen berezia egin zuen egubakoitzean taldeak Oñatiko Garagaltza auzoan duen lantegian. Aratz Losada oñatiarrak aurkeztutako ekitaldian, taldearen iragana eta etorkizuna bateratu gura izan zuten, eta horretarako bederatzi zuhaitz landatu zituzten; hain justu ere, Ulmako zortzi negozioak eta talde bera irudikatuz.

Trikitixaz lagunduta, zuhaitz bana landatu zuten negozio bakoitzeko bi ordezkarik, eta jarraian, Ulmako presidente berri Irene Alberdik diploma eta aterki bana oparitu zizkien.

Madinatarrak, Ulma Construccioneko arbola landatu ostean. | JULIO CALLEJA

Unibertsitateko arduradunak, eskaintza akademikoaren aurkezpenean. | MU

Sei unibertsitate-master berri eskainiko ditu MUk

Datorren ikasturteko eskaintza akademikoa aurkeztu du; 10 unibertsitate-master izango ditu aukeran

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak (MU) eskaintza akademikoa zabaldu du sei unibertsitate-master berriren bidez. 2011-2012 ikasturtean martxan jarriko dituen sei unibertsitate-masterretatik lau ingeniaritzaren alorrekoak dira; hain justu ere, Enpresa berrikuntzako eta proiektu zuzendaritza, Industria ingeniaritza, Sistema txertatuak eta Energia eta potentzia -elektronikako unibertsitate-masterra. Azken hirurak Arrasateko campuseko Goi Eskola Politeknikoan egingo dira eta bi urteko iraupena izango dute. Lehengoa, ostera, Arrasaten eta Zamudioko Teknologia Parkean egingo da eta urte bateko iraupena dauka.

10 unibertsitate titulu

Gainerako biak hezkuntzaren alorrekoak dira: Testuinguru multikultural eta eleaniztunetako hezkuntza eta Hezkuntza-instituzioetan berrikuntza metodologikoko proiektuak garatzeko unibertsitate-masterra. Sei titulu berriok joan den ikasturtean eskaini ziren beste lau tituluak osatzera datoz: bi master enpresa-kudeaketaren alorrean, Enpresa kooperatiben kudeaketakoa eta MBA unibertsitate-masterra; ingeniaritzaren alorrean, Produktu eta zerbitzuen diseinu estrategikoen gainekoa; eta hezkuntzaren adarrean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta hizkuntza irakaskuntzan irakasle izateko irakaskuntza-gaikuntzakoa.

DATUA

12

GRADU-TITULU

Horixe da datorren ikasturtean Mondragon Unibertsitateak eskainiko duen gradu-titulu kopurua.

Ikasturte berriko masterren aurkezpenean Vicente Atxa Goi Eskola Politeknikoko zuzendaria, Josu Zabala MUko errektorea, Lander Beloki Enpresagintza Fakultateko dekanoa eta Nekane Arratibel Huheziko dekanoa egon ziren. Ekitaldi horretan nabarmendu zuten orain dela hiru urte Europako Goi Hezkuntza Esparrura moldatu zen lehen euskal unibertsitatea izan ondoren, MUk prozesu horren bigarren faseari ekin diola 2011-2012 ikasturtean Bolognara egokitutako hamar unibertsitate-master horiek eskainiz.

10 unibertsitate-masterrez gain, 12 gradu-titulu eskainiko ditu; baita unibertsitateko berezko hogeita hamar master, aditu -ikastaroak eta ikastaro aurreratuak ere, guztia bere sei campusetan banatuta.

Horrez gainera, ezaugarri berezi bat izango du 2011-2012 ikasturteak: hain justu ere, bukatzen denean Bolognara egokitutako euskal ikasleen lehen promozioa irtengo dela unibertsitatetik.

Zapatuan Arantzazutik Aloñara bitarteko mendi irteera egiteko aukera egongo da, ilunabarrean

Edonori zabalik dagoen txangoak 5 ordu iraungo du, eta 10 kilometroko luzera izango du

M.B. | OÑATI

Zapatuan, uztailak 16, Arantzazuko Adiskideak elkarteak antolatzen duen egitasmoaren seigarren hitzordua izango da. Arantzazutik Aloñara mendi irteera egingo dute oraingoan. Irteera irekia da, eta nahi duen oro gonbidatua dago ibilaldi horretan parte hartzera.

Irteera hori, dena dela, ez da aurrenekoak bezalakoa izango, ilunabarrean egingo da-eta, Arantzazu eta bere inguruaz egunaren amaieran gozatzeko aukera emanez. Ohikoa den moduan, Arantzazuko Santutegia Hoteletik abiatuko da, 18:00etan.

Txangoak 5 ordu iraungo du, eta 500 metroko desnibela dauka, 10 kilometroko ibilbidea egiteko. Hoteletik Misteriorantz abiatu, eta handik gorantz ekingo dio taldeak, artzaintzaren lekukoa den Duru inguruneraino. Aloñara igoko dira jarraian, eta gero, Belar gailurrera jaitsiko dira. Amaitu aurretik, eguzkia sartzen ikusiko dute, eta baita izarrei begiratu ere, gai horretan aditua den pertsona baten laguntzarekin.

Inguruneak ezagutzen

Egitasmo horren helburua bikoitza da: batetik, mendi-irteera hauetan parte hartu nahi duten pertsona guztiei asteburua modu atsegingarrian igarotzeko aukera eskaintzea; eta bestetik, Arantzazuko ingurua hobeto ezagutzen laguntzea, Santutegitik ateratzen eta Aizkorri-Aratz Parke Naturalean barneratzen diren ibilbideen bidez.

Jaurlaritzak haurrak etxebizitza partikularretan zaintzeko programa pilotua jarriko du martxan irailean

Zaintza zerbitzua urteko egun guztietan eskainiko da, eta hileko kuota 100 eurokoa izango da

M.B. | ARRASATE

Etxe partikularretan 0-3 urte bitarteko umeendako zerbitzua emateko *Haur etxeak* izeneko programa pilotua jarriko du martxan Jaurlaritzak. Horren gainean egindako aurkezpenean, Gizarte Gaietako eta Enplegu sailburu Gemma Zabaletak nabarmendu zuen "malgutasun handia" eskainiko diela zerbitzu berriak familiei, haur etxe bakoitzak urteko egun guztietan eskainiko du-eta zaintza zerbitzua, eta bakoitzean, gehienez, lau ume hartuko dituztela.

Haurrak, eguneko, lau eta zortzi ordu artean egon ahal izango dira bertan eta otorduak familiek eroan beharko dituzte. Hileko kuota 100 eurokoa izango dela ere zehaztu zuen Zabaletak. Hezitzaileen perfilari dagokionez, 30 urtetik gorakoak eta eskola-gradua izan beharko dutela azaldu zuen. Zerbitzua abian jartzeko, sailak lankidetza-hitzarmena sinatu du Agintzari gizarte-ekimeneko kooperatiba-sozietatearekin.

Bizkaian egingo dute proba

Esan bezala, esperientzia pilotua izango da hasieran. Datorren ikasturteari begira, bost haur etxe zabalduko dituzte Bizkaian; hain justu ere, Bilbon eta inguruetan. Dena dela, programa Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa osora zabaltzea da asmoa; beste 18 unitate jarri nahi dituzte martxan.

Metal-ikerkuntzaren lehen lerroan kokatu da MU

▶ CSIC erakundeko Ikerketa Metalurgikoen Zentroak Atxikitako Unitate gisa errekonozitu du MUko Konformazio Taldea, metalak ikertzen dituena

MU eta CSICeko goi-arduradunak hitzarmena sinatzen, 2009an. | TXOMIN MADINA

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Espainiako CSIC-Ikerketa Zientifikoen Goren Kontseiluak Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Konformazio Taldea CSICi Atxikitako Unitate gisa errekonozitu du. MUk eta CSICek 2009an egin zuten lehenengo elkarlan hitzarmena, eta orain, bide horren barruan beste pauso bat eman dute.

Espainiako Zientzia eta Berrikuntza Ministerioari atxikita dago CSIC, eta Espainiako ikerketa erakunde publiko garrantzitsuena eta Europako hirugarren garrantzitsuena da.

Oraingoan, CSICek MUko Konformazio Taldea berari atxikitutako zentro gisa errekonozitu du CSIC beraren mende dagoen CENIM-Espainiako Ikerketa Metalurgikoen Zentroaren bitartez.

DATUA

20

LAGUN

Mondragon Unibertsitateko Konformazio Taldean zortzi ikertzaile eta doktoretza egiten dabiltzan 12 ikasle dabiltza.

Konpartitzeko aukera

Hitzarmenak Konformazio Taldearen eta CENIM-CSICeko COPROMAT-Materialen Korrosio eta Babes Taldearen arteko harremana formalizatu egin du, eta euren arteko lankidetza sustatuko du ikerketan eta hezkuntzan. Zehazki, material berriei buruzko gaiak landuko dira, muturreko baldintzetan prozesatzeko eta erabiltzeko, bereziki azken belaunaldiko aleazio metalikoetan.

Horrez gain, bi zentroek materiala eta pertsonal propioa konpartitu ahalko dute, eta patente erabilgarriak CSICen bitartez tramitatu ahalko ditu Atxikitako Unitateak.

Lanean eta osasunean, metalak lagun

CSICen barruko COPROMAT taldea 80ko hamarkadan sortu zen, eta azaleko aldaketetan oinarritutako korrosioaren aurkako babes metodoak ikertzen hasi ziren.

Gaur egun, talde dinamikoa eta erraz moldatzen dena osatzen dute, beste erakunde batzuekiko harreman sendoekin. Muturreko baldintzetan osasunerako eta lanerako (automobilak, hegazkinak, inplanteak...) erabiltzen diren materialen arloan dituzte erronka berrienak. Ikerketa-lerro garrantzitsuenetako bat titanioak eta bere aleazioek ematen dituen aukeren ingurukoa da.

Karbono arrastoaren gaineko jardunaldia izan zen Garaian. | TXOMIN MADINA

Karbono arrastoa neurtzea eta txikitzea, enpresendako abantaila

L.K. | ARRASATE

Norbere karbono arrastoa neurtzera eta berau txikitzeko erabakia hartzera animatu zituzten Debagoieneko enpresak hilaren 1ean Garaia Berrikuntza Gunean izandako jardunaldi baten. Garaiako presidente Jesus Maria Herrastik aurkeztuta, Aliatec enpresako adituek hartu zuten hitza. Aliatec-ekin dagoeneko badabiltza lanean Debagoieneko eta inguruko enpresa batzuk, eta Mondragon Unibertsitatearekiko ere "harreman estua" du enpresak.

Zuhaitzetik edukiontzira

Karbono arrastoa honela definitzen da: produktu edo kontsumo-unitate jakin batek zuzenean edo zeharka sortzen duen CO2a, lehengaietatik hasi eta produktua deuseztatu edo baztertzen den arte. Honela azaltzen du Aliatec-eko Julen Rekondo ordezkariak: "Aldizkari bat egiteko zuhaitzak bota behar dira; bada, lehenengo, zuhaiztiak eragiten duen CO2 neurtzen da; zuhaitzak botatzen sortzen den CO2a, inprimatzea, aldizkaria irakurlearenganaino garraiatzea; gero, aldizkaria botatzen denean ere sortzen den CO2a..."

Rekondoren hitzetan, enpresendako ona da karbono arrastoa kalkulatzea eta murriztea, "izan ere, orain, errentagarritasuna eta iraunkortasuna batera doaz, garai baten ez bezala: produktua eta enpresa bera hobeto kokatzen eta irudi hobea izaten laguntzen du".

Etxean ere bai

Herritarrak eguneroko bizitzan ere txikitu dezake bere karbono arrastoa, Rekondoren hitzetan, "produktuak berrerabilita eta birziklatuta, kontsumo-ondasunak (etxetresnak...) beste batzuekin konpartituta...".

Euskadin aurten 5.000 lanpostu sortuko direla esan du Lazpiurrek

Confebasken webgunea aurkeztu zuen oraindik presidente denak

L.K. | ARRASATE

Miguel Lazpiur bergararrak, Confebaskeko presidenteak, esan zuen Euskal Autonomia Erkidegoan, aurten, 5.000 lanpostu sortuko direla, patronalaren iritziz. Adierazpen horiek Confebasken webgune berritua aurkezteko ekitaldian, joan den martitzenean egin zituen Miguel Lazpiurrek.

Confebasken iritziz, eta Lazpiurren ahotan, lanpostuak sortuko dira, gaur egungo ekonomia egoera "ziurgabetasun handikoa" den arren. Ziurgabetasun faktoreen artean, Greziaren egoera aipatu zuen. Dena dela, itxaropentsu agertu zen: "Ea aurten arnas har dezakegun eta datorren urtea hobea den".

Ekaineko langabezia datuak (144.414 langabe daude, maiatzean baino 3.933 gutxiago (-%2,65) ere baloratu zituen: esan zuen "hobetu" egin dela datua, baina ez Confebaskek "nahi beste".

Lazpiurren bloga

Confebasken webgune berritua (*www.confebask.es*) ezagutarazi zuten Miguel Lazpiurrek eta Confebaskeko idazkari orokor Nuria Lopez de Gereñuk, eta haren ezaugarri nagusiak nabarmendu zituzten. Adibidez, Confebaskeko presidenteak bloga dauka, eta ekonomia eta enpresa gaien inguruko iritzia emango du han astero. Ekonomia-analisi batekin eta hitzarmen kolektiboaren erreformaren lege-dekretuaren gaineko iritziarekin estreinatu du bloga Lazpiurrek. Uztailaren 20ra arte izango da presidentea, egun horretan egingo du-eta Confebaskek urteko batzar orokorra, eta presidente berria izendatu.

Miguel Lazpiur, erdian, Confebasken webgunearen aurkezpenean. | CONFEBASK

Ekonomia, enpresa, formazioa, zergak, lana eta beste hainbat gairen inguruko informazioa eta baliabideak ere batzen ditu webguneak; baita albisteak eta agenda ere.

DATUA

3

HIZKUNTZA

Euskaraz, espainolez eta ingelesez izango da *www.confebask.es* gunea.

DATUA

9

EGUN

Confebaskek 9 egun barru izendatuko du presidente berria: Miguel Angel Lujua.

Koldo Saratxaga | Gizarte Berria Eraikitzen GBE-NER elkarteko presidentea

"M-15 bezalako gizarte mugimenduek ekarriko dute aldaketa gizartera"

- Urte askoan kooperatiben inguruan egin du lan; orain, oso kritikoa da
- Taldelanaren aldekoa da, eta dio elkarbanatzean dagoela gakoa

MIRARI ALTUBE | OÑATI

Enpresa kudeaketan aditua, urte askoan kooperatiben inguruan egin du lan Koldo Saratxagak (Sopuerta, 1947). Orain, hamar enpresa batzen dituen Gizarte Berria Eraikitzen GBE-NER elkartearen presidente da. Oñatiko Soziologia Institutuak antolatutako kongresuan izan da; kooperatiben eta gizarte ekonomiaren gainean jardun du.

Pertsonei lehentasuna ematen dieten jarduera ekonomikoak eta antolaketa aztertu dituzue kongresuan. Eta horretan zu aditua zara. Zer esan diezu elkartutakoei?

Gure borroka eta ahalegin guztia –GBE-NER elkartearena ere bai– honako bidetik doa: enpresek eta erakundeek ez dutela zerikusirik modelo juridikoarekin, pertsonen sentitzearekin baizik: sentitu eta elkarbanatu gura izatea, gizarte barruan sentitzea…

Zuk esandakoak oso ezagunak dira: "Erakundeetan pertsonak dira garrantzitsuenak; zuzendari eta langileek taldean egin behar dute lan...". Egun dugun krisi sasoirako balio dute berba horiek?

Guztiz. Hamarkadak daramatzat borroka horrekin; orain guztien ahotan dagoen kontua orduan erokeria zen. Zenbat eta arazo gehiago izan –*arazo* berbarekin aukera definitzen dugu askok–, balio handiagoa dute berbok; izan ere, aukera arrakastatsuak izateko –arrakastarekin ulertzen dela: hobetzea, haztea, konpartitzea…– pertsonekin izan behar delako. Pertsonak, ikasia izan edo ez, gaitasunak ditu, eta oso dibertsoak garenez taldeko lanak elkarren osagarri egiten gaitu. Eta hierarkiak ez, hierarkiak indibidualizatu egiten du.

Futbol talde bat ez dabilenean ondo, lehenengo, entrenatzailea kaleratzen dute. Enpresan, ostera, langileak doaz kalera.

Bai, modeloa guztiz hierarkikoa delako eta ez dagoelako talde kontzepturik. Talde izaera egonda, gainerako taldekideek babestu gura izanez gero min handia egin dezakete. Enpresetan, ostera, bi edo lau bota arren, ez dute adiskidetasun kontzepturik. Onenean ere, sindikatu tradizionalak defendatuko ditu –neure ustean, oso era tradizionalean egiten dute lan sindikatuek–, baina ez da hil edo biziko defentsa, dirua, lanorduak… lortzeko defentsa da bakarrik.

Pertsonengan sinistea, kasu honetan langileengan, nahikoa balitz, ez legoke hainbeste kaleratze, ala?

Nik azaldu dut GBE-NER elkartean 2.000 langiletik gora garela eta ez dugula inor bidali. Eta dagoeneko irteten gabiltza zulotik; lehen, aktibitatearen %60ra geunden, %85era… eta ia seguru datorren urtean lan-jardun osora egongo garela, eta enpresa guztiak positiboan. Berriro ere elkarbanatzea da gakoa; "Nik irabazten dudana nirea da", edo, zergatik ez, 8 ordu lan egiten dugunok 7 eta erdi egin eta %5 edo %7 horrekin lana eman beste %7 edo %8ri? Zergatik ez izan eskuzabalak? *Eskuzabal* berba ergel, tonto, berbarekin lotzen dugu. Baina hori hezi egin daiteke: etxean banatu lehenengo, auzoan, lantokian… Hala, urte txarra badugu elkarbanatu egingo dugu, eta ez goikoa etorri –kostuak murrizteko dago goiko hori– eta kostuak murrizteko jendea kaleratu. Hori da daukan kultura eta unibertsitatean ikasitakoa: kostuak murrizteko langileak botatzea.



Koldo Saratxaga, Oñatiko unibertsitatean, Soziologia Institutuak antolatutako kongresua egin bitartean. | M.A.

"Gu 2.000 langiletik gora gara eta ez dugu inor kaleratu"

"Kooperatibetan langile asko daude, baina kooperatibista oso gutxi"

Kultura kontua bakarrik da?

Bai, eta hori apurtu beharra dago. Izan ere, exekutiboek ez dakite beste era batera lan egiten, hala hezi dituztelako: piramidea dute gainean, erantzukizunak, kontseilu edo dena delakoaren eskaerak… Kudeatzeko era bat da kostuak murrizteko aktibitate gutxiago; hau da, gosea dut, hortaz, hozkailua zabalduko dut. Baina hozkailuaren kultura da epe motzeko kirurjia eta orbainak betiko uzten dituena.

"Hezkuntzatik hasi behar du iraultzak; bestela, pausoak bakarrik dira"

Kooperatibekin desengainatuta igarri zaitugu; modelo egokia da krisiari aurre egiteko?

Ez dela modelo bakarra uste dut; kooperatibetan langile asko daude, baina kooperatibista gutxi. Kooperatibista kopuru bera edo gehiago dago kanpoan. Leku askotan egon naiz, 20 bat urte egin ditut kooperatibetan eta beste horrenbeste sozietate anonimoetan; hortaz, jende asko ezagutzen dut eta ezin da bereizi non dagoen bata eta bestea. Hori baino gehiago, nik nahiago dut lan egin, elkarbanatu eta kolaboratu sozietate anonimoekin kooperatibekin baino. Bizio gutxiago dituzte eta esker onekoak dira. Kooperatibetako betiko bazkidea langilea da, baina, era berean, nagusia, haren txapelak bi alde ditu, eta hori oso konplikatua da.

Hortaz, hausnarketa, autokritika egin behar dute kooperatibek?

Bai, noski. Baina ez da bakarrik beste buelta bat ematea kooperatibei, gizarteari baizik. Kooperatibek foku bat izan behar zuten; uneoro argia ematen egon beharreko fokua, salaketa estilo bat, multinazionalen izaerari jarraitu barik arrakasta izan daitekeela erakutsi behar zutenak, eurak bestekoak edo hobeak izanda; baina ez da hala izan. Kooperatiba gehienek –ez bakarrik Mondragon– enpresa handiei jarraitu diete. Baina hori da ez dakigulako egiten beste era batera, horixe erakusten digutelako unibertsitatean.

Zerbait ikasi dugu krisiarekin? Edo lehengo egoerara noiz itzuliko zain gaude guztiok...

Gizartea da aldatu behar duena eta ez da egon halako mugimendurik. M-15 agertu da orain, eta hori da gizarteak behar duen aldaketa. Izan ere, lanari begira gaude "enplegua gora, enplegua behera…" baina zertarako, berriro jausteko sei urte barru? Zelako lana eta zein egoeratan? Berriro %5eko langabezia tasa izan eta 2,5 puntu igotzeko? Hori da gure helburu guztia? Ez, buelta eman behar zaio tortilla horri, eta horretarako politikari hauek ez ditugu behar, ez dakitelako besterik egiten. Hasi dira aldaketak, eta, betiko legez, oinarritik datoz, ez boterea dutenengandik.

Confebask-ek esan du 5.000 lanpostu sortuko direla aurten.

Ez zait interesatzen dioena, bihar beste zerbait esango duelako. Orain dela lau bat aste Arabako enpresariek esan zuten atzera gindoazela eta 20 egun geroago gorantz goazela dio Lazpiurrek. Eta 5.000 lanpostu zer dira, ba? Ez doaz arazoaren sustraietara.

Eta aldaketaren fruituak noizko?

Iraultza baterako hamarkadak behar dira. Hezkuntzatik hasi behar da, gainera; bestela, pausoak bakarrik emango dira, baina ez iraultza egin. Gizartetik etorriko da aldaketa; gazteek 20 urte daramatzate geldi, lasai bizi izaten, eta ezin da izan gaztea eta ezer ez egin. Norberaren arrastoa utzi behar da gizartean, eta gerora topatu gura dena ereiteko unea da. Hasi dira mugitzen, eta hortik etorriko da aldaketa; denbora beharko dute, baina ez daitezela geratu.

ZABALIK

OSKAR ELIZBURU
'http://goiena.net/iritzia/'

Zorionak, Goienazaleei

Berri pozgarrien bila ibiltzen gara, gehienetan, *euskalakariok*. Euskaraz egiten den edozer ikustean poztu egiten gara. Eta egiten den hori ederra, balekoa eta erabilgarria denean, ene, pozez txoratu!

Horrelako kasua da, oraingoan, komentatuko dudana: Goienak Rikardo Arregi sari nagusia jaso du! Ez da broma gero! Eta saria 10 urteko ibilbideagatik eta berrikuntza teknologikoa bultzatzeagatik eman diote. Kazetaritzan dagoen euskal saririk garrantzitsuena herri hedabide batek jaso du! Ez dago zalantzarik: lana egoki egiten ari dira Goienakoak!

Astero pare bat aldiz paperean jasotzeko aukera ematetik salto egin eta multimediari eman dioten aukera goraipatu dute saria ematerakoan. Berriak egoki emateaz gain, diseinu eta estetikan eman diren aurrerapausoak; *Goiena.net* eta bere barruan dauden horiek guztiak nabarmendu dituzte.

"Multimediari eman dioten aukera goraipatu dute"

Goienakoek, baina, jaso dute saria, ondo merezitakoa; eta nik neuk ere, hemendik, AEKren sortzaile izan zen Rikardo Arregiren izena duen saria jasotzeagatik zorionak eman gura badizkiet ere, beste batzuk nabarmendu nahi ditut. Goienazaleak zoriondu nahi ditut, *Goiena.net* egunero erabiltzen duten 4.000 zaleak. Erabiltzaileek osatzen dute hedabide baten zikloa; erabiltzaile barik ez dago biziko den hedabiderik.

Euskararen normalizazioan hedabideak oso garrantzitsuak dira eta, gure kasuan, hizkuntza minorizatu batek teknologiak baliatzea ezinbestekoa da. Euskararendako erakusleiho galanta izan liteke Internet eta izaten ari da.

Maitatu, ikasi, ari esaten genuen, duela gutxi, 17. korrikan, eta han ibili ginen milaka lagun euskaraz bizi nahia erakusten. Erabiltzaile bihurtzea da *euskalakari* izateko modurik onena, eta 4.000 erabiltzaile horiek biderkatzea da helburua, eta lortuko dugu.

Hortaz, zorionak, Goienazaleei, eta bide beretik jarraitu!

USTEAK USTE

TXOMIN MADINA | 'tmadina@goiena.com'

Aurikularrak askatzen

Txomin, *Usteak uste* tokatzen zaizu". Eta hala, buruari bueltak ematera. Bikini operazioa? Ez, aurten ere kale. Jaiak? Oñatiarrok urrun samar dauzkagu oraindik. Langabezia? Uf, gorabehera asko eta irtenbide gutxi. Diputazio berria? Hasi besterik ez da baina egin! Beherapenak? Ezta ere, dagoeneko ez dira lehengoak. Xala txapeldun? Bejondeiola, baina pilotaz ez dut ulertzen. Gaiak joan, gaiak etorri, gaiak deuseztatu. Bizitza aurikularren korapiloak askatu bitartean pasatzen den hori dela dio Facebookeko talde batek. Eta *aurikularrak* askatu dioenak *Usteak uste* idatzi ere esan dezake. Tremendista esango dit norbaitek; baliteke, baina, batez ere, opor gose.

KALE INKESTA

San Ferminetara joateko ohiturarik ba al duzu?

IDOIA BOLINAGA
OÑATI

"Gaztetan joaten nintzen, baina orain ez. Egunen batetan bueltatuko naiz, baina, gaueko parrandara barik, egunean zehar egoten dena ikustera".

RAFA GURIDI
OÑATI

"Joan izan gara, bai gaupasa egitera eta baita eguna igarotzera ere. Orain ez dugu ohiturarik, baina entzierroa ikustera egunero jaikitzen gara ".

UNAI ELORZA
OÑATI

"Orain ez. Lehen lankideok joaten ginen. Txupinazora joaten ginen eta hurrengo egunean entzierroa ikusi ondoren bueltatu".

ARANTXA KORTABARRIA
OÑATI

"Gaztetan joan izan naiz. Nire gusturako jende gehiegi egoten da, baina gustura ibiltzen ginen. Gaur egun entzierroak ere ez ditut ikusten".

HANDIK ETA HEMENDIK

Sariak

Ismael Manterola Ispizua
http://berria.info/blogak/kulturak/

Patxi Zubizarretaren *Joan* liburuan, arte plastikoen sari banaketa istilutsu bat deskribatzen da.

Saria jasotzera doanean, Joao izeneko fikziozko pertsonaiak pinturaz betetako globoak botatzen ditu jendearen kontra, tartean dagoen kultura ministroaren marka garestiko trajea zikin-zikin eginda lagatzen duelarik.

Ordutik aurrera, Joao *Artearen etsaia* ezizenaren bidez ezaguna izango da Portugalgo kultura munduan.

Itxuraz, aurki Gure Artea sariak banatuko dira, eta gure artean goian deskribatutako egoeraren antzeko zerbait gerta zitekeen irudikatzen saiatu naiz.

Ez dirudi horrelako ezustekorik gertatzeko arriskuan gaudenik; agian ezta nahi ere.

Baina, aurtengo Gure Artean egon diren aldaketak kontuan izanda, sorpresaren bat edo performanceren bat eskertzekoa izango litzateke.

Perfektua ez zen sari sistema hobetu beharrean, sari askoz ere konbentzionalagoa bihurtu dute lehendik artisten artean ilusio gutxi eragiten zuen Gure Artea saria.

Lehen, gutxienez, dirua hiru artistaren artean banatzen zen, eta horrek pizgarri moduan funtzionatzen zuen sarira aurkezterako orduan.

Gaur egun, sarira aurkezterik ere ez dago.

Horren ordez, Eusko Jaurlaritzako kultura sailak izendatutako bost epaimahaikideen artean saria jasotzeko gai izan daitezkeen hiru lagunen izenak proposatzen dira, hiru ataletan banatuta: ohorezko saria, "bere onenean dagoen artista" eta artearen alde zerbait egin duen norbait edo erakunderen bat.

Berez, ez dago gaizki ohorezko sariak banatzea edo artearen alde zerbait egin duen edo egiten duen norbait saritzea.

Garbi ez dudana da sarituek dirua jaso behar duten edo ez.

Ohorezko sariak ematea ondo dago, eta aurtengo irabazleek merezi dutela iruditzen zait, nahiz eta Gure Arteako diru poltsatik irten behar izatea ondo ez iruditu.

Azkenean, aurtengoan, dirua lanean dauden hiru artistaren artean banatu beharrean bati bakarrik emango zaio.

Bestalde, lehen, aurkezten ziren artisten artean banatzen ziren sariak; orain, berriz, Kultura Sailekoek izendatutako epaimahaikideen artean proposatutakoen artean.

Lehen, erakundeak arduraduna izendatzen zuen, eta horrek profesionalen artean hiru epaimahaikide aukeratzen zituen.

Azken horiek normalean kanpokoak izaten ziren, inpartzialtasun handiagoa ziurtatzeko.

Azkenik, aukeratutakoen artean erakusketa antolatzen zen, eta horrela, bi urtetik behin, Euskal Herriko artisten lanen ikuspegi zabala ezagutzeko aukera izaten genuen.

Horren ordez, aurten, sari banaketa ekitaldi arrunta izango dugu (Oscar sarien formula kopiatzen ez badute behintzat), eta ziur egon gaitezke ez dela Patxi Zubizarretaren liburuan deskribatutako sorpresaren antzekorik izango.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa, 20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko ediozio arduraduna Miren Arregi
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Ikus itzazu argazkiak, astero, asteleheneko Goiena paperean

UDAKO ARGAZKIEN VII. GOIENA LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

Bidali zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!

Argazki guztiak fotoblog honetan: *goiena.net/blogak/argazkiak*

LARA GONZALEZ

IDOIA ITURRALDE

MIGUEL DE GANESHA

Har ezazu parte!

Oinarriak

- **Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake.Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:**
  - **Egilearen izen-abizenak eta herria.**
  - **Harremanetarako telefonoa.**
  - **Argazkia noiz eta non ateratakoa den.**
  - **Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.**
- **Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 1etik irailaren 16ra arte.**
- **Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).**
- **Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.**

- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: *argazkiak@goiena.com* helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate ARETXABALETA: Basabe poligonoa E05 edo Durana 11-2 solairura, 20550 Aretxabaleta.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Egoitzara ekartzekotan kartazal batean sartuta, CD batean, edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPG formatuan.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera asteleheneko Goiena paperean eta Goiena.net-n sortuko dugun foto-blogean. Goiena telebistan ere erakutsiko dira argazkiak.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 3an jakingo dugu asteleheneko Goiena paperean.
- Epaimahaia Goienako kideek eta bailarako argazkilari profesionalek osatuko dute eta argazkiaren kalitatea, originaltasuna eta balio historikoa hartuko dituzte kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkia guztiak Goienako artxiboan gordeko dira eta aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

Sariak

1. saria

Panasonic LUMIX DMC G10 argazki kamera digitala eta KB Photoestudiok eskaintzen dituen ikastaroetako batean, %50eko deskontu bonoa Bergarako KB Photoestudio argazki dendaren eskutik.

- 12 megapixel.
- LUMIX G VARIO 14-42mm / F3.5-5.6 objektiboa.
- 3 hazbeteko LCD pantaila.
- Live View Dual denbora osoan.
- Flash eta guzti.

2. saria: Cantabrian bi lagunendako astebukaera bateko egonaldia. Arrasate Bidaiak-en eskutik.

3. saria: bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

ANTOLATZAILEA: goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK: kb photoestudio www.kbphotoestudio.com · GURE AMETSA JATETXEA · ARRASATE BIDAIAK · Panasonic LUMIX

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Imanol Bolinaga | EAJko alkatea eta zinegotzia (1983-1987/ 1987-1991)

- Bergarako alkate izendatu zuten 1983an
- Hurrengo agintaldian zinegotzia izan zen
- Gasteizen eta Madrilen ere ibilitakoa da Bolinaga

"80ko hamarkada gogorra izan zen Euskal Herrian; gogoratu egin behar da berriro ere ez errepikatzeko"

Imanol Bolinaga, Labegaraieta kiroldegiaren aurrealdean. | ARANTZAZU EZKIBEL

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Gazte, 17 urterekin hasi zen Bolinaga politika kontuetan; orduan, klandestinitatean. 1983an alkate izendatu zuten eta ordutik buru -belarri ibili da lanean. Politikan egin duen ibilbideari gainbegiratua egitean, duda barik, alkate izandako urteak izan zirela onenak dio.

Zelan sartu zinen politikan?

Urte asko dira, 17 urte neuzkala sartu nintzen klandestino lanetan, 1950ean. Denborarekin zerbait lortzen hasi ginen, herri mailan, eta, hala, alderdi politikoak berritzen hasi ziren. Ordurako ni EAJn nengoen, baina garai hartan txartel berria jaso nuen. Hemengo batzokian izaten nintzen eta alkate baino lehenago batzarretako ordezkaria nintzen. Gero, hautagai izendatu ninduten eta 83an eskuratu genuen alkatetza.

Nola gogoratzen dituzu alkate izandako urteak?

Urte lanpetuak izan ziren, baina pozik eraman nituen. Asko ikasi genuen, eta maitasun osoz gogoratzen ditut.

80ko hamarkadako urteak gogorrak izango ziren Euskal Herrian.

Urte gogorrak izan ziren Euskal Herriarendako eta baita hemen bizi ginenendako ere. Istilu asko izaten ziren. Ez dira ahaztu behar urte haiek, eta gogoratu egin behar dira berriro ere ez errepikatzeko.

Pertsonalki zer izan zen urte haietako txarrena?

Pertsonalki ez, baina inguruan zeudenei lagundu beharra, espetxean zeudenak, Guardia Zibilak eramaten zituenak... Horiek izaten ziren lan latzenak. Joan beharra edo lagundu beharra. Eta, batzuetan, hala ere, ez zinen ondo ulertua izaten. Batzuek onartu egiten zuten egiten zenuena eta beste batzuek ez.

Alkate izandako urteetan egin zenuten Labegaraieta kiroldegia.

Kiroldegi baten beharra zegoen Bergaran. Diru asko gastatu genuen Labegaraieta egiten; izan ere, orduan, gaur egun bezala, krisian geunden.

Gainera, ez zen izan Labegaraieta egitea bakarrik, auzo guztia eraberritu genuen. Oso pozik geratu ziren herritarrak, eta, zer esanik ez, auzotarrak. Aurreko agintaldikoek hasi zuten proiektua eta guk jaso eta aurrera eraman genuen. 1986an inauguratu genuen kiroldegia.

Gainera, proiektua egin zuen Ramon Garitano arkitektoa saritu egin zuten.

Ramon Garitano auzotarra zen, eta Europa mailako saria irabazi zuen.

Aranzadiren jaiotzaren 125. urteurrena (1985). | BERGARAKO UDALA J. IDIGORAS FONDOA

"Kiroldegia egitea baino gehiago izan zen; auzoa ere eraberritu genuen"

"Zubiarekin, Matxiategi eta Ibargarai lotu genituen"

Migel Altuna pareko zubia egin zenuten, Ibargarai eta Matxiategi lotu zituenak.

Bai; obra handia izan zen. Lehen, auto guztiak herritik pasatzen ziren. Zubiarekin, Matxiategi eta Ibargarai lotuta geratu ziren. Gainera, Matxiategiko auzoa ere eraberritu genuen; eta baita Ibargarai kalea ere. Lehen, utzitako lantegiak zeuden han.

Beste proiektu bat Mizpirualde egoitza berritzea izan zen.

140 milioi pezeta kostatu zitzaigun. Izerdi ederrak bota behar izan genituen hori lortzeko. Mizpirualde bi zatitan egin zen, eta guk proiektu horietako bat egin genuen. Gainera, Zabalotegi kalea ere eraberritu genuen; 8 milioi pezeta kostatu zitzaigun.

Bergaran alkate eta zinegotzi izateaz gain, Gasteizen, Madrilen eta Bruselan ere ibili zara politika egiten. Zeintzuk izan dira urte onenak?

Gehien bete nauena Bergarako alkate izatea da, hori ezin da aldatu. Ahal izanez gero, atzera eginez gero, berriro ere alkate izan nahiko nuke. Urterik politenak izan ziren, duda barik, handienak.

Gremioen gida

Jatetxeen gida

NEGOZIOA BADAUKAZU, BAINA INORK EZ BADAKI?
Eman ezagutzera zure negozioa Debagoieneko gidetan.
Osasun zerbitzuen gida

Profesional liberalen gida

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.

HERRIAK

Pibote hidraulikoak ipini dituzte Iturritxo tabernaren parean. | MIREIA BIKUÑA

Tabernariek mahaiak eta aulkiak ipini dituzte. | MIREIA BIKUÑA

OÑATI

Hilaren 18an irekiko dute Atzeko kaleko zirkulazioa

- Pibote hidraulikoen sistema ipini dute Iturritxotik Kirrineraino
- Merkatariak "gustura" daude kalerak hartu duen itxurarekin

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Hilaren 18an zabalduko dute Atzeko kalea zirkulazioarendako. Badira aste batzuk kalea oinbideratzeko lanak bukatu zituztela, baina autoendako hurrengo astelehenean, hilaren 18an, zabalduko dute. Antza, kale erdian ipini duten porlana "gogortu" egin behar zen automobilak gainetik pasa aurretik.

Kale Barrian eta Kale Zaharrean egindako moduan, pibote hidraulikoen sistema ipini dute. Pibote sorta bat Iturritxo tabernaren parean ipini dute eta bestea Kirrineko kantoian –hori da oinezkoendako egokitu duten kale zatia–. Aurretik aipatu kaleen antzera, ordu zehatz batzuetan egongo da automobilendako eta zamalanak egiteko zabalik; hain justu ere, 08:00etatik 12:00etara. Tarte horretan, erdiko pibotea jaitsita egongo da.

Gauza onak eta txarrak

Automobilak ez, baina oinezkoak hasi dira Atzeko kaleak duen itxura berriaz gozatzen. "Beste kale bat dirudi. Ez dauka zerikusirik aurrekoarekin. Egia esan, dotore geratu da", esan digu Baio dendako Arantza Palacinek. Galizia Tabernako Josu Cambesesek esan digu "bizia" duela kaleak: "Salouren antza hartzen diot [Barreak]. Tabernariok mahaiak eta aulkiak ipini ditugunetik, giro ederra egoten da, eta eguenetan, pintxo-poteoarekin, gainezka egin dugu".

Baina, kale eraberrituarekin disfrutatzen hasi aurretik, lan gogorrak "sufritu" behar izan dituzte. Atzeko kaleko hainbat negozioen jabeekin berba egin dugu, eta gehienek *kaotiko* berba erabili dute. "Nire ustez, lanak ez dituzte behar bezala planifikatu. Askotan moztu egin digute ile -apaindegirako sarrera, ez dute pasabiderik ipini, kale osoa hankaz gora ipini zuten aldi berean... Orain, baina, disfrutatzeko ordua da", dio Sesiñeña ile-apaindegiko Izaskun Aldanondok.

Iritzi berekoa da Baio dendakoa ere: "Pertsona adinduak etortzen dira gurera, eta askotan sartu ezinka egon dira, sarrerarik ez nuelako dendan. Nahiko lotsagarria izan da".

Juanitosa dendak bi ate ditu: bata Kale Barrian eta bestea Kale Zaharrean. Horregatik akaso, ez zaizkie gogorregiak egin lanak. "Hasierako egunetan kalea hesitu egin zuten. Hesi altuak ipini zituzten, eta larri ibili ginen. Bestelakoan, nahiko ondo. Gure bezero gehienak Kale Barriatik sartu dira", dio Arrate Markiegik.

Lanak bukatuta, guztiak ados daude esatean kaleaz "gozatzeko momentua" dela.

ESANAK

"Beste kale bat dirudi. Ez dauka zerikusirik aurrekoarekin. Egia esan, eraberritzeko beharra bazuen"

ARANTZA PALACIN | BAIO ARROPA DENDA

"Lanak kaotikoak, antolamendua eskasa, eta ez dizkigute negozioen sarrerak errespetatu"

IZASKUN ALDANONDO | SESIÑENA

"Kalean mahaiak eta aulkiak ipini ditugunetik giro aparta dago, eta pintxo-poteoarekin, gainezka egin dugu"

JOSU CAMBESES | GALIZIA TABERNA

"Guztiondako izango dira onak Atzeko kalean egindak lanak: merkatari txikiendako eta oinezkoendako"

ARRATE MARKIEGI | JUANITOSA

Herriko txikienek ere parte hartu zuten zapatuko Umeen Egunean. | JULIO CALLEJA

Kanpotik etorritako gurasoek bisita gidatua egin zuten herritik. | JULIO CALLEJA

LEINTZ GATZAGA

Neska-mutikoek samur topatu zuten altxorra

Gurelek antolatuta, familia giroan egin zuten zapatuan herrian egiten den lehen Umeen Eguna

MIRIAN BITERI | LEINTZ GATZAGA

Familiaz bete ziren zapatuan Leintz Gatzagako kaleak, Gurelek antolatutako Umeen Egunaren harira. Eguerdian elkartu ziren haurrak nahiz gurasoak pilotalekuko arkupetan. Lehenik eta behin, aurkezpena egin zuten, kanpoko ume asko zeuden-eta, eta jarraian, multzotan banatu zen taldea. Kanpotik etorritako gurasoek herria ezagutzeko bisita gidatua zuten bitartean, gainerakoak gatz museorantz abiatu ziren; nagusienek museoa eta Dorleta bisitatu zituzten; santutegian, indarrak berreskuratzeko aukera izan zuten han banatutako pintxoei esker.

Etxeko txikitxoenek bitartean, Udalak gordetako altxorra topatzeari ekin zioten; parte-hartzaile azkarrak zeuden eta bidean jarritako pistei esker, samur topatu zuten herrira itzultzean. Ordurako buruhandiak eta askotariko jolasak zituzten zain neska-mutikoek. Jarraian, bazkaria izan zuten; eta 80 lagunetik gora elkartu ziren. Arratsaldean, karaokea eta antzerkia izan zituzten.

40 ume inguru

Deialdia irekia zen, eta kanpoko jendea ere izan zen; Eskoriatza, Arrasate eta Aramaiokoak ez ezik, Bilbotik eta Sestaotik ere iritsi ziren hainbat. Horren harira, Gureleko Dorleta Elkorobarrutiak azaldu du herria kanpokoei erakutsi gura izan dietela ekimen horren bidez. Honakoa esan du: "Herrian ume asko daude; 150 lagun inguru bizi gara, eta horietatik 15 urtetik beherako 40 inguru daude. Asmoa da ekimenak egiten direla eta herria bizirik dagoela erakustea".

DORLETA ELKOROBARRUTIA
LEINTZ GATZAGA

"Asmoa da urtero ekimenen bat antolatzea uda sasoian. Datorren urteei begira, zerbait serioagoa finkatu nahi dugu; hori bai, beti umeei lotuta joango da hori".

ASIER ETA ARATZ
LEINTZ GATZAGA

"Begirale lanak egin ditugu. Altxorra topatzen lagundu diegu umeei, herritik Dorletara bitartean. Horretaz gainera, buruhandiak ere izan gara; denetarik apur bat".

BORJA GARATE
BILBO

"Familia giroan egun atsegina pasatzera etorri gara Bilbotik. Leintz Gatzagako lankide baten bitartez etorri gara laneko hainbat kide. Giro ederra dago herrian".

LARRAITZ, SAIOA ETA SARA
LEINTZ GATZAGA

"Gustura gabiltza, goizean altxorra bilatzen eta gero, pilotalekuan bazkaltzen. Askotariko jolasak ditugu, eta ahal izan ezkero, guztietan hartuko dugu parte".

Migel Marik alaitu zuen Antzuolako bazkaria

Urteroko bazkaria egin zuten atzo Antzuolako 140 erretiratu inguruk. Menu ederra izan zuten: hestebeteak eta zainzuriak, bizkaitar erara gertatutako bakailaoa, masailak saltsan eta flana izozkiarekin. Bazkalostean, Migel Mari oñatiarraren musikarekin gustura egin zuten dantza antzuolarrek.

JULIO CALLEJA

Herri kirolen erakustaldia izan zen meza ostean ikusgai. | TXOMIN MADINA

BERGARA

Santuarekiko debozioa eta festa giroa San Kristobal jaietan

Urteroko ohiturari jarraituz, autoak bedeinkatu zituzten meza nagusiaren ostean; jaiek baina asteburu osoa iraun dute

TXOMIN MADINA | BERGARA

Ondo dotore zeuden atzo Bergarako Aldaiegia auzoko San Kristobal ermitaren inguruan aparkatutako autoak. Izan ere, San Kristobal eguna izan zen atzo, auto-gidarien zaindariaren eguna, eta aspaldiko tradizioari jarraituz, lore sorta ederrak ikus zitezkeen auto askotan. Bai autoek eta baita pertsonek ere, guztiek jaso zuten apaizaren bedeinkapena eguneko meza nagusiaren ostean.

Asteburuak, baina, egubakoitzetik bertatik hasita, askorako eman zuen.

Pinua sartzea

Jaiei egubakoitz gauean eman zitzaien hasiera, Ohitura den legez auzotarrek inguruko baserri baten hartutako pinua ermita inguruan landatu zutenean. Horren ostean saiheskia, sagardoa eta txokolatea egon ziren indarrak berreskuratzeko.

Zapatuan, aldiz, jende asko bildu zen Miren, Agur eta Gorka hirukoaren erromerian. Domekan ,bestalde, auto bedeinkapenaz gain, egon zen zer ikusi ermita inguruan. Hala, auzoko erretiratuendako luntxa egon zen, eta herri kirolen erakustaldia ere egin zuten. Bata eta beste, jende ugari ibili da, beraz, San Kristobalen omenezko jaietan, eta jai batzordekoak, gustura agertu dira jaiek eman dutenarekin.

Auzoko erretiratuendako luntxa ere egon zen. | T. M.



MAITE IRIZAR
BERGARA

"Beti etortzen gara, senarra bertakoa dut-eta. Niretzat tira, baina senarrarentzat bai dira jai bereziak. Guk ez dugu horretarako ohiturarik, baina egia da jende asko etortzen dela autoa bedeinkatzera".



MAITE AGINAGALDE
BERGARA

"Ama hemengoa da eta beti ezin bada ere, badugu etortzeko ohitura; iaz eta aurten gainera, asteburuan tokatu denez... Autoa ere bedeinkatu dugu bide batez: horrelaxe ikasi dugu, eta segitzen dugu fede txiki hori mantentzen".

ASENTZIO GARITANO
BERGARA

"Auzokoa izan arren, Gasteizen bizi naiz duela 50 urte, baina denbora honetan guztian, oso gutxitan egin dut kale jaietan. Ez dago jai hauen parekorik! Lore sorta ere ekarri dut autorako".

JESUS ALUSTIZA
BERGARA

"Auzoan familia dut, eta urtero etortzen naiz. Jai oso politak dira, ez dira halako jai asko geratzen. Tradizionalak dira eta auzoko zein Bergarako jende asko erakartzen dute".

JULIO CALLEJA

ONATI

Trianako jaiak, beste behin ere arrakastatsu

Asteburu luzea izan dute hau Triana auzoan, bertako jaiak ospatu dituzte-eta. Egubakoitzean hasi zen festa Astotrastoren jaitsierarekin, eta jaietarako prestatutako ekintzek erantzun bikaina izan dute. Horren adibide da, esaterako, zapatuko marrazki lehiaketan 200 ume inguruk hartu zutela parte; baita zapatuko goizalderako txoznan garagado barik geratu izana ere. Egubakoitzean egindako pintxo-potea, zapatu gaueko kontzertu jaialdia eta erromeria, eta domekan Ganbarakoek emandako kontzertuak ere ikusmin handia piztu dute.

JULIO CALLEJA

ARRASATE

Gazpatxoa barra barra

Uda giroan sartu gauden honetan, Corazon de Encina elkarteak antolatuta sasoi honetan hain ohikoa den gazpatxoa dastatzeko aukera izan zen atzo elkartearen egoitzan. Elkartekoek eurek prestatu zuten gazpatxoa, eta hamar kilo sardina ere banatu zituzten. Terrazan egin zuten dastatzea, eta jende ugari erakarri zuen.

Arrasatearren beharrei erantzuteko aurpegi berriak dituzten 12 batzorde

- Antolaketarako bilkuran, liberazioek eragin zuten eztabaida handiena
- Alkateordeak eta udal organoetarako ordezkariak ere izendatu ziren

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Ekainaren 11ko udal eraketa bilkuraren ostean, eguenean egin zen 2011-2015 agintaldiko lehenengo osoko bilkura. Ezohiko izaera izan zuen, Udalaren jarduna antolatzeko bilkura zen-eta. Hainbat erabaki hartu ziren, eta talde ezberdinetako zinegotzien artean eztabaida handiena eragin zuten gaiak honakoak izan ziren: korporazioak ordezkatuko dituen organo kolegiatuetarako izendapenak eta udal karguen dedikazioaren asignazioari buruzko proposamenak; hau da, liberazio ekonomikoak.

Udal taldeak osatu ziren ekainaren 11ko osoko bilkuran eta eguenean bozeramaileak jakinarazi ziren: Iraia Sola (Bildu), Juan Karlos Garitano (EAJ), Aritz Arrieta (PSE-EE), Joxe Etxeberria (Aralar) eta Itziar Lamarain (PP) izango dira. Gainera, ekainaren 11ko udal eraketa bilkuratik egueneko bilkurara arte alkateak hartu dituen erabakien berri izan zuen osokoak. Erabaki horien artean daude Tokiko Gobernu Batzarreko kideen izendapena. Hauexek osatuko dute: Amaia Larrañaga, Joseba Ramon Askasibar, Iraia Sola, Maider Morras, Omer Arregi, Kepa Urteaga eta Joxe Etxeberriak. Alkateordeak ere eman zituen aditzera Inazio Azkarraga-Urizar alkateak: Amaia Larrañaga, Joseba Ramon Askasibar, Maider Morras eta Kepa Urteaga izango dira, hurrenez hurren.

Bestalde, osoko bilkurak hileko lehen martitzenetan 18:00etan egitea onartu zuen udalbatzak.

Udalbatza berria, joan den egueneko udal antolaketarako osoko bilkuran. | JOKIN BEREZIARTUA

Bost zinegotzi liberatuko dira

Bestalde, osokoak onartu beharreko erabakiak hartu ziren. Besteak beste, batzorde informatzaile iraunkorren kopurua eta horietako arduradun politikoa zehaztu zen (beheko koadroan ikusgai). Bozketan honakoa izan zen emaitza: 12 boto alde –Bildu, Aralar eta PP–, lau aurka –PSE-EE– eta lau abstentzio –EAJ.

Eztabaida handiena piztu zuen gaia, baina, zinegotzien liberazio ekonomikoa izan zen. Hiru zinegotzi erabateko dedikazioaz jardutea proposatu zuen alkateak: alkatea bera, Amaia Larrañaga eta Joseba Ramon Askasibar. Eta baita beste bi zinegotzi zatikako dedikazioaz jardutera: Kepa Urteaga eta Maider Morras, hain zuzen. Proposamena onartu egin zen: Bilduren 10 botoen –Juan Antonio Barriocanal zinegotzia ez zen egon– eta Aralarren botoarekin. Gainontzeko bederatzi zinegotziek –EAJ, PSE-EE eta PP– kontra bozkatu zuten. Oposizioko kideek salatu zuten krisi garaian liberazioak ia bikoiztu egingo direla.

Azkenik, organo kolegiatuetarako udal ordezkariak izendatu ziren; besteak beste, Aukea eta Iturbide egoitzakoak. Askasibar eta Larrañaga izango dira, hurrenez hurren.

Batzorde informatzaile iraunkorrak

Hirigintza

Omer Arregi

Gizarte Ongizatea

Amaia Larrañaga

Ingurumena

Josu Pereda

Ogasuna

Iratxe Zeziaga

Gazteria

Iraia Sola

Obrak, Zerbitzuak eta Auzoak

J.A. Barriocanal

Kultura eta Jaiak

Kepa Urteaga

Hezkuntza

Amaia Larrañaga

Euskara

Joxe Etxebarria

Berdintasuna

Maider Morras

Pertsonal Saila

Maider Morras

Enplegua

Joxerra Askasibar

Gaur hasiko dira Amaia antzokiko kanpoaldea urbanizatzeko lanak

Obrek bi hilabete eta erdi iraungo dute; aurrekontua 167.610 euro da

J.B. | ARRASATE

Udalak jakinarazi duenez, gaur hasiko dira Amaia antzokiko sarrera egokitzeko lanak. Uztailean zinema Monterron parkera eramango dela eta kultura eskaintza murriztuko dela aprobetxatuz, antzokiko sarrerako eremu urbanoa berrituko dute.

Zertarako? Bada, antzokiaren sarrera ageriago egon dadin eta bertaratzeko irisgarritasuna hobetzeko. Hau da, sarrera erosoagoa jarri gura dute, oinezkoei lehentasuna emanda. Lorategi antzeko bat ere jarriko dute –ikus ondoko irudia–. Lanek bi hilabete eta erdi iraungo dute eta aldez aurretik barkamena eskatu du Udalak lanek iraun bitartean Amaia inguruan sor daitezkeen eragozpen eta zaratengatik.

Obrak amaitu ostean Amaiako kanpoaldeak izango duen itxura. | ARRASATEKO UDALA

Aldaketa zirkulazioan

Izan ere, lanok Ferixalekuko aparkalekuetan zuzenean eragingo dute. Gaur ezkero autoak ezingo dira Amaia antzoki pareko sarreratik sartu eta orain arte irteera izan den lekutik –pilotaleku ondoko irteera– sartu eta irten beharko dira autoak. Udalak behar den moduan seinaleztatuko du gunea, baina orain arte baino polikiago joan beharko dela adierazi du.

Bergarako Artzamendi enpresak egingo ditu lanak eta aurrekontua 167.610 euro da.

Beste Bat! taldeak jai berezia prestatu du uztailaren 16rako

Hanburgoko St. Pauli futbol klubak Arrasaten duen Beste Bat! lagunarteak jai berezia prestatu du zapaturako. Jaiaren helburua da lagunartea ezagutzera ematea. Egitaraua, honakoa: goizean, Beste Bat! eta Iluntz taldeen arteko areto futbol partidua Iturripen, kalejira eta bazkaria elkarte baten. Arratsaldean, berriz, Biterin jarraituko du jaiak: puzgarriak, tailerrak eta kontzertuak. Bergarako Azkaiter Pelox eta Arrasateko Los Galerna taldeek joko dute. Amaitzeko, gauean kontzertuak izango dira gaztetxean: Oñatiko Ez! eta Aramaioko El Exterminio de la Raza del Mono taldeak.

Mirari Arando arduradunak entzierroaren gaineko argibideak eman zituen udaletxeko balkoitik. | JOKIN BEREZIARTUA

Sanferminekin bat eginez, 250 haur inguru udaleku irekietako entzierroan

Haurrak oso gustura aritu ziren Txatxilipurdiren zezenekin; bi entzierro egin ziren, adinaren arabera

Goiena Telebistarako San Ferminen kantua abestu zuten umeek. | J.B.

Iturriotz kaletik hasi ziren entzierroak; oso jendetsua izan ziren. | J.B.

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

San Fermin eguna ederto ospatu zuten Txatxilipurdiko udaleku irekietan parte hartzen dabiltzan umeek. Aurtengoan 250 bat haur irten ziren Iturriotz kaletik, zuriz jantzita eta zapi gorriarekin.

Bi entzierro egin ziren: lehena, 3 eta 6 urte artekoendakoa eta bigarrena, 6 eta 10 urte artekoendakoa. Haurrek gustura egin zuten korrika: batzuk zezenetatik gertu ibili ziren; beste batzuk, berriz, ahalik eta azkarren osatu zuten ibilbidea, zezenak ikusi ere egin barik.

Gero eta arrakasta handiagoa

Entzierroak haurren gustukoak direla ez dago zalantzarik. Zezenak plastikozkoak zirela jakin arren, Iruñean egongo balira bezala bizi izan zuten entzierroa. Gero eta arrakasta handiagoa duen ekimena da; ez dago udaleku irekiak ulertzerik entzierro barik.

Parisera joateko aukera urrian, Abaroari esker

Izena emateko epea uztailaren 18an irekiko da abuztuaren 5era arte; sei eguneko irteera da

J.B. | ARRASATE

Abaroa erretiratu elkarteak irteera berezia prestatu du urriaren 10etik 16ra bitartean. Parisera joango dira, eta sei egunetan zehar gure erretiratuek ez dute aspertzeko astirik izango. Izan ere, egitarau zabala prestatu dute Frantziako hiriburuko toki esanguratsuenak ezagutzeko.

Sei egunetan hamaika txoko

760 euro ordaindu beharko da, horietatik 400 euro fidantza moduan. Prezio horren barruan honakoa sartuko da: Arrasatetik joaneko eta itzulerako bidaia erosotasun guztiak dituen autobusean, sei gau hiru izarreko hotel baten, egonaldian zehar Parisko jatetxeetan egingo diren bazkariak, bidaian zehar egingo diren bi bazkari, Louvre museorako sarrera, Sena ibaian zehar *Bateau Mouche*-an egingo den paseoa, Versaillesko jauregirako sarrera, Ruan katedralerako sarrera, Chambord gaztelurako sarrera, istripuetarako unean bertan jasotzeko asistentzia-asegurua eta gauero pertsona bakoitzari emango zaion 30 euroko gehigarria. Hala, sei irteera egingo dituzte, egonaldiak iraungo duen egun bakoitzeko bat; sei egunetan, hamaika txoko.

Bazkideendako izenematea uztailaren 18an irekiko da, abuztuaren 5era arte. Abaroako bazkide ez direnek ere denbora tarte horretan eman beharko dute izena baina ez dute toki finkorik izango uztailaren 27ra arte. Autobuseko lekuak izenematearen ordenaren arabera beteko dira.

JOSE MARI VELEZ DE MENDIZABAL

1960ko hamarkadako igerilekuak

Jose Mari Velez de Mendizabalek 1960ko hamarkadan horren arrakastatsuak izan ziren Zalduspeko igerilekuak –Union Cerrajera ondoan– ekarri dizkigu gogora Arrasate eta Aramaioko historia txikiaren zehazkizunak eskaintzen dituen Hots Begi Danbolinak blogean. Orduan gizonezkoak bakarrik sar zitezkeen igerilekuan. Igerilekuotako arduradun Juanito Vegari eskaini dio artikulua.

Garbittu

Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
•
Obra bukaerako garbiketak
•
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
•
Kristalen garbiketak
•
Arropa garbiketak

Santa Kurtz 24, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

Aspace ingurua txukuntzen hasiak dira. Azken urteotan nahiko degradatuta izan da inguru hori. | AMAIA TXINTXURRETA

Urte amaierara arte iraungo dituzte Ibaiondo urbanizatzeko lanek

Egoera kaskarrean zegoen gunea egokitzea da helburua; aparkalekuen arazoari irtenbidea topatzea da asmoa; aurrekontua, 433.000 euro inguru

AMAIA TXINTXURRETA | BERGARA

Egoera kaskarrean zegoen gunea egokitzea da asmoa eta hiru helburu nagusi dituzte lanok: aparkalekuen arazoari irtenbidea ematea, erreka bazterra balioztatzea, eta Aspace ingurua txukuntzea. Urtearen amaierarako bukatzea aurreikusten dute. 433.204 eurokoa da aurrekontua.

Jesus Elortza Bergarako alkatearen esanetan, "Ibaiondo Bergaran nahiko degradatua dagoen zona da eta garai batean urbanizazio bezala egon bazen ere, denborarekin degradatzen joan da". Proiektuak aintzat hartzen du pasealeku guztia; hau da, Etxeaundi jauregi ondoan hasi eta beste muturrean dagoen zubiperaino. Bi sarrerok mantenduko dira, baina bide berria eginda. Ziburuen ondoan noranzko bikoitzeko bidea egingo dute, Matxiategi kaletik sarrera eta irteerarekin.

Ganorazko aparkalekuak

Obren beste helburuetariko bat da zona horretan dagoen aparkalekuen arazoari irtenbidea ematea da. "Orain arte ez zegoen ganorazko aparkalekurik. Lanokin aparkaleku gehiago egokituko ditugu, ondo markatuta", azaldu digu Elortza alkateak.

Horrek aurretiazko lana suposatu du, izan ere, bertako lurrak partikularrenak ziren eta lagapena lortu behar izan dute. Horrek, 9-10 hilabetetako kudeaketa lana ekarri die. Bestalde, erreka kontran oinezkoendako espaloia ere egingo dute eta ibilbidean hiru atseden-gune egongo dira zuhaitz eta eserlekuekin.

UEUrako eta euskara ikasteko dirulaguntzak

E.M. | BERGARA

Bergarako Udalak Udako Euskal Unibertsitatera (UEU) joateko dirulaguntzak eskaintzen ditu. Bestetik, Udal Euskaltegitik kanpo euskaraz ikasten dutenendako dirulaguntzak ere ematen dira. Hain zuzen ere, azken hauek barnetegietan edota bestelako euskaltegiren baten ikasten dutenei zuzendutako dirulaguntzak dira. Nortasun agiriaren kopia, matrikularen ordainagiria eta euskaltegiaren ziurtagiria aurkeztea beharrezkoa da. Era berean, laguntza jasotzeko gutxienezko asistentzia ziurtatu behar da: %90ekoa barru-ikastaroenkasuan eta %85ekoa gainontzekoetan.

2010-2011 ikasturtean edota 2011ko udan egindako ikastaroengatiko diru-laguntza eskaerak hurrengo irailaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira Bergarako Udaleko erregistro orokorrean.

Euskara zerbitzuan

Informazio gehiago ondoko Interneteko helbidean daukate interesatuak: *www.bergara.net/Udala/Antolaketa/euskara/zerbitzuak*.

Era berean, Udaleko Euskara Zerbitzuan ere argibideak ematen dituzte. Aste barruan Udaleko ohiko ordutegian udaletxeko lehen solairuan edota 943 77 91 66 telefono zenbakira deituta.

Mendi ibilaldia San Joxepe elkartearekin, uztailaren 20an

San Joxepe erretiratuen elkarteak mendi ibilaldia iragarri du uztailaren 20rako. Hain zuzen ere, Igeldotik Orioraino tartea oinez egingo dute eta ondorengo bazkaria Orioko Aisia Balea hotelean izango da. Hondartza ondoan dago aipatutako hotela.

Bergaratik autobusa 09:00etan aterako da eta Igeldoraino autobusez joan ondoren, han ekingo diote ibilbideari. Izenematea zabalik dado dagoeneko eta interesatuek Boni Laskuraineko egoitzan eman dezakete izena, ohiko ordutegian. Edozein argibidetarako 943 76 21 40 telefonora jo dezakezue.

Kontsumo taldean parte hartzeko deia egin dute

Bergarako Kontsumo Taldearen bultzatzaileek jakitera eman dutenez, oraindik aukera dago bertan parte hartzeko. Elikadura ohiturak berreskuratuz modu osasuntsuan jateaz gain, bitartekariak saihestu eta nekazaritza babestu nahi dute.

Inguruko baserritarrek ekoiztutako produktuekin otarrak jasoko dituzte Kontsumo Taldeko kideek. Parte hartzeko interesa dutenek azoka atzealdera jo dezakete bihar, martitzena, 19:00etan. Era berean, gaiaren inguruko argibideak jaso nahi dituena ondoko telefono zenbakira dei dezake: 628 51 22 78 (Gorka Martinez).

GOIENA

Barrabaskeriak igerilekuan

Agorrosinen ezezagun batzuek eragindako kalteak salatu ditu Kirol Zerbitzuak: "Zenbait herritar, gauez, Agorrosingo jolas igerilekuan sartu eta hainbat barrabaskeria egin dituzte. Horien artean, igeri egiteko ontzian bertan kaka egin eta kristalezko botilak utzi". Kaltetuenak herritarrak direla eta horrelakorik ez errepikatzeko beharrezko neurriak hartuko dituztela azpimarratu dute Udaletik.

JULIO CALLEJA

Udal Pilotalekua beltzez margotu dute

Batek baino gehiagok sorpresa galanta hartu du Udal Pilotalekua beltzez margotuta ikustean. Pilotalekua berriro margotu behar zela eta, Udaleko teknikariek Bergara KEko pilota saileko arduradunei galdetu zieten berdea ala beltza nahiago zuten, eta pilota sailekoek beltzaren alde egin zuten. Gipuzkoako lehen frontoi *beltza* da Bergarakoa, Bilboko Bizkaia frontoi berria izan baita lehenbizikoa; koloreagatik kritika onak besterik ez ditu jaso, gainera. Nahiko eztabaida izan da egunotan herriko pilotazaleen artean frontoiaren itxura berria dela-eta. Denetariko iritziak daude.

Ramon Etxaniz | Udal Txistulari Bandako kidea

"Gaur egun ere txistua jotea da ariketarik onena niretako"

▶ Udalaren eskerrona jaso zuen Sanmartzialetan

EDU MENDIBIL | BERGARA

Bergarako auzo eta txoko guztiak alaitu ditu txistuaren soinuarekin. Mende erdia baino gehiago darama Udal Txistulari Bandan eta San Martzialgo erromerian merezitako omenaldia jaso zuen Udalarengandik, urtetan egindako lanagatik. Abuztuaren 31n 83 urte beteko ditu Ramon Etxanizek, eta osasunak laguntzen dion bitartean txistua joten jarraituko duela diosku.

Hori da marka hori zurea...

Bai, soldadutzatik etorritakoan hasi nintzen Udal Txistulari Bandan. Gaztetan futbola eta musika ziren nire zaletasun handienak. Bergarako futbol taldean 30 urte bete arte-edo jokatu nuen. *Volante* postuan aritzen nintzen. Futbola laga baino, ondorengoek hartuko zidaten lekua... Udal Txistulari Bandan, besteak beste, Boni Laskurainekin eta Joseba Labordarekin ibilita nago. Joseba hil zenean, 68an, ni izendatu ninduten zuzendari. Eta gaur egun Josebaren biloba, Ander Laborda, dabil gurekin...

Zenbat lagun zarete gaur Bandan?

Sei. Amaia Lazkano, Ander eta neu txistulari; Aitzol Ostogain eta Martin Garmendia dira silboteak eta atabalarekin Ekaitz Otxoa dihardu iazko San Martzialetatik. Lauzpabost lagun ere ibili gara sasoi batzutan, baina aspaldian sei gara. Baina denok ez gara joaten beti, lau lagun jeneralean.

Zelan hasi zinen txistua joten?

Julian Etxaniz lehengusuak silbotea joten zuen eta Julianek anaia txistuarekin laguntzea nahi zuen. Egur koloreko txistua genuen etxean, ni animatu nintzen nonbait eta gaur arte.... Hasi berri izan nuen txistu hura galdu egin nuen. Orain erabiltzen dudana eta beste bi dauzkat, aspaldian jo ez ditudanak.

Txistulariondako ez dago erretirorik...

Osasunak laguntzen didan bitartean... Batzuk paseoan, igeriketan edo korrika ibiltzen dira. Niretako txistua da ariketarik onena, joten dudan bitartean arnasketa lantzen dudalako.

Ilusioa egingo zizun San Martzialetan jasotako omenaldiak.

Hitz barik geratu nintzen. Zerbait esan nahi eta ezin... Etxekoek ere ez zekiten ezer, sorpresa izan zen guztiondako, eta pena dut ez zirelako igo San Martzialera.



Ramon Etxaniz aurreko domekan, San Martzialgo erromerian. | JON BEREZIBAR

"Hitz barik geratu nintzen San Martzialgo omenaldian"

Etxean izan duzu erreleborik?

Semea eta alaba nirekin jotakoak dira biak, baina lagata daukate.

Pieza kuttunen bat?

Anai biak, Jeronimo aitak kanturako egina eta Miguel Gonzalez Bastidak armonizatutakoa.

Bergarako jairik bereziena?

Sanmartzialak, jai alaia delako eta ohiturei eusten diegulako. Jende asko joan da aurten baita eta horrek ematen dio indarra. Santa Marina eguna dator orain, Basalgoko jaiak... Asko daude.

Zazpi hilabeteko ibilbidearen ostean itxi egin dute Batzokia

Ez dira aurreikuspenak bete eta ixtea erabaki dute; azaroan zabaldu zuten, erabat berrituta

E.M. | BERGARA

Ibilbide laburra izan du Batzokiko azken etapak. Hainbat urtetako geldialdiaren ondoren, Jose Luis Lizartzaburu mutrikuarrak eta haren lan taldeak etapa berriari ekin zion joan den azaroan baina aurreikuspenak ez dira bete eta joan den astean itxi zuten.

Goitik behera berritu zuten taberna eta jatetxea eta hara joandako bezeroak oso gustura ziren arren, uste baino erantzun eskasagoa jaso du eta itxi beharrean aurkitu dira.

Ostalaritzan esperientzia

Bai Batzokia enpresari utzi zion Bergarako EAJk herriko batzokiko taberna eta jatetxea kudeatzeko ardura. Bai Batzokia enpresan batzen dira Bizkaia eta Gipuzkoako hainbat batzoki, frankizia moduan; besteak beste, Zarautz, Beasain, Azkoitia, Eibar edo Durangokoa hain zuzen.

Bergarako batzokiko arduradun berriak ostalaritzan eskarmentu handikoak dira. Izan ere, Jose Luis Lizartzaburu Mutrikuko plazan dagoen Ametza tabernakoa da eta han dihardu lanean.

"Itxita berriz jakinarazi arte" dio kartelak. | E.M.

Bergarako batzokiaren azken etapa honetan bi jangela egokitu zituzten, 20-25 bat lagunendako eta bestea 70 bat lagunendako. San Pedro kalean egindako trafiko aldaketek eta Komenio kaleko Pol-Pol tabernaren itxierak ez zion mesederik egingo Batzokiari. Gaur egun lehen baino jende gutxiago ibiltzen da inguru horretan. EAJko arduradunek ez dakite oraindik zer gertatuko den lokalarekin; berriro atera beharko dute lehiaketara.

OHARRAK

GAMARRARA IRTEERA

Xabalote gaztelekuak antolatuta, uztailaren 21ean Gamarrara irteera izango da. 12 urtetik 17 urtera arteko gaztetxoei zuzendutako jarduera da eta izenematea (5 euro) uztailaren 18ra arte egin daiteke Xabaloten bertan edo kultura etxean. Autobusa 10:30ean aterako da eta itzulera 19:00etan egitea aurreikusi dute. Argibide gehiago 943 77 91 58 zenbakian.

ERAKUSKETA AROZTEGIN

Emilia Nogalesen margo erakusketa ikus daiteke Aroztegin uztailaren 17ra arte, ohiko ordutegian.

LUDOTEKEN KUDEAKETA

Agorrosingo ludoteka kudeatzeko eta Angiozarko ludoteka eta beste zerbitzuak kudeatzeko kontrataziorako deialdia ireki du Udalak. Izena emateko epea gaur, astelehena, bukatzen da. Argibideak *www.bergara.net* webgunean edo 943 77 91 00 telefonoan.

Udalbatzako kideak, Mikel Biain buru dutela, idazkariaren hitzak entzuten. | MIREIA BIKUÑA

12 batzordetan antolatuta, tartean Berdintasunarena

Uztaileko osokoan Udalak izango dituen batzorde informatiboak eta hango buruak zehaztu zituzten

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Oñatiko Udalak 12 batzorde informatzaile izango ditu hurrengo lau urteetan –orain arte 11 izan ditu–. Batzorde batzuei izena aldatu diete, eta, hauteskunde kanpainan aurreratu moduan, bi batzorde berri sortu dituzte: Berdintasun batzordea eta Partaidetza, Barne Antolamendua eta Komunikazioa batzordea. Bestalde, orain arte batzorde propioa zuen Turismo Saila Sozioekonomia batzordera pasako da. Horren barruan egongo da baita ere Nekazaritza arloa. Azkenik, Haurrak arloa Hezkuntza batzordean txertatu dute.

Udalaren eraketaren berri eman zuen Mikel Biain alkateak, aurreko eguenean egindako osokoan. Bilduko eta EAJko zinegotziek aho batez onartu zuten proposamena.

Bilduk dituen 11 zinegotzietatik zortzi izango dira batzorde buru (ikus ondoko taula). Oier Irizarrek, Beatriz Gerekak eta Konrado Kernstockek ez dute batzorde ardurarik edukiko.

Hileko azken eguenean

Astean edo hamabostean behin batuko diren batzorde informatzaileen gainetik Gobernu Batzordea egongo da. Astero bilduko da eta Bilduko ordezkariek osatuko dute: Mikel Biainek, Josu Lizarraldek, Leire Egañak, Maialen Urtzelaik eta Manu Egañak. Gobernu Batzordearen gainetik Osoko Bilkura egongo da. Hilean behin –hileko azken eguenean– bilduko da eta udaletxean ordezkaritza duten alderdietako zinegotzi guztiek parte hartuko dute. Agintaldi berriko ohiko lehen osoko bilkura hilaren 21ean egingo dute, 19:30ean.

Alkatearen soldata

Hilaren 7ko osokoan, bestalde, alkateak eta zinegotziek kobratuko dutena zehaztu zuten. Talde politikoendako laguntza izango da: zati finkoa 48,30 euro hilero; eta zati aldakorra –partaide kopuruaren arabera– 153 euro hilero.

Bestalde, onartu egin zuten Mikel Biain alkatearen soldata egun bere lantokian kobratzen duen bera izatea: ia 50.000 euro urtero. Gaineratu zuten Josu Lizarralde zinegotziak irailaren 1etik aurrera %100ean udal lanetan jardungo duela.

Transferentzien txostena

Osoko bilkura bukatu aurretik Lourdes Idoiagak martxan dauden gai eta proiektuen berri jasotzen duen txostena eman zion Mikel Biaini. Besteak beste, bidegorri sarearen, Larrañako kirol gune berriaren, bertakotze programaren eta Oñatiko Turismo Plan Estrategikoaren nondik norakoak zehazten dira txostenean.

Mikel Biainek "asko eskertu" zuen EAJrengandik jasotako laguntza. "Eskerrik asko erakutsitako jarreragatik, eta eskerrik asko udal langileei egin diguten harreragatik", esan zuen.

Batzorde informatzaileak

Partaidetza, Komunikazioa, eta Barne Antolamendua



Josu Lizarralde

Kultura



Manu Egaña

Ogasuna

Mikel Biain

Kirolak



Ainhoa Martin

Gazteria



Xabier Pico

Ingurumena



Leire Egaña

Sozioekonomia

Josu Lizarralde

Berdintasuna



Maialen Urtzelai

Ongizate Zerbitzuak



Mikel Biain

Euskara eta Hezkuntza



Nerea Zubia

Auzoak eta Landa Garapena

Mikel Biain

Hirigintza eta Zerbitzuak



Josu Lizarralde

Elkar Heziko bi ikaslek aparteko saria jaso dute

Mikel Eskalerok eta Jon de la Vargak Batxilergoko sari berezia jaso dute: 935 euro eta bidaia



Mikel Eskalero eta Jon de la Varga. | ELKAR HEZI

M.B. | OÑATI

Elkar Hezi ikastetxeko Mikel Eskalerok eta Jon de la Vargak Batxilergoko sari berezia jaso dute. Batxilergoko lehenengo eta bigarren mailetan, batez beste, 8,75eko nota lortu duten hainbat ikaslek egin dute proba. Oñatiarrek 935 euro eta hizkuntzak sakontzeko bidaia bat jaso zuten.

Bi bloketan banatutako lau azterketa egin zituzten. Lehenengoan, euskara eta gaztelania izan zituzten aukeran, eta ingelesa derrigorrez; bigarren blokean, norberaren modalitatean aurrez aukeratutako bi ikasgairen gaineko proba egin zuten.

Irailetik aurrera

Jon de la Vargak Arkitektura ikasketak hasiko ditu Donostian eta Mikel Eskalerok Ingeniaritza Mekanikoa edo Industria Diseinu Ingeniaritza.

'Marea laranja' eguenean irtengo da Tourrera, 14:30ean

Irizar, Garmendia eta Odriozola lagunarteek deituta autobuskada bete lagun irtengo da Oñatitik eguenean Frantziara bidean. 14:30ean abiatuko dira Olakuatik Lourdes aldera. Euren asmoa da egubakoitzeko (hilak 15) eta zapatuko (hilak 16) etapak ikustea.

Hilaren 15ekoa 13. etapa izango da eta 152,5 kilometro ditu. Pauen hasi eta Lourdesen bukatuko da, eta tartean Aubisque eta Soulor igo beharko dituzte ziklistek. Etapa bukatuta, Oñatiko zaleak lekuz aldatuko dira. Hilaren 16ko etapak, aldiz, 168,5 kilometro ditu, eta Saint Gaudens-en hasi eta Plateau de Beille-n bukatuko da.

Udako kirol kanpainako bigarren txanda, gaur hasita

Udako kirol kanpainako bigarren txanda gaur hasi dute. Hilaren 22ra arte 380 umek eta gaztek askotariko ekintzetan parte hartu dute. Eurekin batera, txanda bakarreko kiroletan diharduten 275 neska-mutikoak ibiliko dira. Guztira, 655 ume.

Bigarren txandan –lehenengoaren antzera–, patinajea (113), mini tenisa (89), tenisa (71) eta eskalada (46) izan dira erantzun onena izan dutenak. Kiroldegitik esan digute talde batzuk osatzeko lekua dutela oraindik.

Bestalde, gogorarazi gura dute abuztuan bi txanda egingo dituztela, eta taldeak osatu barik daudela.

ESKORIATZA

Udaero egitasmoari esker, gazteak ere, udalekuetan legez

M. A. | ESKORIATZA/ARETXABALETA

Gazteria Zerbitzuak antolatuta Txatxilipurdirekin batera, hiru irteera izan dituzte Eskoriatza eta Aretxabaletako 12 eta 16 urte arteko gaztetxoek uztaila hasi denetik. Bosgarren urtez antolatu dute Udaero egitasmoa eta giro ezin hobean doala aurrera jakinarazi dute.

Lekunberriko Beigorri parkean izan ziren 24 gaztetxo joan den astelehenean; orduan Arrasatekoekin batera. Zuhaitzik zuhaitz ibili ziren lehenengo eta gero Betelu errekan ibili ziren, ur-jauzi eta txirristetan jolastu bitartean.

Eguaztenean, Urkulu aldera egin zuten orienting teknikak ikasi eta jolastera; eta eguenean, Andramari auzoan (Aramaio) pasa zuten eguna. Txerrikiekin parrillada ederra egin zuten eta bazkalostean, Albiñara joan ziren bainua hartzera.

Gamarrara eta Atxorrotzera

Astean ere badituzte hainbat irteera; gaur, esaterako, Gamarrako igerilekuetara joango dira. Eta datorren eguenean, uztailak 14, Atxorrotz aldera joatekotan dira bazkalostean. Antolatzaileen asmoa da bertan gaua pasatzea izarrei begira.

Andramari auzoan egondako neska-mutil koadrila. | TXATXILIPURDI

ARETXABALETA

Kanpai-jotzaileen topaketa antolatzen dabiltza urrirako

Lleidako Borges Blanques eskualdean izan dira Areantzako kanpai-jotzaileak

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Atxabaltan kanpaiek die izenarekin kanpai-jotzaileen topaketa antolatzen hasita daude gurean. Urrian ospatzeko asmoa dute, eta hainbat ekitaldi izango direla aurreratu dute, besteak beste, hitzaldiak, argazki erakusketa, eta ikus-entzunezko emanaldiak.



Gorka Madinabeitia eta Julen Abasolo, Lleidan. | AREANTZAKO KANPAI-JOTZAILE ESKOLA

Esperientziak ezagutzeko

Dagoeneko antolatzen dabiltzan ekimen horren barruan, herrialde ezberdinetan kanpai doinuen transmisioarekin arduratu direnen topaketa egingo dute urriaren 8an, zapatua. Areantzako kanpai-jotzaile eskolako kide den Julen Abasolok azaldu ditu topaketa horren nondik norakoak: "Egun osoko topaketa izango da eta hamaika esperientzia ezagutzeko aukera izango dugu. Goizean, Herriko Plaza inguruan elkartuko gara, eta arratsaldean, Urkulu inguruko auzoetan".

Eta herritarrei ere topaketa horrekin gozatzeko aukera eskaini gura diete: "Aurrez esango dugun leku zehatz batetik ikusi eta entzun ahal izango den kanpai joaldi koordinatua gertatzen gabiltza; besteak beste, Aretxabaletako txalapartarien eta Arrasateko irrati zaleen (AIKE-ACRA) laguntzarekin".

Lleidan gonbidatu bereziak

Areantzako kanpai-jotzaile eskola orain dela lau bat urte sortu zuten Areantza auzoko hainbat lagunek. Lanean jardun dute ordutik hona: doinuak ikasi, ikus-entzunezkoa grabatu... Eta hara eta hona ere ibili dira, batzuetan erakusten –kanpaiak jotzen ikasteko erabiltzen duten modu berritzailea, DVD bidez– eta hurrengoan ikasten.

Hala, egin duten azken irteera Lleida aldera izan da, Borges Blanques eskualdera hain zuzen, uztaileko lehen aste bukaeran: "Bertako kanpai-jotzaileen *trobada* bat ospatzen zuten eta gonbidatu bereziak izan ginen gu", azaldu du Abasolok.

80 urtetik gorakoen meriendarako izenematea zabalik

Urtero legez, 80 urtetik gorako eskoriatzarrek merienda izango dute uztailaren 21ean, eguena. Interesatuek astean eman behar dute izena: bihar, hilak 12, eta eguenean, hilak 14. Erretiratuen elkarteko egoitzatik pasatu behar da (11:00-12:30). Olazar erretiratuen elkarteko zuzendaritzako kideek jakinarazi dute izena eman ahal izateko urteko kuota ordainduta izatea ezinbestekoa dela.

Azken urteotan egin duten legez Elizoste elkartean izango da otordua hilaren 21ean (19:00).

Euskara ikasteagatik diru-laguntzak eskatzeko epea zabalik

Egubakoitzean, hilak 15, bukatuko da 2010-2011 ikasturtean euskara ikasten ibili diren eskoriatzarrek diru laguntzak eskatzeko duten epea.

Bukatu berri den ikasturtean Leintz Udal euskaltegitik kanpo euskara ikastaroren bat egin duten eskoriatzarrek, matrikula ordaintzeko diru laguntza eskatu ahal izango dute. Horretarako honako baldintzak betetzea ezinbestekoa da: ikastaroko asistentzia %90ekoa izatea; matrikularen ordainketa agiria aurkeztea; eta Eskoriatzan erroldatuta egotea.

OHARRAK

'EL DISCURSO DEL REY' ETA 'FAST & FURIOUS 5' ASTEAN

Gaur, *El discurso del rey* filma izango da Arkupen (16:30) eta eguaztenean eta egubakoitzean (21:30) *Fast & Furious 5*. Sarrera, 2 euro.

'ARETXABALETA ATZO ETA GAUR' IKUS-ENTZUNEZKOA

Eguaztenean, hilak 13, Aretxabaletaren gaineko ikus-entzunezkoa eskainiko dute Arkupen (11:30 eta 19:00); debalde da.

ARTE GARAIKIDEAREN GAINEKO IKASTAROA

Arte garaikidearen gainean jardungo dute aditu baten laguntzarekin gaur, eguaztenean eta egubakoitzean (11:00-13:00), Arkupen.

'JIRA BIRAN' ANTZEZLANA TRAPU ZAHARRAREKIN

Trapu Zaharra antzerki taldea izango da eguenean, hilak 14, Herriko Plazan (19:00) *Jira Biran* lana eskaintzeko.

ARETXABALETA

San Ferminak ospatzeko bigantxak

Udalekuetako neska-mutikoek ere ospatu dituzte San Fermin jaiak. Egubakoitzean egin zuten ospakizuna, eta Gorriti eta haren animaliak izan zituzten lagun: pottokak eta bigantxa txikiak. Inolako beldur barik hurbildu ziren neska-mutikoak bigantxengana eta giro ezin hobea sortu zuten Kurtzebarri eskolako jolastokian.

M.A.

Gasteizera eta Donostiara doazen autobusak berriro Azbeko geltokian

M.A. | ARETXABALETA

Uztailaren 1az gero ibilbide berria dute autobusek Aretxabaletan, baita geltoki berriak ere: Txarapea –nagusia– eta Lausitta. Gaurtik aurrera, baina, Gasteizera joan-etorriak egiten dituzten autobusek eta Donostiara doazenek berriro Azbe lantegi parean izango dute geltokia.

Ekainean alkate ardura hartu zuen Ana Bolinagak erabaki du geltoki nagusia berriro Azbera eramatea, Pesako ordezkariekin adostu ondoren. Izan ere, kexa asko jaso dituzte udaletxean azken asteotan–tartean sinadura batzea izan da–, autobus geltoki berrien eta ibilbidearen aurka. Batez ere, Loramendi eta Lausitta kaleetako bizilagunen kexak izan dira.

Beste aldaketa batzuk laster

Debagoienean joan-etorriak egiten dituzten autobusek, ostera, ibilbide berritik jarraituko dute eta hiru geltoki izango dituzte: Araba ibilbidea, Txarapea eta Lausitta. Hala ere, alkateak jakinarazi die herritarrei, horrek ere aldaketak izan ditzakeela laster. Haren asmoa da oraingo ibilbidea ondo aztertzea eta beste aukera batzuk proposatzea.

Udal ordezkariak ekainean egindako inbestidura ekitaldian. | L.Z.

ELGETA

Batzordeak banatzea adostu dute osokoan ordezkaritza dute hiru alderdiek

Gaur, astelehena, 20:00etan egingo dute Elgetan Udalaren jarduna antolatzeko plenoa; besteak beste batzordeburuak izendatuko dituzte

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Ekainaren 11ko Inbestidura ekitaldia egin osteko lehenengo plenoa gaur, uztailak 11, egingo du udalbatza berriak. Agintaldiko jardunaren antolamendua zehazteko plenoa izango da, izan ere, udal funtzionamenduak behar duen antolaketarekin zerikusia duten hainbat erabaki hartuko dituzte gaurko saioan. Besteak beste, batzorde informatzaile iraunkorren kopurua eta horien arduradun politikoak.

Bi batzorde gutxiago

Lanak eta kostuak arindu aldera bi batzorde gutxiagorekin funtzionatuko du Udalak agintaldi berri honetan. Batzordeak desagerrarazi baino zereginak batu egin dituztela jakin dugu. Hala, bederatzi batzorde informatzaile izatetik zazpi izatera pasako da Udala. Horrek bilera gutxiago suposatuko dizkie zinegotziei zein udal langileei.

Lanen banaketa adostua

Ez-ohiko formula baten aldeko apustua egin dute Elgetako udaletxean; izan ere ez da gobernu akordiorik izenpetu, baina udalbatzan ordezkaritza duten hiru alderdiek ardura politikoak hartzea adostu dute. Aralar-Independenteak taldeak lau batzorde hartuko ditu, Bilduk bi eta EAJ -k bat. Plenoan bertan jakingo dugu alderdi bakoitzak zer ardura eta zein arduradun izango dituen.

Erabaki garrantzitsuak

Agintaldiko jardunaren antolamendua zehazteko plenoa egiten Debagoieneko azken udaletako bat izango da Elgetakoa; Elgetarekin batera Aretxabaletako Udala besterik ez baita gelditzen tramite hori egiteko.

Gaurko saioan hainbat erabaki garrantzitsu hartuko dituzte, hala nola, udaletxeko talde politikoen antolaketa; batzorde informatzaile iraunkorren kopurua, osaketa eta arduradun politikoen izendapena; alkateordeen izendapena; batzorde informatzaileak zein plenoak batzartzeko egunak; alkatearen, zinegotzien eta talde politikoen konpentsazio ekonomikoak; eta Udala kide den bestelako erakundeetako arduradunak. Erakunde horien artean aurkitzen dira, esaterako, Debagoieneko Mankomunitatea, Suradesa, Deba Garaia Udal elkartea, Deba Garaia Kirol elkartea, Ur Kontsortzioa, Mizpirualde egoitza edo Bideberri Mankomunitatea.

LEINTZ GATZAGA

Andramari jaiak gertatzen dabil Udala eta egitaraua zehaztuta dute

Irailaren 7tik 11ra ospatuko dituzte, eta, ekitaldi ikusgarririk ez egon arren, jai dotoreak izango dira

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Udalbatza berriko kideak, arduRak hartu orduko, hasi dira Andramari jaiak gertatzen. Irailaren 7tik 11ra ospatuko dituzte, eta, xehetasun batzuk baieztatzeko egon arren, ekitaldi gehienak zehaztuta dauzkate. Hala, herritarrek laster izango dute egitaraua esku artean.

Aurten bost eguneko jaiak ospatuko dituzte –sekula baino egun gehiago– eta ekitaldiak banatu beharrean izan dira: "Herri txikietan arazoa dirua izaten da. Horregatik, ekitaldi ikusgarririk ez da egongo, baina bai herritarren jai gogoa piztu eta suspertzeko kontuak", dio Iñaki Agirreurretak, Kultura zinegotziak. Hori horrela, urteroko hainbat ekitaldi iragarri ditu: kontzertuak, herri afaria, pilota partiduak...

Egitarauaren berri ematekotan

Jaiak antolatzeko herri batzordea osatu izan dute Gatzagan, baina aurten ez da egon horretarako aukerarik, udalbatza aldaketa dela eta. Hala ere, ideia eta proposamen asko jaso dituztela herritarrengatik jakinarazi du Agirreurretak, eta aurreko udalbatzako kideek jaietako kontu asko lotuta utzi dizkietela.

Udalaren asmoa da datozen egunotan batzarra egitea herritarrekin, egitarauaren berri emateko bertatik bertara.

ARAMAIO

Gaztetxo gutxi elkartu arren, ederto ibili ziren saskibaloian jokatzen

Zapatu honetan frontenis txapelketa eta bertso merienda izango dute, ekimenarekin amaitzeko

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aramaion egiten diren udalekuetako begiralea da Xabier Igoa. Bada, udalekuez gain, gaztetxoendako uztaileko asteburuetan ekintza bereziak antolatzea bururatu zitzaion ekainean; kirola eta bertsolaritza uztartzea ekimen berean, hain zuzen: "Ekimenaren helburua umeek ondo pasatzea da, uda eta oporrak horretarako dira -eta", adierazi du.

Hala, Udalera laguntza eta baimen eske jo zuen eta udaletxean baiezko borobila jaso zuen. Izan ere, badakite udalekuetako begiralea dela.

Zapatuan izan zen lehen ekintza; 8 eta 13 urte bitarteko gaztetxoendako 3x3 saskibaloi txapelketa herrikoia antolatu zuen Igoak. Gaztetxo gutxi hurbildu zirela adierazi digu eta txapelketa baterako jende gutxi egon arren, saskibaloian jokatzen ederto ibili zirela gaineratu du. Saskibaloi txapelketaz gain, beste bi ekintza antolatu ditu Igoak, eta zapatuan egingo dira.

Bertsolari gaztetxoei aukera

8 eta 13 urte artekoendako frontenis txapelketa eta edonork parte har dezakeen bertso merienda egingo dira zapatuan. Azken horren ideia da herriko bertso eskolako gazteei ematea abesteko aukera, jendaurrean abesteko ohitura hartzen joan daitezen.

Saskibaloia protagonista zapatuan; jende gutxi baina giro ona | XABIER IGOAI

ANTZUOLA

USOA AGIRRE

Joxepa Aiastuik lore politenak

Joxepa Aiastuik irabazi du Udalak aurten antolatu duen balkoi eta leihoetako XV. lore apainketa lehiaketa. Ibarrondo kaleko laugarren atartean bizi da Aiastui eta harena da herriko balkoirik politena, epaimahaiaren ustez. 100 euroko saria jasoko du irabazleak jaietako egubakoitzean; gastronomia lehiaketako sari-banaketaren ostean emango diote saria.

TELEBISTA

Telebistaren irabazlea uztailaren 18an jakinaraziko dugu.

16"-ko LCD telebista

EROSKI

- TDT integratua.
- PCrako konexioa.
- HDMI.
- USB 2.0.

EUSKALTELEKO KAMISETEN IRABAZLEAK

Aitor Belastegi Aranzabal
(Antzuola)
Marijo Erostarbe Garitano
(Oñati)
Floren Arana Barandiaran
(Arrasate)
Jose Ramon Lasaga Arana
(Oñati)
Jon Ezpeleta Calvo
(Arrasate)

euskaltel

zozketan parte hartzeko

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: *kluba@goiena.com*
SMS bidez.
Bidali KLUBA TB [Bazkidearen zenbakia] 215800 zkra.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *kluba@goiena.com*

2011n atera etekina txartelari

AQUARIUM
Donostia, 943 44 00 99
- Bi erosi eta bat ordaindu
(sarrera garestiena ordainduko da)

AVIA MECA GASOLINDEGIA
Arrasate, 943 79 13 39
- %2 gasolindegian erregaia erosita.
- %2 dendako produktuetan

AZKOAGA ENEA HOTELA-JATETXEA
Eskoriatza, 943 71 45 66
- %8 deskontua asteburuko egonaldietan.
Ohe bikoitz eta egongeladuna hartuz gero, botila bat txakolin opari (Mendraka).
- %10 deskontua jatetxeko kartan.

BARCELÓ BIDAIAK
Arrasate, 943 79 70 11/ Bergara, 943 76 08 43
- 1.000 eurotik gorako erosketekin "B Plana" OPARI
(kontratatukoaren arabera: asteburuko egonaldiak, irteera gastronomikoak, ongizate txartelak...)

BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta, 943 79 98 21
- -%15 produktu guztietan. Kontsulta doan.

GAHIR FISIOTERAPIA-OSTEOPATIA
Eskoriatza, 943 71 43 41
- %50 deskontua lehenengo kontsultan.

ESKO SPORT KIROL DENDA
Eskoriatza, 943 71 52 96
- -%10 produktu eta zerbitzu guztietan

GAES ENTZUMEN ZENTROA
Arrasate, 943 71 27 93 / Bergara, 943 76 94 55
- %10 deskontua(ez metagarria beste eskaintza batzuekin)

CLÍNICA DENTAL BERGARA
Bergara, 943 76 05 77
- -%10 zerbitzu guztietan
- -%15 inplanteetan
- Aho-garbiketa doan,
- 120 eurotik gorako tratamenduetan
Bazkidearentzat eta familiako batentzat

IKER SUKALDEAK
Arrasate, 943 79 00 43 / Oñati, 943 53 35 48
- Sukalde osoa erosita,mikrouhin-labea opari.

LILURA EDERTZE INSTITUTUA
Bergara, 943 76 31 71
- -%15 laser depilazioan: hanka osoa + izterrondoa (besapekoak opari).
- -%20 elikagai-intolerantzia proban.
- -%10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
- -%10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.
Bazkidearentzat eta lagunarentzat

MULTIOPTICAS
Arrasate, 943 79 29 95 / Bergara, 943 76 15 75
- %15 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)

NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA
Aretxabaleta, 943 08 21 89
- -%15 zerbitzu guztietan.

RENAULT AUTOBERRI
Arrasate, 943 71 24 72
- -%5 konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- -%25 saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa, 20 euro.
Erosketaren momentuan goian aipatutako deskontua baino handiagoa badugu, bazkidearri deskontu handiena eskainiko diogu.

TXIKI ZOO Aretxabaleta, 943 79 51 15
- Sei ile apaindegi zerbitzuengatik, zazpigarrena doan.
- %50erainoko deskontuak txakur-txamarratan (izakinak agortu arte)

TXURI URDIN IZOTZ JAUREGIA
Donostia, 943 46 44 00
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan
(ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia)
- -%20 zapatu eta domeketan
(ez bada zubia edo oporraldia)
- -%10 zubi eta oporraldietan.

ZIENTZIEN KUTXAGUNEA
Donostia, 943 01 24 78
- %10 deskontua.

TXIRRINDULARITZA

Aitor Gonzalezek eraman zuen Antzuolako saria

- Debabarrenako txirrindulari ermuarrak Asentzion jo zuen erasoa, helmugatik 20 kilometrora
- 82 txirrindularik ekin zioten lasterketari eta 40 baino ez ziren iritsi Antzuolako helmugara

Aitor Gonzalez garaipena ospatzen eta atzerago Jesus Herrero. Gonzalezek 15 segundoko

EDU MENDIBIL | ANTZUOLA

Hondartzarako baino, kirola egiteko giro aproposagoa egiten zuen domekan. Lasterketa hasi baino lehen lanbroa bazen ere, txirrindulariek irteera egin zutenerako atertu egin zuen. Eta gogoz hasi ziren txirrindulariak. Lehen erasoak berehala hasi ziren eta horrekin batera lehenbiziko karrera uzteak. 82 txirrindularik ekin zioten Antzuolako 66. sariari (Iñaki Lete Memoriala) eta horietatik 40 baino ez ziren iritsi helmugara. Gogoz diogu, antolatzaileek aurreikusitako baino abiadura biziagoan ibili zirelako txirrindulari gazteak. Aitor Gonzalez irabazleak, batez beste, 45,950 kilometroko orduko abiadura markatu zuen eta gauzak horrela, helmugan besoak altxatu zituenean, ikusle bat baino gehiago bermuta hartzen zegoen. Antolaketak egindako kalkuluek huts egin zuten, ia ordu erdi aurreratu baitzen irabazlea atzo.

Esan behar da azken urteotako ibilbidearekin bazela nobedaderik aurten. Azken kilometroetan, Kanpazar igo ondoren, Elgetara jo beharrean, Asentziotik Epelerako bidea hartu zuten. Hain zuzen, bost bat kilometro luzeagoa zen lasterketa azken ekitaldiekiko.

Jon Rivero bergararra (Debabarrena) taldetxo batekin helmugaratzen. | J. CALLEJA

Asentzio, erabakigarria

Eta Asentzioko igoeran erabaki zen karrera. Debabarrena taldeko txirrindulariek Aitor Gonzalezen aldeko lan aipagarria egin zuten goiz osoan zehar eta apustua primeran atera zitzaien. Gonzalezek tropela atzean utzi zuen 20 kilometroren faltan eta Antzuolaraino aldeari eutsi ahal izan zion. Bere lehenbiziko garaipenaz lasai asko gozatu ahal izan zuen Gonzalezek: 15 segundo atera zizkion bigarren sailkatu zen Jesus Herrero Camargo taldeko txirrindulariari. Antzuolako kaleetan Gonzalez harrapatzen saiatu zen Herrero, baina ezinezkoa izan zen. Herreroren atzetik zortzi lagunez osatutako taldetxoa iritsi zen eta handik aurrera gainerako txirrindulariak, taldetxo txikietan banatuta. Laugarren sailkatu zen Iñigo Ojedak eraman zuen mendiko saria.

Beste hiru proba ibarrean

Antzuolako probaren ostean, Caja Rural taldeko Nick Van Geffen gazteak jarraitzen du Lehendakari Txapelketako lidergoan. Esan bezala, bosgarren proba zen Antzuolakoa eta oraindik beste 21 falta dira txapelketa amaitzeko. Aurten 23 urtetik azpiko txirrindulariak ari dira Lehendakari Txapelketan. Hurrengo aste bukaeran beste bi proba jokatuko dira, zapatuan Sopelan eta domekan Beasainen.

Debagoienari dagokionez, abuztuaren 16an izango da Aretxabaletako proba, Euskaldun Trofeoaren barruan, 23 urtetik azpikoendako eta elite mailakoendako. Eta irailean iritsiko dira Lehendakariko azken hitzorduak, 17an Oñatin eta 18an Bergaran hain zuzen ere. Bien bitartean, makina bat kilometro dituzte aurrean amateur mailako txirrindulariek. Uda sasoian ez da haiendako oporrik.

NICK VAN GEFFEN
CAJA RURAL

Lehendakari Txapelketako liderra da Nick Van Geffen holandarra (21 urte): "Zapatuan, Murgian, ezin izan nuen lasterketa bukatu. Gaur hobeto ibili naiz eta sentsazioak onak izan dira. Hala ere, nahiko erritmo gogorrean korritu dugu eta lasterketa polita izan da. Oraingoz, Lehendakari Txapelketako lidergoari eusten diot, baina ez da erraza izango lehen postuan jarrai tzea. Lasterketa asko geratzen dira oraindik. Edozelan ere, pozik nago orain arte egindako lanarekin".

JON RIVERO
DEBABARRENA

Txirrindulari bergararrak lehen urtea du amateur mailan eta pozik zegoen Antzuolan egindako lasterketarekin. 17. postuan sailkatu zen eta, gainera, taldekide batek lortu zuen garaipena: "Aitorrendako lana egitea zen gure asmoa eta ondo atera zaigu. Guretzat oso inportantea da horrelako garaipen bat lortzea, dagoen mailarekin ez delako batere erraza. Lasterketa bukatzea lortu dut eta banabil poliki poliki neurria hartzen amateur mailako tropelari".

AITOR GONZALEZ | DEBABARRENA

"Antzuolara sartzean ezin nuela hutsik egin pentsatu dut; ikaragarria izan da"

Aitor Gonzalez. | E.M.

Aitor Gonzalez ermuarrak eraman zuen Lehendakari Txapelketako bosgarren proba, Antzuolan hasi eta 130 kilometroren ostean bertako plazan bukatu zena. Garaipenaz gozatzeko aukera izan zuen segundo gutxi batzuk atera zizkiolako helmugan Jesus Herrerori. Ermuarraren lehen garaipena da atzokoa eta pozez zoratzen zegoen. Sari banaketa bitxia egin zuten Antzuolan: irabazleak udaletxeko balkoian jaso zuen ohiko lore sorta eta trofeoa. Sekula ahaztuko ez duen eguna bizi izan zuen Gonzalezek atzo.

Azkenean, abantailari eustea lortu duzu...

Bai... eskerrak! Asentzion jo dut erasoa eta banekien atzetik gogor zetozela. Antzuolara sartu naizenean zera pentsatu dut: ezin nuela horrelako aukera bat galdu eta izugarrizko poza sentitu dut helmuga zeharkatzean. Bigarrenari tarte dezente atera diot eta behar bezala ospatu ahal izan dut. Nire lehen garaipena da gaurkoa eta sekulakoa izan da. Ikaragarri pozik nago. Taldekideei ere eskerrak eman beharrean nago.

Zer nolako lasterketa izan da?

Azkar korritu dugu eta gure mailan faborito asko egoten dira, talde guztiek dituzte maila oneko txirrindulariak. Gaur guri tokatu zaigu... Taldeak lan handia egin du. Bi lagun izaten gara jeneralean taldeko buruak eta gaur nire aldeko apustua egin du zuzendariak. Erasoa jo eta atzekoek ezin zutela jarraitu ikusi dudanean, oraindik indar handiagoz ekin diot saiakerari. 20 kilometro geratzen ziren helmugarako, baina nahiko suabea da azken tarte hori eta abantailari eutsi ahal izango niola pentsatu dut. Hala ere, inoiz ez dago lasaitzerik. Ibilbidea txirrindulariok egiten dugu gogor askotan eta gaur ere 40 bat lagun erretiratu dira...

Nola ospatuko duzu garaipena?

Ez dakit oraindik... Taldekideok zerbait egingo dugu, horrelakoak ez direlako egunero iristen eta lagunekin ere tokatuko da zerbait... Oso pozgarria da. Azkenean, urte askotako lanak fruitua izan du...

o aldea atera zion helmugan. | JULIO CALLEJA

SAILKAPENA

1. **Aitor Gonzalez (Debarrena)**
2:49:45
2. **Jesus Herrero (Camargo)**
+ 15 seg.
3. **Illart Zuazubiskar (S.Bilbao)**
+ 33 seg.
4. **Iñigo Ojeda (Koplad-Uni/2)**
+ 33 seg.
5. **Imanol Iza (Lizarte)**
+ 33 seg.
6. **Julen Mitxelena (Bidelan)**
+ 33 seg.
7. **Mikel Iturria (Belca)**
+ 33 seg.
8. **Aitor Ocampos (Naturgas)**
+ 33 seg.
9. **Antonio Molina (Caja Rural)**
+ 33 seg.
10. **Santiago Ramirez (Lizarte)**
+ 1 min.

MENDIKO SARIA: Iñigo Ojeda.

TALDEKA: Lizarte.

TXIRRINDULARITZA

Pirinioetan Tourra ikustera joateko irteera antolatu dute

Tourra ikustera joateko irteera antolatu dute Markel Irizarren, Garmendiaren eta Odriozolaren lagunarteek. Nagusiek 130 euro ordaindu beharko dituzte eta 12 urtetik beherakoendako prezioa 75 eurokoa da. Prezioaren barruan daude autobusa, jatekoak eta edatekoak. Lo egiteko kanpin denda eraman beharko du norberak. Interesatuek Lizarralde Kirolak (943 79 91 47) dendara jo dezakete argibide eske.

TXIRRINDULARITZA

Iban Velasco etxean da, lepauztaiaren ebakuntza egin ostean

Iban Velasco Euskalteleko txirrindulari arrasatearra etxean da dagoeneko. Egubakoitzean egin zioten ebakuntza Bilboko San Sebastian klinikan eta dena ondo joan zen. Zapatuan eman zioten alta eta etxean errekuperatu beharko da, martitzenera arte, hasiera batean, Euskaltelek aditzera eman duenez. Eskumako lepauztaia hautsi zuen eguaztenean, Tourrean erori ostean, helmugatik 16 kilometrora. Twitter bidez zaleen animoak eta babesa eskertu ditu Velascok.

GOIENA

TENISA

Jorge Aranes garaile Oñatin

Jorge Aranes bergararrak eskuratu du Oñatiko tenis txapelketa. Joan den domekan jokatutako finalean Eneko Ariznabarretari irabazi zion Aranesek. Hirugarren Eneko Fernandez sailkatu zen eta laugarren Gorka Bergaretxe. Guztira 25 kirolarik hartu dute parte. Antolatzaileek txapelketak izan duen maila ona nabarmendu dute. Hurrengo hitzordua San Migeleko txapelketa izango da, irailean.

FUTBITOA

Zaldibarko 24 orduko txapelketa hurrengo zapatuan; izenematea eguaztenera arte dago zabalik

Hurrengo zapatuan, hilaren 16an, Zaldibarko 24 orduko txapelketa jokatuko da. Talde bakoitzak 50 euro ordaindu beharko ditu parte hartzearren. Txapelketa geroago eta indar handiagoa hartzen ari da: iaz 20 taldek jardun zuten lehian, eta aurtengo helburua kopuru hori gainditzea da. Argibideak www.zaldibarkofutbitotxapelketa.com webgunean edota 634 44 75 92 telefonoan jaso ditzakezue. Izena emateko epea eguaztenera arte, uztailaren 13ra arte dago zabalik.

ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.

BERMEA 2 URTE

1000 b/min
6 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA ALF 1106
260 € aspes

1200 b/min
6 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA WM12E222
375 € SIEMENS

1000 b/min
7 Kg
A++ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA ZEN-L1217
330 € edesa

1400 b/min
7 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA WM14E465EP
410 € SIEMENS

1200 b/min
8 Kg
A+++ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA F-2810
399 € FAGOR

BERMEA 2 URTE
A Sailkapen energetikoa
ONTZI-GARBITZAILEA 2LF013S
360 € FAGOR

BERMEA 2 URTE
A Sailkapen energetikoa
AI-1300 INDUZKIOA
335 € aspes

BERMEA 2 URTE
A Sailkapen energetikoa
LABE PIROLITIKOA HOLLY-HP5X
INDUKZIO PLAKA HOLLY-I3S
625 € edesa

BERMEA 2 URTE
1850 x 600 x 600
A+ Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA KGN-36NVW20
490 € SIEMENS

BERMEA 2 URTE
1850 x 600 x 600
NO FROST
A++ Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA FFJ4871X
665 € FAGOR

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen bataz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.
A+ 70%
A 45%
B 25%

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13

Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

SASKIBALOIA

Azken hiru urteotako ametsarekin jarraitu gura du Sustrai Aloñak

Lau fitxaketa egin ditu taldeak: hiru jokalari eta entrenatzaile laguntzaile bat

TXOMIN MADINA | OÑATI

EBA mailan aritzea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula eta ondo dakite hori Sustrai Aloñako jokalari, entrenatzaile eta zuzendaritzakoek. Gauzak horrela, datorren denboraldirako taldea sendotu beharra izan dute aurrekontu handiagoa lortuz eta fitxaketa berriak eginaz. Egubakoitzean aurkeztu zituen berrikuntza hauek guztiak Sustrai Aloñak.

Aurrekontu handiagoa

Jose Luis Campo Sustrai Aloñako presidentearen arabera, ez da lan erreza izan taldea EBA mailan ikusi ahal izatea. "Lan asko egin behar izan dugu bai kirol aldetik eta baita alor ekonomikoan ere. Kide guztiek erakutsitako ilusioa ikusita, aukera hau ez galtzeko aurrera egitea erabaki genuen, zaleei eta Oñatiri aukera historiko hau emateko" adierazi zuen Campok.

Aurrekontuari dagokionez, Aloña Mendiko saskibaloi sailak 85.000 euroko aurrekontua izango du datorren denboraldian, eta horietatik ia 60.000 euro talde nagusiarentzat izango da. Jauzi garrantzitsua da hori, iaz, 40.000 eurokoa izan zen-eta sail osoaren aurrekontua. Finantziazioari buruz, Campok azaldu zuen hiru enpresa handirekin ari direla negoziaziotan eta gaineratu, negoziazio hauek ez badute emaitzarik ematen, dirua lortzeko beste ekimen batzuetan pentsatuko dutela. Dena den, animozko hitzak ere izan zituen: "Talde teknikoak eta jokalariek maila honetan egoteaz gozatu behar duzue, egiten dakizuena ahalik eta hobekien eginaz" esan zuen.

EBA mailan ariko den taldea, egubakoitzeko aurkezpenean. | JULIO CALLEJA

EBA mailan aritzeko, instalazio aldetik ere hainbat hobekuntza egin beharko dira Zubikoa polikiroldegian, eta Aloñatik esan zuten udalak eman duela hitza hobekuntza horiek egiteko. Ainhoa Martin kirol zinegotziak bere aldetik, esan zuen ohore bat dela herriarentzat horrelako talde bat izatea eta udaletik babes osoa jasoko dutela gaineratu zuen.

Etxean sendo

Xabier Igartua entrenatzaileak era hartu zuen hitza aurkezpenenan. Orain arte taldeak izandako ibilbidea gogoratu zuen, baita zaleen patetik jasotako babesa ere. "Egon ahal dira gu baino talde hobeak, baina gure ikusleak bezalakorik ez dugu aurkitu; eta seguru hurrengo denboraldian ere ez dugula aurkituko" esan zuen Igartuak.

"Aurreko hiru denboradiak amets bat izan dira guretzat, eta amesten jarraitzea da gura duguna" esan zuen entrenatzaileak. Zaleen aurrean eta euren laguntzarekin etxean gogor mantentzeko nahia ere azaldu zuen: "Gura badute, etor daitezela Oñatira turismoa egitera, baina ez partiduak irabaztera".

Lau aurpegi berri

Taldea osatuko duten jokalariei dagokienez, iazko jokalari guztiek jarraituko dute taldean, baina errefortzuak ere izango dituzte, Asier de la Iglesia, Gorka Kintana eta Jon Lekuona jokalariak eta Gorka Alartzia bigarren entrenatzailea. De la Iglesiak, Kintanak eta Alartziak gainera, ondo ezagutzen dute EBA maila, han jokatutakoak dira-eta.

Denboraldi berriari dagokionez, egubakoitzean bertan amaitu zen taldeek izena emateko epea, beraz oraindik ere zehazteko dago noiz hasiko den.

ASIER DE LA IGLESIA

Jaioterria: Zumarraga.
Postua: pibota.
Altuera: 2,01 m.

"Zortzi urtetan zehar izan dut EBAn jokatzeko aukera, besteak beste Zamoran eta Azpeitian. Maila batetik bestera dagoen alde handiena alderdi fisikoan dago; EBAn jokoa azkarragoa da".

JON LEKUONA

Jaioterria: Zumarraga.
Postua: basea.
Altuera: 1,80 m.

"Azken urteotan Goierri taldearekin jokatu dut, eta aurretik Beasainen ere jokatutakoa naiz Gorka Alartziarekin. Taldeak herritarrengandik jasotzen duen babesa izan da erakarri nauen gauzetako bat".

GORKA KINTANA

Jaioterria: Arrasate.
Postua: hegalekoa.
Altuera: 1,92 m.

"Azpeitian, eta batez ere Arrasaten jokatu ostean, EBA mailan jokatzeko aukeragatik etorri naiz; baita taldean lagunak ditudalako ere. Taldea gogotsu eta ilusioarekin ikusten dut, eta gustura nator".

GORKA ALARTZIA

Jaioterria: Urretxu.
Postua: bigarren entrentzailea.

"Xabier Igartuak esan zidan lanagatik ezingo zituela entrenamentu denak zuzendu eta laguntzera etorri naiz. EBA ez da maila erraza, baina baikorra naiz eta uste dut dukagun taldearekin ondo ibiltzeko moduan gaudela".

TXOMIN MADINA

JOSE LUIS CAMPO
SUSTRAI ALOÑAKO PRESIDENTEA

"Lan duina egitea eta jokalariek eta herriak berak gozatzea da gure helburua"

Hiru denboralditan hiru maila igo ostean, Sustrai Aloñan badakite denboraldi berria ez dela erraza izango. Ilusiorik baina, ez zaie falta.

Zer ekarriko diote Sustrai Aloñari egindako fitxaketek?

Teknikoen txostenetan oinarrituta erabaki dugu EBAn aritzea, hiru jokalari berrien laguntzarekin lan duina egin dezakegulako. Lan duina egitea garrantzitsua da, jokalariak ilusioarekin daudelako eta hiru jokalari hauek barik, akaso lehen partiduek etsipena ekar dezaketelako. Fitxaketak taldea egonkortzeko egin ditugu; garaipenak lortu eta mailaz gozatzeko. Sailkapenean erdi inguruan geratzea, arrakasta izango litzateke.

Nola planteatzen duzue denboraldi berria? Aldaketa handia izango da EBAn aritzea?

Jokalariak ilusio berdinarekin daude, nahiz eta zalantza barik, zailagoa izango den. Egia da maila honetako hasiberriak garela, baina jokalari beteranoak ditugu, eta jokalari berrien laguntzarekin uste dut lan oso duina egingo dugula. Horixe da gure helburua; baina batez ere goza dezatela, bai jokalariek eta baita herriak berak.

Buruhauste handiak izan dituzue EBAn aritzeko dirua lortzeko?

Kudeaketa ekonomikoa oso garrantzitsua da: dirua lortzeko gure sormena erabili behar dugu; batez ere aurrekontuaren %20a finantzatzeko gai izango den babesle bat bilatzeko. Hiru enpresarekin ari gara hartu-emanetan; horren bila joango gara. Dirua falta bazaigu, hainbat ekintza ere burutuko genituzke: kontzertuak, antzerki emanaldiak, produktuak saltzea...

Nola gustatuko litzaizuke zaleek bizitzea denboraldi berria?

Oñatin zaletasun handia dago eta hori lagungarria izan da jokalari berriak ekartzeko, jokalariek beti eskertzen dute-eta zaleen berotasuna. Zaleengatik dena emateko prest gaude.

ARETXABALETA

Zuzendaritza aldaketa eta urteko balantze ona UDAren urteko batzar orokorrean

Juan Mari Enekotegi izendatu dute presidente; 205.500 euroko aurrekontua denboraldi berrirako

EDU MENDIBIL | ARETXABALETA

Juan Mari Enekotegik Eduardo Altuberen lekukoa hartu zuen UDAren urteko batzarrean, egubakoitzean Arkupen. Hasiera baten bi urtez izango da presidente eta Enekotegirekin batera beste 15 lagunek osatuko dute zuzendaritza taldea. Eduardo Altube presidente ohiaren taldeak Arkupen batutakoen oniritzia jaso zuen batzarrean. 70 lagun inguru batu ziren eta ordu eta erdi pasatxo iraun zuen asanbladak.

Gai polemiko bakarra

Eztabaida piztu zuen gai bakarra zuzendaritza berriaren proposamena izan zen. Gipuzkoako beste hainbat elkartetan gertatzen den bezala, maila guztietako jokalari bakoitzari 70 eurotan abonatu txartela egitea zen proposamena. Eztabaida luzearen ondorioz zera adostu zuten batutakoek: 18 urtetik gorakoak bazkide egin beharko dira derrigor eta hortik beherakoen kasuan nahikoa izango da etxean abonatu txartel bat izatea. Beraz, bazkidea den guraso batek nahikoa izango du 70 euro ordaindu, haren seme-alabak (kopuru mugarik gabe) UDAn jokatzeko.

Hurrengo urterako aurrekontua ere onartu zuten. 205.581 euro izango da 2011-2012 denboraldirako aurrekontua. 10.000 euroko defizita aurreikusi dute zuzendaritza taldekoek.

Angel Zubillaga, Enekotegi presidente berria, Eduardo Altube presidente ohia eta Angel Etxabe, batzarrean. | E.M.

Jende dezente hurbildu zen Arkupera, 70 lagun inguru . | E.M.

Urteko onenak

Maila bakoitzeko futbolari onenak saritu zituzten. Hauek dituzue Jon Idigoras (alebina), Julen Arriola (infantila), Josu Galvez (ohorezko infantila), Ibon Perez de Labeaga (kadete lehen maila), Mikel Otxandiano (ohorezko kadetea), Xabi Uriarte (lehen jubenila), Asier Castellano (Euskal Liga), Alberto Romero (lehen erregionala), Mikel Zabala (preferente) eta Jokin Badillo (ohorezko erregionala). Areto futbolean Igor Olalde izan zen saritua; pilotan Jokin Uribe-Etxeberria eta Beñat Elkorobarrutia; eta karatean, azkenik, Oxel Vazquez.

Saritutakoak jasotako trofeoekin, egubakoitzean Arkupen. | E.M.

JUAN MARI ENEKOTEGI | UDAKO PRESIDENTEA

"Emaitzak ahaztu gabe, kiroltasunari eman nahi diogu garrantzia"



Juan Mari Enekotegi.

Bi urtez delegatu eta beste lau urtez zuzendaritzan (Jokin Antxiarekin eta Eduardo Altuberekin) jardun ondoren, UDAko presidente berria dugu Juan Mari Enekotegi (60 urte). Ilusioz ekin dio lanari.

Zer nolako erronka duzue aurrean?

Emaitzak beti ere garrantzitsuak dira, baina horietara heltzeko bideak ere badu garrantzia. Alde horretatik kiroltasunari, joko garbiari (zelaian eta zelaitik kanpo) edota diziplinari garrantzia eman nahi diogu. Esan bezala, emaitzak ahaztu gabe noski.

Zenbat lagun zarete zuzendaritzan?

16 lagun. Lehengo batzuk mantentzeko ahalegina egin dugu eta jende gaztea eta emakumeak sartzea nahi genuen, erreleboa, etorkizuna ziurtatzeko nolabait. 20-35 urte bitarteko hainbat lagun animatu dira eta lau emakume badira zuzendaritzan.

Zein da UDAren berezitasuna?

740 bazkide gara gaur eta 6.000 biztanle inguruko herri batendako portzentaje adierazgarria da hori. 850 bazkide izatera heltzea da helburua. UDAk duen babesa nabarmentzekoa da eta ikusi besterik ez dago Ibarrara hurbiltzen den jendea. Bestalde, herrira irekitzen jarraitu nahi dugu, bestelako ekitaldiak bultzatuz eta bertan parte hartuz. Herriaren bizitzan agente aktiboa izan nahi dugu.

Kirol zuzendaritzan aldaketarik izango da?

Ez, bi entrenatzaile berri etorriko dira bakarrik, ohorezko kadete eta lehen erregional mailako taldeetara. Entrenatzaileen kalitatea zaintzen jarraituko dugu; titulaziorik ez dutenei titulazioa lortzeko aukera emango diegu Federazioarekin laguntzarekin.

Kirol erakundeekin harreman ona duzue?

Donostiara begira egon nahi dugu, Realarekin, Federazioarekin eta Epaileen Komitearekin elkarlanean. Horretarako bost laguneko taldetxoa osatu dugu zuzendaritzan, haiekin harremana sendotzeko. Bestalde, Debagoienean ere *pisu* handiagoa izan nahi dugu.

Zein iritzi duzu Athleticeko presidente Urrutiaren proiektuari buruz?

JON ANDER JULDAIN
BAZKIDE OHIA, ARRASATE

"Macuak irabaziko zuela espero nuen, gestio ona egin duelako, baina bihotzarekin Urrutiak irabaztea nahi nuen: euskalduna, jokalari ohia... Onerako izango dela espero dut, ekipo ona duelako".

FELIX IRIZAR
INTXORTAKO LEHOIAK, ELGETA

"Entrenatzailearekin kontsentsua egon behar zen aurretik eta Caparrosi beste urtebete eman, merezi zuelako. Macuaren gestioa ere ona izan da, baina... Orain denok Urrutiarekin bat egin behar dugu".

JOSE ANTONIO PAGALDAI
PEÑA ATHLETIC BERGARA

"Talde polita osatu du Urrutiak. Ikusi behar Bielsak zer nolako emaitza ematen duen... Prestigioa badu behintzat. Caparrosek lan ona egin du baina joko aspergarria egin du taldeak azken etapan".

ANTTON ELORTZA
ZALEA, OÑATI

"Nik zera esaten dut: hobe dela ezagututakoa, nahiz eta txarra izan... Urrutia edo Macuari baino, entrenatzaileari ematen diot garrantzia eta Caparrosen lana hor dago: jarraitzea merezi zuen".

Joseba Garate arrasatearra pilotari eman aurretik. | JULIO CALLEJA

Lagun artekoak ere izan ziren; Ametz Eraña, atzean Ur Alonso duela. | J. CALLEJA

PILOTA

Arregi-Prieto, Garate-Saratxaga eta Urtaz-Azpitarte, Gatzagan irabazle

- Dorletako pilota txapelketa barruan, pilotari federatuen txanda izan zen atzo goizean
- Sei bikotek neurtu behar zituzten indarrak; askotariko arazoak tarteko, hiruk jokatu zuten

MIRIAN BITERI | LEINTZ GATZAGA

Aurrera doa Dorletako pilota txapelketa. Atzo goizean Leintz Gatzagako pilotalekuan sei partidu jokatzekoak baziren ere, azkenean hiru bakarrik jokatu zituzten. Gazte mailako Urrutia -Urzelai (Aretxabaleta) eta Arregi-Prieto (Arrasate) bikoteen lehiarekin hasi zen eguna; partidu ona jokatu zuen azken taldeak, 6-22 nagusituz.

Jarraian, maila berean, Arrasateko Arabaolaza-Etxagibel eta Gatzagako Barandiaran-Aizpururen arteko norgehiagoka zegoen aurreikusita; baina, Barandiaranek min hartu zuen zapatuan, eta ezin izan zuten partidua jokatu. Mauri Zubillaga epaileak arrasatearrei eman zien garaipena.

Garate-Saratxaga

Infantiletan, Garate arrasatearra eta Saratxaga amurrioarra 22-17 gailendu ziren, Moron eta Egiak osatutako bikotearen aurrean. Maila onean daudela erakutsi zuten laurek, publikoari jokaldi onak eskainiz eta partidu polita jokatuz. Hasieratik jarri ziren aurretik irabazleak. Partidu erdian, arrasatearrek aldea murriztu zuten. Bada, urdinak konfiantzarekin jokatzen hasi ziren, aldea ostera ere handituz. Horri gehitu behar zaio Moronek Egiari pilota larregi utzi zizkiola. Esan bezala, 22-17 galdu zuen Moron-Egia bikoteak.

Maila berean, Murua-Iturriotz (Arrasate) eta Urtaz-Azpitarte (Elorrio) irten ziren jarraian Leintz Gatzagako pilotalekuko kantxara. Bizkaitarrek 22-8 irabazi zuten.

Azkenik, seniorretan, ez zen lehiarik izan. Uriarte-Mondragon arrasatearrak ez ziren agertu, eta hortaz, Oiartzabal-Zubizarretari eskoriatzarrei eman zion epaileak partidua. Lazkano-Bolinaga (Arrasate) eta Urrutia-Zubizarreta (Eskoriatza) bikoteen kasuan, Bolinagak astebetean lau partidu dituela eta Gatzagan ez zuela parte hartu behar jakinarazi zuen.

Domekan, lau partidu

Domekan jarraituko dute txapelketarekin. Lagun arteko lehiez gain, erabakigarriak izango diren lau partidu jokatuko dira: lehenengo, gazte mailako Arabaolaza -Etxagibel (Arrasate) eta Arregi -Prieto (Arrasate); bigarrenean, Barandiaran-Aizpuru (Leintz Gatzaga) eta Urrutia-Urzelai (Aretxabaleta); nagusietan, Oiartzabal -Eneko Zubizarreta (Eskoriatza) eta Urrutia-Josu Zubizarreta (Eskoriatza); eta azkenik, Uriarte-Mondragon (Arrasate) eta Bolinaga-Lazkano (Arrasate). Finalak, ostera, irailaren 9an eta 11n jokatuko dituzte.

UR ALONSO
LEINTZ GATZAGA

"Txarto jokatu dut, eta merezita galdu dut norgehiagoka. Gainera, aurkari gogorra izan dut parean. Gehiago entrenatu beharko dut, irabazi nahi badut".

AMETZ ERAÑA
LEINTZ GATZAGA

"Ondo ibili naiz, eta irabazi dut. Saiatu naiz pilota atzera bidaltzen indarrez, aurkaria iristen ez zen tokietara. Ondo irten dira jokaldiak. Pozik nago, finalera heldu naiz-eta"

MARKEL MORON
ARRASATE

"Partidu zaila izan da. Nahiko txarto hasi bagara ere, gero hobeto jolastu dugu eta hurbildu egin gara; azkenean, baina, aurkariak nagusitu dira eta irabazi digute".

JOSU EGIA
ARRASATE

"Aurkariak oso onak ziren, baina atzekoak gogor jotzen zuen. Txarto jokatu dugu, akats asko izan ditut eta hortaz, ezin izan dugu norgehiagoka irabazi".

JOSEBA GARATE
ARRASATE

"Ondo joan da lehia. Irabazten hasi gara; gero, ni arriskatzen hasi naiz eta hurbildu dira. Baina, konfiantzarekin jokatzen hasi gara eta irabaztea lortu dugu".

PILOTA

Aitor Mendizabal | Aspeko pilotaria

"Oraindik ez didate sinadurarik eskatu, baina kalean askok eman dizkidate zorionak"

- Antzuolarrak uztailaren 17an egingo du profesional moduan debuta, Zarautzen
- Lau urte egin ditu amateur moduan, eta 22 urterekin egin du profesionaletara saltoa

Aitor Mendizabal, duela bi aste jokatu zuen Elgetako Lau t'erdiko txapelketako finalean, Ezkurdiaren kontra. | XABIER URTZELAI

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Kantxa barruan eta kantxatik kanpo erabat ezberdina da Aitor Mendizabal. Bizia, azkarra, amorruz jokatzen duen pilotaria da antzuolarra, eta kantxatik kanpora lasaia, ahotik irribarrea kentzen ez duena. Haren aurpegian irribarre handiena, baina, datorren domekan irudikatuko da, uztailaren 17an, Zarauzko Aritzbatalde pilotalekuan lehenengoz Asperen elastikoa janzten duen egunean. Pilotari profesional izango da orduan.

Antzuolako jaietan, datorren domekan, nor geratuko da herrian?

[Barre] Ez dakit, herrian dagoeneko hasi naiz entzuten jendea Zarautzera joateko asmotan dabilela, eta horrek asko pozten nau, geroago eta giro hobea egon, niretako hobeto. Nik, berriz, herritik alde egin beharko du jaietan, edo formal-formal ibili, hemendik aurrera gehiago zaindu beharko gara-eta.

Profesional izanda, zertan aldatuko da hemendik aurrera zure bizitza?

Bada, kirolari profesional moduan bizi beharko dudala, halaxe entrenatu beharko naizela... Orain arte aste barruan nire kasa entrenatu izan dut, Elgetan. Astean behin entrenatu nahi banuen, bada, behin, eta hirutan joaten banintzen, bada, hirutan. Horrekin batera, astean bizpahiru partidu izaten nituen, eta hori goitik behera aldatuko da orain.

Zure kasa ibiltzearena.

Bai, taldean zelan entrenatu esango digutelako, zenbatero... Entrenamendu espezifikoak izango dira, gainera; esango digute momentu bakoitzean zer egin behar dugun. Eta, entrenatzerako orduan ere Aspeko pilotariekin batera egingo ditut lan-saioak, eta ez ditut horrenbeste partidu jokatuko.

Akatsak zuzentzen lagunduko dizute Aspe enpresan.

Edozeren gainetik, ikastera noa Aspera, eta han badaude kantxan izan ditzakedan akatsak zuzentzen lagunduko nautenak. Gimnasioko lana zelan egin, zelan elikatu... gauza asko dut ikasteko.

22 urterekin, zure pilota-mailaren gorenera iritsi zarela uste duzu?

Uste dut ezetz, oraindik badaukadala zer hobetu. Esandako moduan, orain arte nire kasa ibili naiz entrenatzen, jokatzen... eta pilotaz dakitenen laguntzarekin, eta entrenamendu saioak profesionalekin eginda oraindik hobekuntza handiak egin ditzakedala uste dut.

Nire mailaren gorenera iritsi naizela uste dutenen iritzia errespetatzen dut, baina nik uste dut nire jokoak oraindik hobera egin dezakeela.

Kirol zuzendari Jokin Etxanizek dio profesionaletan erabiltzen duten materialak on egingo dizula.

Baliteke baietz. Profesionaletan pilota gogorragoak erabiltzen dituzte, behetik gehiago dabiltzanak, eta nire ezaugarrien arabera baliteke horrek mesede egitea.

Pena, profesionaletara saltoa egin aurretik azken txapela jantzi ezin izana, Elgetako Lau t'erdikoa.

Ba bai, batetik, Elgetako txapelketa oso garrantzitsua delako. Eta bestetik, nire buruarekin haserre amaitu nuen norgehiagoka, txukun jokatu arren kontrarioak partidu biribila egin badu galdu izana ez delako horren gogorra izaten. Baina, txarto ibili nintzen, ez nuen nirea eman, eta horrek amorratu ninduen. Egia esan, horrelako partiduei nahikoa buelta ematen diet, akatsetatik ikasteko.

"Herrian hasi naiz entzuten jendea debutera joango dela; poztekoa da"

"Uste dut oraindik ez dudala daukadan onena eman, jokoa hobetu dezaket"

"Garbi daukat ikastera noala Aspera, ditudan akatsak zuzentzera"

"Orain arte nire kasa entrenatu izan naiz eta hor aldaketa handia izango da"

Autobusa jarriko dute debuterako

Nahiz eta Mendizabalek debuta egiten duen egunean (domeka, hilak 17) Antzuola jaietan murgilduta egongo den, herritar asko gerturatuko dira Zarautzeraino. Pilotariaren lagunarteak autobusa antolatu du eta berez, atzo, domeka, zen izena emateko azken eguna, Mox tabernan. Autobusa bakarrik ez, Aitorren aldeko kamiseta ere prestatu dute, profesional moduan jarduten duen lehen egunean harmailetan babesa izan dezan.

Aitor Mendizabal, Elgetako azpitxapeldun izan da aurten. | J.A.

Euskarazko kantuen eta jolasen bildumak eskuragarri daude

Udako oporrak aprobetxatu seme-alabekin jolasean egiteko, eta euskaraz

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Itsaso Pagoagaren gomendioa da: oporretan umeekin batera jolasean egiteko tartea hartzea. "Nire txikitako kantu edo jolas gehienak gaztelaniaz dira", entzun du gurasoen artean behin baino gehiagotan. Egoera horiek gainditzeko baliabideak eskura ditugula gogorarazten digu. "Sarean eta merkatuan badira gurasoei eta hezitzaileei zuzendutako euskarazko kantuen eta jolasen hainbat bilduma".

Sarean, aisialdia

Pagoagak *www.aisia.net* ataria gomendatzen du. Umeekin egiteko moduko 20 jolas eskaintzen ditu, guztiak euskaraz. Azalpenak, jolas bakoitzaren ezaugarriak, beharrezkoa den materiala, espazioa eta denbora azaltzen ditu. Jolasa hobeto ulertzeko bideoak eta audioak ere baditu.

Bestelako euskarrietan

Pagoagak beste hiru proposamen egiten ditu: Urtxintxa eskolak kaleratutako *Euskal Jolasen Bilduma*, Txatxilipurdiren *Munduko Jolasen* CDa eta Oiartzungo hiru gurasok kaleratutako *Betiko Jolasak* liburua.

Urtxintxa eskolak lan handia egin du jolaserako euskarazko materiala biltzen. Pagoagak *Punpalaplan* DVDa proposatzen du. Bertan, jolas ezberdinen deskribapenak, parte-hartzaile kopurua, adin gomendagarria, letra eta bideoa jasotzen dira. Horretaz gain, betidanik ezagutu izan ditugun kantuen eta jolasen euskarazko bertsioak aurkituko ditugu. Esaterako: *Un, dos, tres carabimbomba!* beharrean *Bat, bi, hiru, eguzki!*

Txatxiliren *Munduko Jolasen* CDak munduko bost kontinenteetako hainbat jolas batzen ditu eta jolas gehienek naturako elementuz baliatutako materialak eskatzen dituzte. Tresna baliagarria eta dibertigarria, beraz, euskaraz kultura desberdinetako jolasak ezagutzeko.

Pagoagak *Betiko Jolasak* izeneko liburua ere gomendatzen du. "Bertan, Euskal Herrian ohikoak izan diren hainbat jolas eta kantu batzen dira. Jolasaren azalpena azaltzeaz gain, jolas bakoitza non batua izan den azaltzen du". Sokatira, txinga eroatea, zaku-karrera eta halako jolasak batzen ditu.

Eskura ditugun baliabideak erabiltzeko eta semearen edo alabarendako adinaren arabera gustagarrienak izango diren jolasak prestatzeko gomendioa egiten digu Pagoagak. "Harekin batera aukeratu une aproposa eta gozatu jolasean", diosku, azkenik, Itsaso Pagoagak.

Aita eta semea, jatetxe baten. | OQUENDO

Atuna eta hosto handiko barazkien kontsumoa zaintzeko gomendioa egin dute

Osasun Ministeriotik haurdunei eta haur txikiei egin diete gomendio hori

L.Z. | ARRASATE|

Elikadura eta Nutriziorako Espainiako Segurtasun Agentziak (AESAN) tamaina handiko arrain urdinak eta hosto handiko barazkiak saihesteko aholkua egin die haurdun dauden emakumeei eta urtebete baino gutxiagoko haurrei. Osasun Ministeriotik onartu dute kezka "etengabea" dela. Gomendio horren atzean daude arrain handiek pilatzen duten merkurioa eta hosto handiko barazkietan nabarmendu den nitrato kopurua.

Arrain handiak

Hegalaburra, ezpata arraina, lutxoa, marrazoa eta halako arrain handiak merkurio tasa handiak izatera iristen omen dira, eta horregatik da neurriak hartzeko aholkua. Luzaro bizi ohi dira eta merkurioa pilatzen joaten dira. Merkurioak, tasa handietan, fetuaren garapen neurologikoa kaltetu eta giltzurrunetako toxikotasuna sor dezakeela diote adituek. Hala, haurdun dauden emakumeendako eta hiru urtetik beherako umeendako gomendioa da ez kontsumitzea. 3-5 urte bitarteko umeek, berriz, ez lukete astebetean 50 gramo baino gehiago kontsumitu behar. Bestalde, arrain freskoa eta gehienez 12 kilokoak kontsumitzeko gomendioa egin dute.

Hegalaburra edo atuna. | FREECAT

Hosto handiko barazkiak

Espinakak eta zerbak dira bigarren gomendio horren jomuga. Nitrato ugari omen dute eta horregatik eskatzen du AESANek urtebete baino gutxiagoko umeei ez emateko. Nitratoa berez ez da toxikoa, baina organismoak nitrito bihurtzen du eta zianosia eragin dezake. Osasun Ministerioak gomendatzen du 1-3 urte bitarteko umeei edo hesteetako infekzio bakterianoak izan ohi dituzten umeei espinakak eta zerbak gehienez astean behin emateko. Barazki horiek hozkailuan mantendu behar dira, gehienez egun bat. Itsaskien buruak ere neurrian kontsumitzeko esan dute.

Etxetik kanpo sarri jateak eragina izan dezake seme-alaben ohituretan

Gurasook eredu izan behar dugu; jatetxeak eta menuak ondo aukeratzen erakutsi behar diegu

L.Z. | ARRASATE

Etxetik kanpo bazkaltzea edo afaltzea gero eta ohikoagoa da; oporretan, gainera, aukera gehiago izaten dugu horretarako. Guraso garen heinean, ezin dugu seme-alaben hezieta ahaztu eta eredu izan behar dugu kasu horietan ere. Jatetxe eta menu egokiak aukeratzea oso garrantzitsua da. Janari lasterretara jotzen badugu beti, joera hori hartuko dute seme-alabek.

Journal of Nutrition Education and Behavior aldizkarian argitaratutako ikerketa baten berri eman du *Consumer* aldizkariak. Ondorio esanguratsuetara iritsi dira ikertzaileak.

Umeen menuak

Nahiz eta nahiko zabalduta dagoen, etxetik kanpo jateak ez du zertan ekarri okerrago jatea. Egia da arrazioak handitu egiten direla eta askotan koipe saturatu gehiago duten jakiak aukeratzen ditugula, baina horrek badu irtenbidea.

Gomendioa da jatetxea ondo aukeratzea; lehenengo platererako barazkiak edo potajeak eskaintzen dituztenak eta bigarren platererako arraina dutenak. Postrerako fruta freskoa, zuku naturalak edo fruitu lehorrak izatea ere seinale oso ona da. Jakiak prestatzeko erabilitako teknikek ere badute garrantzia; jakiak baporean, labean, parrillan edo plantxan egitea komeni da.

Umeendako menuak ez dira beti aukera onena. Normalean, errepikakorrak eta barazki gutxikoak dira. Pasta, okela patatekin eta izozkia izan ohi dira. Gonbidatu umeak nagusiendako menua aukeratzera. Eta janari lasterreko jatetxe baten bagaude, adierazi ez dela arrazio estra-handiez abusatu behar eta erakutsi jaki osasuntsuak aukeratzen.

'Infopiojos.com': zorriei aurre egiteko eta kezkak partekatu eta aholkuak jasotzeko atari berria

Pediatrak, dermatologoak, botikariak, hezitzaileak, gurasoak... eragile ezberdinek bat egingo dute *infopiojos.com* atarian, buruhauste asko ematen duten zorriei aurre egiteko helburuarekin. Kezkak partekatu eta aholkuak jasotzeko zerbitzua da atari berria. Carlos Marina pediatrak eta Autora Guerra dermatologoak zuzenduko dute zerbitzua. "Zorriek ez dute higienearekin zerikusirik", dio Carlos Marina pediatrak. "Lehentasunezkoa da zorriak dituzten pertsonak identifikatzea eta lehenbailehen tratatzea gainerakoak babesteko". Gaineratzen du ozpina eta halako erremedioak oso aspaldikoak direla eta egun, prebentziorako botika egokiagoak badaudela merkatuan.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko: **guraso.com**

guraso.com

KULTURA

Sarea, argazkilari zaletuendako erakusketa areto erraldoia

- Asko dira euren lanak blog eta sare sozialetan erakusten dituzten argazkilariak
- Abantailak ugariak dira: partekatzeko erraztasuna eta ikasteko aukera

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Teknologia berriak eta iraultza hitzak eskutik joan dira azken hamarkadatan; lanean zein aisialdian, ez dago zalantzarik ohiturak eta moduak aldatu dituztela. Argazkilaritza da horren adibide garbia. Kamara analogikoetatik digitaletarako jauzia izan zen lehenengo; ondoren, Internetek argazkilarien lana zabaltzeko ematen duen aukera aparta.

Abantaila ugari

Asko ugaritu dira argazkilari profesional zein zaletuen lanak jasotzen dituzten blog eta sare sozialak. Hauei esker, dagoeneko ez dago argazki bilduma potoloarekin gora eta behera ibili beharrik: klik baten, edozein argazki ikusteko aukera dago, eta kalitate onean gainera. Honetaz gainera, horrelako erraminten erabiltzaileek diote ikasteko ere baliagarriak direla, besteak beste argazkiak iruzkintzen dituztenek esandakoei esker.

Debagoienean ere ez dira gutxi euren argazkiak sarean jartzen dituztenak.

JOSU TXINTXURRETA

JOSU TXINTXURRETA

Argazkilaritza betidanik izan du gustuko aretxabaletarrak eta lagunek gomendatuta Flickr sare sozialean du kontua. "Ikasteko modu on bat da, beste argazkilarien lanak ikus ditzakezulako, eta baita jendeak egindako iruzkinei esker ere" dio Txintxurretak. Horretaz gainera, zaletasun bera duten beste pertsonekin harremanetan jartzeko ere balio du bere esanetan.

ARITZ GORDO

ARITZ GORDO

Blog batekin hasi arren, Flickr-era egin zuen salto gero. "Gustatzen zaidana da argazkiak kalitate onean igo ditzakezula; horri esker, bilduma politak egin ditzakezu. Arazo bakarra da nahi beste argazki igotzeko, asko ez bada ere, ordaindu egin behar dela" dio. Argazkiak partekatzeko ere tresna aparta da Gordorentzat: "argazkiak atera eta bost minutura igo ditzakezu".

JOSE RAMON TXINTXURRETA

JOSE RAMON TXINTXURRETA

Oñatiar honen argazkiak *txintxu.blogspot.com* blogean daude, batez ere Oñatikoak bertakoak. "Egindako lanak erakusteko modu ona da: lehen erakusketak ziren horretarako era bakarra" dio. Blogean baina, ez du gehiegi idazten argazkiei buruz: "erakusketetan ere ez dago testurik; blog bat azkenean, eguneratzen zoazen erakusketa handi bat da".

YERA SANCHEZ

YERA SANCHEZ

Argazkilaritzarekin harreman estua duen arren, joan den astean ireki zuen Flickr-eko kontua. "Argazkilaritza irakasten dut HUHEZIn eta ikasle guztiek kontua zutenez, neu ere animatu naiz", azaldu digu. Hainbat abantaila ikusten dizkio Sanchezek; besteak beste, esteken bidez argazkiak partekatzeko aukera eta beste argazkilari batzuen lan egiteko modua ezagutzekoa.

Ezustean harrapatu zituen ibiltariak Kukai taldearen 'Karrikan'ikuskariak

Kalean egiteko sortu zen *Karrikan*, hiru koreografiaz osatutako dantza saioa

MIREN ARREGI | ARRASATE

Herriko plaza izan zen aukeratutako eszenatokia. Karrikan egin zuten, beraz, *Karrikan*; eta kalean egiten diren ikuskizunetan gertatzen den legez, herritarrak, ibiltariak gelditu arazi zituen, ordu betez espero ez zuten ikuskizun bikain baten testigu izateko.

Kukai dantza talde garaikidea dela esan daiteke; garaikidea da, euskal dantza tradizionala izanagatik oinarri ere, eredu berriak lantzen dituztelako. Eta *Karrikan*, dantza talde profesionalaren azken kale ikuskizuna da: hiru koreografia edo dantzaz osatua eta beste behin, ikuslea aho zabalik uztea lortzen duena. Indartsua, bizia, agresiboa eta umorez betea.

Gai sakonak, exekuzio bikaina

Aupa Mutil piezarekin hasten da ikuskizuna. Nekatuta, gaixorik, bizkarreko minez, burua ezin altxaturik egon arren, harrotasunaren indarrak zutik mantentzen gaituen une hori da lehen pieza honen gaia. Ikaragarria benetan hasiera honek ikuslea aho zabalik uzteko duen gaitasuna.

20 minutuko piezaren ostean eta etenik gabe, bigarrena etorri zen: *Fight For Fandango*. Honetan, telebista saio baten murgiltzen dute ikuslea, eta fandangoa protagonista, oso une umoretsuak eta intentsuak bizitzen ditu.

Hirugarren ikuskizuna *Sorbatza* da. Oreka berrezarri nahi duten lau gizonezkoren arteko errituala.

Elkarlana oinarri

Ikuskizuna sei dantzarik eta DJ batek egiten dute. Hiru sorkuntzak, gainera, koreografo profesionalen laguntzaz egin dituzte; Iker Gomez eta Pantxika Telleria eta Damian Muñoz eta Virginia Gartzia dira koreografoak.

Ikusleak begira daudela, Urko eta Nerea *Fight For Fandango* piezako une baten. | MIREN ARREGI

Alex Caporuscio Band Madriletik etorri zen blues eta rock doinuez, Espoloia girotzera

Bermuga jaialdiko bigarren eskaintzak jende asko erakarri zuen

M.A | BERGARA

Urteak daramatza Bergarako Udalak Bermuga jaialdia antolatzen, edo bestela esanda, jazzaldia antolatzen. Urtetik urtera egitaraua egonkortzen doa eta horren erakusle, egubakoitzean Espoloian elkartu zen jende kopurua. Uztailaren 1ean ez bezala, jende asko egon zen Madriletik zetorren proposamenari begira.

Blues eta rock doinuak ekarri zituen Bergarara Alex Caporuscio Band-ek. Madriletik etorritako taldeak maiatzean argitaratu zuen lehen diskoa Gaztelupeko Hotsak diskoetxearen bitartez eta disko horretako hamar abestiak eskaini zituen egubakoitzean. Gitarra doinuek eta taldeko arima den Alex Caporuscioren ahots bereziak Espaloiko tabernatan afaltzen eserita zeudenak eta propio emanaldia ikustera joandakoak txunditu zituen. Aparteko gora-behera barik eskaini zuen taldeak kontzertua; giro ederrean eta ikusle askoren begiradapean.

Alex Caporuscio kontzertuan, Bergaran. | JULIO CALLEJA

Blues, rock, jazz...

Taldearen errepertorioan blues eta rock doinuak nagusia badira ere, bestelako estiloak ere ekarri zituen Caporusciok, hala nola, jazza edota countrya ere bai. Esan bezala, taldeak maiatzean argitaratu zuen bere lehen diskoa eta orain bigarrenaren bila doaz: aurten kaleratuko da bigarrena, eta kasu honetan AEBetako Grooveyard diskoetxearekin egingo dute.

Musikari gehiago uztailean

Oraingo egubakoitzean Badajoz eta Portugalko Nao taldea izango da Espoloian; hilaren 22an, berriz, Rico McLarrin & Marcos Coll Band arituko da, blues, funk eta soul doinuak eskainiz.

Musikaz eta irudiz, Ameriketara emigratu zuten euskaldunen bizimodura egin zuen ikusleak

M.A | ESKORIATZA

Musika eta irudia dira Audience talde gernikarrak zapatuan Eskoriatzara ekarri zuen ikuskizuneko protagonistak. Hain zuzen ere, talde gernikarrak, Nacho Reig eta Gorka Bilbaok zuzendutako *Amerikanuak* dokumentalari ipini dio musika. *Amerikanuak* dokumentala Nevadara lan eta diru bila emigratu zuten euskaldunen gainekoa da; bertako euskaldunen istorioa eta haien bizimodua rena.

Bada, dokumental hunkigarri horri musika ipini dio *Audience* taldeak eta oinarria dira, amerikako bertako musika ereduak; hala nola, blues, rock eta folk doinuak.

Eskoriatzatik Nevadara

Irudiei begira eta musikan murgilduta, bazirudien une askotan Ameriketan bertan geundela. Audience taldeak eta *Amerikanuak* dokumentaleko irudiek, lortu zuten HUHEZIko klaustroan elkartu zirenak Nevadako artzainen bizimodura gerturatzea.

Emanaldia Errekan Gora jaialdiaren baitan egin zen, baina ez zen bakarra izan; egubakoitzean Ain_1-ek ere jo baitzuen.

Audience talde gernikarra HUHEZIko klaustroan, zapatuan. | JULIO CALLEJA

Gora Gora Kids taldearen doinuek Antton Taberna bete zuten egubakoitzean

Garage eta surf ukituak dituzten abesti zuzen eta azkarrak eskaini zituen taldeak

MIREN ARREGI | OÑATI

Garage-rocka egiten duen Gora Gora Kids taldeak, Oñatiko Antton Tabernan eskaini zuen kontzertua egubakoitz iluntzean eta bertaratuak gustura utzi zituen. "Gu ere oso gustura aritu gara. Tokia ederra da kontzertuak egiteko. Tamaina aldetik bikain dago, ederki prestatua eta oso giro ederra lortu dugu" zioen Arkaitz Villar taldekideak. Eta pozik egotekoa da, Antton Taberna bete egin baitzen egubakoitz iluntzean Donostia, Andoain, Iruñea eta Oñatiko kideek osatzen duten taldea ikusteko.

Gora Gora Kids-ek iazko udan grabatu zuen *Uaouh, Miauh & Yeah* diskoko zortzi kantuak aurkeztu zituen, eta baita kantu berriak ere, hain justu, laster kaleratuko duten bigarren diskoan argitara emango dituztenak. Musikari aire fresko eta natural bat emanez, doinu sinple eta azkarrez erakarri zuten ikusleen atentzioa.

Helburua ondo pasatzea

Taldekideek argi dute helburua ondo pasatzea dela. Ez dute inolako mezurik helarazi nahi, euren xedea delako musikariek eurek eta baita ikusleek ere ondo pasatzea. "Guk primeran pasatzen dugu entseguetan eta baita kontzertuetan ere. Astean behin elkartzen gara entseatzeko eta hilean kontzertu bat eskaintzen dugu" azpimarratu zigun Arkaitz Villarrek.

Gaur hasiko dira, gainera, lau abestiz osatuko den *single* bat grabatzen. Aurrekoa ez bezala, oraingoa binilo formatuan kaleratuko dute.

Antton Tabernan Gora Gora Kids. | JULIO CALLEJA

ARKAITZ VILLAR | BATERIA-JOTZAILEA

"Biniloan argitaratuko dugu bigarren diskoa; gaur hasiko gara grabaketetan"

Arkaitz Villar. | JULIO CALLEJA

Arkaitz Villar oñatiarra da Gora Gora Kids taldeko bateria jotzailea. Harekin aritu gara, taldearen gainean.

Donostiako bat, Iruñeko beste bat, Andoaingo bat eta oñatiar bat. Nolatan?

Lagunak ginen. Elkarrekin lan egiten genuen eta musikak elkartzen gintuen. Behin jotzeko elkartu ginen eta lehen hitzordu hari jarraipena ematea erabaki genuen.

***Uaouh, Miauh & yeah* diskoa ekarri duzue Oñatira. Nolakoa da?**

Abesti zuzenak eta motzak dira, sinpleak eta azkarrak. Mezuak ere azalekoak dira; ez dugu gauza transzendentaletaz hitz egin nahi. Ez gara musikoak eta ez dugu itxura hori eman nahi. Errealistak gara alde horretatik.

Gaur sartuko zarete estudioan, bigarren lana grabatzen hasteko.

Andoaingo Astikutz estudioetan grabatuko dugu, lehenengoarekin egin genuen bezala. Kasu honetan, baina, biniloan argitaratuko dugu. Formatu horrek oso soinu naturala eta berezia du eta asko gustatzen zaigu. Gero eta gehiago erabiltzen da formatu hori; esango nuke CDa agortzen ari den bezala, biniloa ez dela agortuko. Xarma berezia duen formatua da.

Askotariko kontzertuak Oñatiko Gaztelekuan, hilaren 16an eta 24an

Jingo the luch eta Fly Shit taldeak arituko dira hilaren 16an, zapatuan

M.A | OÑATI

Oñatiko gaztelekuak musika eskaintza askotarikoak antolatu ditu uztailerako. Hala, Uztailaren 16an, zapatuan eta hilaren 24an, domekan, kontzertuak izango dira guztion gozagarri.

Zapatuan, Jingo The Lunch eta Fly Shit taldeak igoko dira gaztelekuko eszenatokira. Fly Shit talde bergararra da, eta hardcorea, punka eta rocka dira taldeak bereziki lantzen dituen musika estiloak. Musika ildo beretik, lagun izango dituzte eszenatokian Jingo The Lunch taldeko kideak; Hauek metala, punka eta rocka lantzen dituzte. Berlinen sortutako taldeak Madrilen eskainiko du kontzertua hilaren 14an; 15ean Zeberion izango dira, eta 16an, Oñatiko gaztelekuan. Kontzertuak 22:00etan hasiko dira.

Punk doinuak hilaren 24rako

Eta punk doinuekin jarraituz, uztailaren 24an, domekan, beste hiru talde igoko dira Oñatiko gaztelekuko oholtza gainera; kasu honetan, The Dickies, La URSS eta ACHTUNG!. Aipatutako lehenak, Californiatik datoz eta Ramones taldearen eragin nabarmenarekin, umorez lantzen dute punka; Ingalaterran arrakasta handia duen taldea da The Dickies. La URSS, berriz, granadan sortutako taldea da; hauek lantzen duten musika estiloa ere punka da.

Esandako moduan, kontzertu guztiak gaueko hamarretan hasiko dira, eta 10 euro ordaindu beharko ditu askotariko punk doinuak entzun gura dituenak.

Bergarako gaztetxeko zinekluba uztailean, eguaztenero, 22:30ean

M.A | BERGARA

Bergarako gaztetxeak uztaileko zine eskaintzari hasiera emango dio eguazten honetan, 22:30ean. Proiekzioak gaztetxeko kanpoko patioan izango dira eta etzi eskainiko dute lehena. Hala, hilabeteari hasiera emango diote Billy Wilderrek 1961ean ekoiztutako *Uno, dos, tres* filmarekin. Ferenc Molnaren izen bereko antzezlanean oinarritutako filma da; Billy Wilderren umorezko pelikula gogoangarrienetariko bat. Berlinen kokatzen da istorioa, gerra hotzaren testuinguruan. Oscar sarietarako izendapena lortu zuen, fotografia onenaren sarirako.

Eguaztenero film bat

Umorezko lau film eskainiko ditu Bergarako gaztetxeak uztaileko eguaztenetan, guztiak ere, genero eta garai desberdinetan ekoiztuak; eguazten honetako *Un, dos, tres* filmaren ondoren, hilaren 13an Joel Coenen *Arizona Baby* filma eskainiko dute; hilaren 20an, Wes Andersonek 1998an ekoiztu zuen *Academia Rushmore* filma eta 27an, *Zombies Party*, Edgar Wrightek 2004an ekoiztua.

Gogoratu guztiak direla umorezko filmak, garai desberdinetan ekoiztuak, eta eskainiko dituztela gaztetxeko patioan, eguaztenero, 22:30ean.

ARRASATEKOBASERRIKO PRODUKTUENAZOKA
09:00-14:00 Seber Altube Plaza
HILEKO 3. ZAPATUAN
2011
uztailak 16
irailak 17
urriak 15
azaroak 19
Antolatzailea: Arrasateko Udala Ayuntamiento de Mondragón Enplegu eta Garapen Ekonomikoaren Saila
Laguntzailea: ibai-arte Arrasateko baserriek eta merkatariek konfiantza, hurbiltasuna eta kalitatea eskaintzen dizkizuete.

TWITTER kontu bana, herri eta gai bakoitzeko

Goiena Komunikazio Taldea: @goiena

Kontu horretan Goienaren inguruko berriak, telebistako programazioa, azken ordukoak... jasoko dituzu.

HERRIAK

Antzuola: @antzuolagoiena
Aramaio: @aramaiogoiena
Aretxabaleta: @aretxagoiena
Arrasate: @arrasategoiena
Bergara: @bergaragoiena
Elgeta: @elgetagoiena
Eskoriatza: @eskogoiena
Oñati: @oinatigoiena

GAIAK

Ekonomia: @ekonomiagoiena
Hezkuntza: @hezkuntzagoiena
Kirolak: @kirolakgoiena
Kultura: @kulturagoiena
Osasuna: @osasunagoiena
Teknologia berriak: @teknonetgoiena

Egin zaitez jarraitzaile!

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

GURE MUSIKA TALDEAK

REPELENCIA

Unai, Imanol eta Sergio, Urban Fest jaialdian eskainitako kontzertuan. | GOIO ARANA

"Sentimenduak eta pentsatzen duguna adierazteko bidea da musika guretzako"

- Lehen diskoa kaleratzeko kantuak egiten dabiltza Imanol, Sergio eta Unai
- RPLren diskoa agortuta; kamiseten salmenta ere bide onean doa

MAIDER ARREGI | ARRASATE

12 urte bete berri duten arren, agertokian heldutasuna erakusten dute eta hazi egiten dira. Hasierako freskotasuna eta indarra azaleratzen dute eta musika barruan daramatela argi utzi dute. Repelencia hirukoak RIP, Des-kontrol, Arkada Social eta Never Surrenderrek utzitako olatu gainera salto egin du.

Noiztik musikarako zaletasuna?

Denok elkartu eta Imanolek baxua hartuko zuela esan zuen; Unaik, gitarra; eta ondoren, Sergiok bateriaz laguntzea erabaki zuen. Horrela hasi ginen entseatzen gure kabuz.

Gazte txokotik irten den bigarren belaunaldia zarete!

Bai. Gazte txokotik lokal bat utzi ziguten eta bertan hasi ginen abestiak egiten. Bi abesti egin genituen. Aggressive Combat taldeko gitarra-jotzaileak grabatu zizkigun kantuak. Never Surrender taldeko kideen laguntza ere izan dugu! Astean bi edo hiru egunez entseatzen dugu.

Grabazio lana zaila izan da?

Esperientzia polita izan da! Hasieran urduri, baina oso gustura. Emaitzarekin, soinuarekin pozik gaude. Orain beste lau abesti berri egin ditugu. Denon artean egiten ditugu. Ideiak botatzen hasten gara denon artean.

Zer adierazi nahi duzue?

Inguruan ditugun arazoen gainean idazten dugu. Gustatzen ez zaizkigun gauzak, ados ez gaudena salatu, esan nahi dugu musikaren bitartez. Sentimenduak eta gure ideiak, pentsatzen duguna adierazteko bidea da musika.

Instrumentuak lortzeko, nola?

Baxua eta gitarra erosi egin genituen. Baina bateria lortzeko gazte txokokoek lagundu digute. Iaz, sanjuanetan, gazta pintxoak saldu genituen eta diruaren zati bat bateria erosteko izan da.

Autodidaktak zarete.

Gure kabuz gabiltza, baina Lazkanon ere lagundu digute. Punteatzeak ateratzen eta gure abestiak hobetzen lagundu digute. Gure inguruko musikariek ere gomendioak ematen dizkigute; irakatsi ere egiten digute.

Governors eta Des-kontrolekin gaztetxean jo duzue.

Gure bigarren kontzertua izan zen, ikaragarria. Jende mordoa zegoen eta publikoak gure abestiak kantatzen zituen. Des-kontrolekoek esan ziguten "potroak" ditugula 12 urterekin taula gainera igotzeko.

***La pasma* eta AHTren kontrako abestia gustatu zaio jendeari.**

Poliziarekiko eta AHTrekiko gure jarrera azaldu, salatu egin nahi dugu. Jendeak bat egin du; gure kontzertuetan abesten dute.

Berlingo Slamtilt taldea ere liluratu duzue zuen zuzenekoaz.

Elkartasun Egunean Dat tabernara etorri ziren gu ikustera. Gauean gaztetxean zuten zuzenekoa eta arratsaldean eurekin izan ginen. Argazkiak atera zizkiguten eta lagunak egin ginen. Agian, egunen baten, Berlinera joango gara gu ere!

Orain diskoa atera beharko duzue.

Bagabiltza kantuak prestatzen, sei bat ditugu dagoeneko. *Bizitza aurrera doa* abestia egin berri dugu. Orain, ondo prestatzeko denbora behar dugu.

ZERTZELADA

REPELENCIA

Estiloa: Punka.

Egilea: Repelencia.

Argitaletxea: Autoekoizpena.

Iraupena: 2,24"(Bi kantu dira, ez da diskoa)..

Mugen aurrean, abilezia eta jarrera

Ez da ohikoa 12 urteko gazteen musika taldea zuzenean aritzea. Eskuratutako bi kantuak entzunda -bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz- antzematen da muga handiak dituztela, baina muga horiek saihesteko abilezia erakusten dute; adibidez, abiadura beharrean euren kantuei bestelako ezaugarriak gehituta. Oso bitxia da ume ahotsarekin eta 77ko punk soinuarekin AHTren kontra hain irmo abesten entzutea. Eta poliziaren kontra gaztelaniaz abesterakoan, amorru handiagoa atera dute. Badira punkaren garraztasuna erakusteko beste modu batzuk, eta jarrera, hauek soberan badutena, garrantzitsuenetako bat da. Jakin-minez jarraituko ditut.

IKER BARANDIARAN

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Bergara. San Antonen etxebizitza salgai. 65 m2. Hiru logela, sukalde hornitua, komuna, balkoia, hall-a, miradorea. Bi aparkaleku eta trastelekua terrazarekin. Urbanizazio pribatuan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 629-45 58 51.

Durango. Etxea salgai Durangon, hiru urte ditu. Bi logela, bi bainugela, saloia, sukaldea eta 90m2-ko terraza handia. Etxearekin batera, 28m2-ko garajea saltzen da. Deitu zenbaki honetara: 637-41 64 38.

Durango. Sasikoa kalean pisua salgai. 3 logela, komuna, egongela-jangela eta sukaldea. 2 balkoi (bat itxia). Berogailua gas naturalarekin. Ganbara eta garajea. Prezio ezin hobea. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679-38 23 69.

Lakuntza. 117 m2, 3 logela handi (Suite logela 1 zurezko teilatuarekin eta Veluxlehiatilekin). 3 bainugela, sukaldea, trastelekua (11 m2) eta balkoi handia, igogailuarekin. Kalitatezko eraikuntza eta hobekuntzekin. Dekorazio profesionala etabista ederrak. 198.000 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 639-94 65 20.

Oñati. Kalebarria 32an 80 m2ko etxebizitza ederra salgai. 9 urteko aintzinatasuna. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela handi bat. Igogailua eraikin berean garajeraino dauka. Kalitate handiko etxebizitza, diseinuzko altzariz hornitua. Prezio negoziagarria. Garaje itxia aukeran. Deitu zenbaki honetara: 622-42 83 18.

Oñati. 90 m2ko duplexa salgai atzekokalen. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela dauzka. Igogailua dauka. Eraikuntza berriko etxea da. Garagea aukeran. 607-58 00 99 edo 625-70 54 44.

Otxandio. Apartamentu jantzia salgai. Garaje eta trastelekuarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 675-71 72 83.

Zornotza. Etxebizitza salgai Euban. 3 logela, egongela bat, sukaldea, 2 bainugela, ganbara eta berogailua. 345 m2-ko lursailarekin. Aukera paregabea. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 695-70 18 58.

103. ERRENTAN EMAN

Ainsa (Huesca). 50 m2-ko atikoa alokatzen da Huescako Ainsa herrian. Kanpora begira. 2 gela, sala, sukaldea, komuna eta egongela. Guztiz hornitua. Garajea eta trastelekua. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 630-67 48 64.

Bergara. Berriztutako pisua ematen da errentan bergara erdialdean. Bi gela haundi ditu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685-72 51 58.

Bermeo. Portutik oso gertu dago. Altzairuak modernoak eta barriak dira. Oso argitsua da, balkoi txikia dauka, logela bat, sukalde modernoa, egongelan telebista ikus daiteke, eta bainugelan dutxa bat dago. Pertsona bakarrarentzat edo bikote batentzat egokia da. Ez dut animaliarik onartzen. Prezioa udan : 600 euro hilean ura eta argia barne. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 635-71 46 13 edo idatzi helbide honetara: laidalanzarote@hotmail.com.

Conil (Cadiz). Conilen etxea alokagai udarako. 3 logela eta garajea. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 653-73 34 57.

Donostia. Antiguo auzoan, irailetik ekainera arte, bi gelako etxebizitza ematen da errentan, Escolta Real 47an. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 626-84 45 91.

Eskoriatza. Ikasleentzat etxebizitza ematen da errentan. 4 logela. Unibertsitatetik 15 metrora. Guztiz ekipatuta eta berogailuarekin. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 655 72 44 10, 656 71 65 11

Hondarribia. Hondarribian gela bakarreko apartamentua alokatzen da uztailean. Hondartzako lehen lerroan. Aparkalekua barne. Bista ederrak. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 617-55 25 43.

Lakuntza. Goitik behera erreformatutako herriko etxe batean dagoen apartamentu bat alokatzen dut. Logela bat, oso polit eta apaina. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 679-50 54 64

Oñati. Etxebizitza errentan ematen da erdigunean. Hiru logela, egongela, sukaldea eta igogailua ditu. Interesatuak arratsaldez deitu zenbaki honetara: 652-77 87 15.

Port Saplaya (Valentzia). Bi logelako eta aire egokitua duen apartamentua ematen da errentan. Valentzia hiriburutik 4 kilometrora eta hondartzatik 100 metrora. Bi igerileku urbanizazioan. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 635-75 09 47 edo 676-51 80 58.

Ramales (Kantabria). Kantabriako Ramales herrian txaleta alokagai udarako. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 653-73 34 57.

Ribadesella (Asturias). Etxebizitza ematen da errentan udarako. Hiru logela. Erdigunetik gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 695 78 22 47

Torrevieja. Torreviejan atikoa ematen da errentan. Urbanizazio lasaia hondartzatik gertu. 4-6-pertsonendako lekua. 2 logela, terraza, solarium pribatua eta elkarteko garaje eta igerilekua. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 609-07 41 27 edo 649-88 79 17.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Etxebizitza behar dugu errentan. Bi, hiru edo logela gehiagokoa. Deitu 943-53 36 72 edo 677-73 79 59 telefono zenbakietara.

Bergara. Bergaran, etxebizitza hartu nahiko nuke errentan. 2 edo 3 logelakoa eta kontratuarekin. Presazkoa. Deitu 697-62 59 57 telefonora.

Bergara. Pareja arduratsuak etxebizitza alokatuko luke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 677-77 22 31.

Debagoiena. Baserria alokatuko nuke, lursailarekin. Gehienez 550 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 669-17 09 51.

Elorrio. Bikote langile bat elorrion alokatzeko pisu bila gabiltza. 699-67 00 22. xeider@hotmail.com.

Oñati. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Bilogeladuna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 630-96 39 70.

105. ETXEAK OSATU

Antzuola. Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. 661 88 77 54

Aretxabaleta edo Arrasate. Logela behar dut errentan. Ikaslea naiz. Deitu 689 18 04 19 telefono zenbakira.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: **PREZIO BEREZIAK** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.

Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604.Bestelakoak

7. ANIMALIAK
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com

Deba Garaia Inmobiliaria
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA
- Sanantonabat, 75 m², oso ondo, eguzkitsua, lorategia.
- Aranerreka, 80 m², oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 m², eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Fraizkozuri, 75 m², eguzkitsua, berritua, oso ondo.
- Burdiñate, 104 m², oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 m², oso ondo.
- Herrilagunak, 60 m².
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Urteaga 109 m², berritua, oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m².
- San Antonio, 65 m², eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m², eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, artokon, San Lorentzon eta Lorentxokon.**
- San Lorentzon aukera ona.
- Basarte. 69 m². Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m². Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 m². Apartamentua. Oso ondo.
- Ibargarai, 88 m². Berria. Garajearekin.
- Fraizkozuri. Aukera ona.

ANTZUOLA
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

Korosti INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:
- Martoko. 70 m². Igogailuarekin. 192.233 €.
- Basarte. 68 m². Terrenoarekin.
- Artekale 40 m². Berritua.
- Koldo Eleizalde. 74 m². Eguzkitsua. Prezio ona.
- Ozaeta. 96 m². Eraikuntza berria.
- Osintxu. 84 m². Igogailuarekin. 153.258 €.
- Ibargarai 54 m². Garajearekin.
- Burdiñate 53 m². 162.273 €.
- Matxiategi 65 m². Igogailuarekin. 190.000 €.
- Mizpildi. 70 m². Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 70 m². Prezio ona.
- Zabalotegi 54 m². 154.761€.
- Aranerreka 80 m². 189.319€.
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Herri Lagunak 52 m². Prezio ona.
- Zubiaurre 51 m². Terrazarekin. 102.000€.
- Zubiaurre 81 m². Igogailuarekin. 183.909€.
- Zubieta 55 m². Berritua. 150.000€.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- Artzamendi. 75 m². Prezio ona.
- GARAJEAK SALGAI Ozaetan, San Lorentzon eta Ibargarain. Aukera ona.

Antzuola:
- Ondarren garajea salgai. 36 m².
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 m². Oso etxe ona.

Elgeta:
- **AUKERA**. Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua.

PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita.
- **Eraikuntza berriak Torrealdean. 186.805 €tik aurrera.**

Soraluze:
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

Arrasate. Uriburu kalean, unibertsitatetik gertu, pertsona bat behar da beste birekin batera etxebizitza osatzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 699-49 87 89.

Arrasate. Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da Erguin inguruan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 670-59 73 62.

Arrasate. Logela ematen da errentan erguin auzoan. Jantzia. 290 euro hilean, gastuak barne. Deitu 648-19 10 38 edo 943-08 16 31 zenbakietara.

Arrasate. Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko erdigunean. Inaki. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 608-49 89 93.

Arrasate. Hiru pertsona behar dira erdiko plazan pisu merkea osatzeko. Eneko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 658-74 48 24.

Bergara. Pertsona bat behar da Bergarako Bolu auzoan etxebizitza osatzeko. Interneta dago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 670-85 86 68.

Bilbo. Bi langile gazte gara. Uztailaren 1etik aurrera pisuan logela bat libre geratuko zaigu eta errentan hartuko lukeen norbaiten bila ari gara. Ikusi nahi izanez gero, kontaktatu. 661-30 97 78 /609-25 41 72.

Debagoiena. Bizi izateko gela errentan hartuko nuke. Kontratuz bada, hobe. Erroldatzeko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 40 66 47,

Elorrio. Pisukide bila nabil Elorrion, Goieta kalean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 686-99 16 31.

Oñati. Etxebizitza osatzeko pertsona bila nabil. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 652 71 52 50

2. GARAJEAK

201. SALGAI

Durango. Garajea salgai. Durangoko erdialdean kokatua, Tronperri kalean. Itxia. Saltzeko premia. Prezio negoziagarria. Interesatuok deitu zenbaki honetara: : 686-73 44 51.

Otxandio. Garaje itxia salgai. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 675-71 72 83

202. EROSI

Oñati. Garajea erosi edo errentan hartuko nuke Kalegoiena inguruan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 617 80 26 20

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garaje bat ematen da errentan Arrasaten. Larrea etxeen atzetik (Usaetxe enparantzan), unibertsitatik oso gertu. 60 euro hilabetean. Idatzi *soliveira@hotmail.es* helbidera edo deitu telefono zenbaki honetara: 678 53 82 48 (Sergio)

Bergara. Garaje itxia ematen da errentan Burdinaten. Interesatuok deitu 689 36 86 42 edo 943 76 06 60 telefono zenbakietara.

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Beasain. Beasainen ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume euskaldun bat behar da. Interesatuok deitu 656-74 80 30 telefono zenbakira.

Bergara. Emakume euskalduna behar da irailetik aurrera bi ume zaintzeko. 637 77 45 57

Durango. Pertsona euskalduna behar da datorren ikasturtean ume bi orduka zaintzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 649-56 34 92.

402. ESKAERAK

Aretxabaleta. Edozein lan egiteko gertu mutil gaztea. Deitu edozein ordutan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 610 13 54 56

Aretxabaleta. Edozein lanetarako gertu mutil gaztea: garbitasun lanak, zerbitzari. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 687-26 89 05.

Arrasate. Arrasate edo Aretxabaleta. Zerbitzari lanak egingo nituzke. Deitu zenbaki honetara: 685-21 24 89.

Arrasate. Arrasateko neska gazte euskalduna etxeak garbitzeko prest. Esperientzia handikoa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618-41 24 79.

Arrasate. Berrogeita hamar urteko emakume euskalduna, esperientziaduna, etxebizitzak edo garbiketa lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 680-49 11 45.

Arrasate. Esperientziadun neska errumaniarrak etxe zein atariko garbiketak egingo lituzke. Plantxa egiteko ere bai. Arduratsua naiz. Deitu zenbaki honetara: 634-80 49 91.

Arrasate. Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatzan. Neska gertu ile-apaintzaile laguntzaile jarduteko edo garbiketa lanetarako. Deitu 685-21 24 89 edo 662-57 53 46 zenbakietara.

Arrasate. Garbiketa lanetan jardungo nuke, orduka. Maite. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 696-88 93 73.

Arrasate. Neska errumaniarra, arduratsua eta eskarmentuduna, nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan lo egiten edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 671-87 44 47.

Arrasate. Hemengo emakume arduratsua prest edozein lanerako.. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 615-75 41 44.

Arrasate. Arrasate edo Aretxabaletan. Emakumea, eskarmentuduna, nagusi zein umeak zaintzeko edo atari eta enpresak garbitzeko gertu. 685-21 24 89 / 662-57 53 46.

Arrasate. Nagusiak zaintzen edo etxeak garbitzen lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 681-27 99 54.

Arrasate. Neska eskarmentuduna gertu nagusiak zaintzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618-00 08 28.

Arrasate. Neska gertu nagusiak zaintzeko edo manikura, pedikura edo ilean trentzak egiteko umeei. Maria. Deitu 617-66 70 05 edo 943-77 10 99 telefono zenbakietara.

Arrasate. Umeak zaindu edo eskola partikularrak emango nituzke. Deitu zenbaki honetara: 696-78 75 71.

Arrasate. Bergara/Arrasate. Esperientziadun neska nagusiak zaintzeko gertu, astelehenetik ostiralera. Deitu zenbaki honetara: 637-18 07 23.

Azkoitia. Legezko paperak dituen emakumezkoa lan bila. Esperientzia dut etxeko lanetan eta nagusiak zaintzen. Etxean bizi izaten edo orduka. Etxe eta atarien garbiketan ere jardungo nuke. Juana. Deitu zenbaki honetara: 695-75 42 45.

Azpeitia. Helduak zaintzeko prest. Etxeko lanak egiteko prest. Umeak zaintzeko ere prest. Deitu 695-74 88 35.

Bergara. Etxeko lanak egin edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Eskarmentuduna. Deitu zenbaki honetara: 665-75 41 32.

Bergara. Neska gertu etxeko lanak egiteko goizetan. Deitu 943-76 28 12 / 656-73 64 51 telefonora.

Bergara eta Arrasate. Bertako neska eskarmentuduna gertu nagusiak zaintzeko. Deitu zenbaki honetara: 637 18 07 23

Bergara. Bergara edo Debagoiena. Emakumea gertu tabernetan sukaldari laguntzaile edo zerbitzari lanetan aritzeko, baita garbitasun lanak egiteko, umeak zaintzeko eta nagusiak zaintzeko ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 645-67 82 24.

Bergara. Garbitasun lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko emakumea gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 671-18 50 83.

Bergara. Bergarako neska gertu uztail eta abuztuan lan egiteko: ume edo nagusiak zaindu, etxeko lanak egin eta abarretarako. 943-76 58 03 / 634-46 66 93.

Bergara. Emakume eskarmentuduna gertu etxeak garbitu edo adinekoak zaintzeko. 650-17 74 87/ 943-76 48 26.

Bergara. Bergara edo Arrasate. Neska gertu umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko.Deitu zenbaki honetara: 646-28 55 02.

Berriz. Batxilergoa bukatu berri duen ikaslea berrizen zein inguruko herrietan (Zaldibar, AbadiÑo edo Durango) umeak zaintzeko edo eskolara eramateko prest dago, goizez zein arratsaldez. Deitu konpromiso gabe. Deitu 676-87 19 29 telefono zenbakira. (Maider).

Debagoiena. Legezko paperak dituen emakumezkoa gertu etxeko lanak egin edo ume zein nagusiak zaintzeko. Etxean bizi izaten edo orduka. Etxe edo atariak garbitu eta tabernetan lan egiteko gertu nengoke. Rosa Maria. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 673-47 53 74.

Debagoiena. Neska gertu tabernatan sukaldean lan egiteko. Elikagaien manipulazio titulua daukat. Ume edo nagusiak zaintzen ere jardungo nuke, orduka. Edo garbiketan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 600-20 55 43.

Debagoiena. Sukalde laguntzaile lanetan jardungo nuke. Eskarmentuduna. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 943-79 94 87 / 676 -12 97 14.

Debagoiena. 18 urteko neska euskalduna, tabernari lanetan aritzeko prest. Fina eta langilea. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679-74 00 61.

Debagoiena. Mutila gertu tabernan, nagusiak zaintzen edota garbiketa lanetan jardu teko. Gidabaimena daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 616-32 90 12.

Debagoiena. Sukaldari edo sukalde laguntzaile moduan lan egingo nuke. Euskal sukaldaritza ezagutzen dut. Miguel. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634-40 66 47.

Debagoiena. Nagusiak zaindu, garbiketa lanak zein etxeko lanetan jardungo nuke. Eskarmentuduna. Legezko paperak eguneratuta dauzkat. Cintya. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618 14 71 34

Debagoiena. Neska gertuume, edadetu zein gaixoak zaintzeko. Baita etxeak garbitzeko ere. Deitu zenbaki hauetara: 943-77 10 99 / 617-66 70 05.

Debagoiena. Emakumea gertu pertsona nagusiak zaitzeko, etxean eta ospitalean, eta garbiketalanak egiteko. Deitu 620-68 05 89 telefonora.

Debagoiena. Eskarmentudun neska, ikasketa soziosanitarioduna, nagusiak zaindu edo garbiketa lanetan jarduteko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 649-15 72 47.

Debagoiena. Legezko paperak dituen gizonezkoa lan bila. Esperientzia daukat pertsona nagusiekin. Etxean bizi izaten edo orduka. Etxe zein atarien garbiketak ere egingo nituzke. Armando. 682-35 90 60.

Debagoiena. Eskarmentudun mutila nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Carmelo. Deitu zenbaki honetara: 659-77 66 22.

Debagoiena. Pertsona nagusien zainketarako gertu nago. Hiru urteko esperientzia daukat. Jose zamora. Deitu zenbaki honetara: 680-75 14 88.

Debagoiena. Psikologia bigarren maila ikasten ari den neska prest dago umeak zaindu edota eskola partikularrak emateko (batxiler mailara arte). 663-73 49 95 / 943-79 31 93.

Debagoiena. Emakumea gertu etxeko lanak egiteko, umeak zaintzeko, pertsona nagusiak zaintzeko edotasukaldaritza lanak egiteko (elikagaien manipulatze karnetarekin). Gloria. 630-26 13 28 / 943-79 13 88.

Debagoiena. Gizona gertu edozain lan egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 654-24 13 27

Debagoiena. Edozelako garraio lanak egingo nituzke. Furgoneta daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 628-51 22 78.

Debagoiena . Mutila gertu garbiketa, nagusiak edo umeak zaindu, zerbitzari eta abarretarako. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943-79 76 54.

Debagoiena. Bi gizonezko lan bila gabiltza. Edozein motatako lana egiteko gertu gaude. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632-26 22 09.

Debagoiena. Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 678-22 71 59.

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Erizaintza laguntzaileikasketak bukatzear nago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 689-18 04 19.

Durangaldea. Mutil euskalduna eta lorezaintzan ikasketak dituena edozein lanetarako prest: lorezaintzan, tabernari moduan, garbiketan. Deitu zenbaki honetara: 617-29 74 53.

Durango. Neska gazte eta euskaldun bat udan umeak zaintzeko prest Abadiñon eta Durangon. Deitu zenbaki honetara: 688-63 76 03.

Durango. Interna edo externa modura umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest, bai asteburuetan bai jardunaldi osoan. Gauetan ere bai. Erreferentzia onak. Deitu zenbaki honetara: 686-16 13 34.

Durango. Ume edo nagusien zainketan eta garbiketan aritzeko lan bila nabil. Gauez (22:00 -08:00) eta asteburuetan. Esperientzia. Erreferentziak. Interesatuok deitu zenbaki honetara:619-15 58 04.

Durango. Umeen edo nagusien zainketarako edota garbiketarako lan bila nabil. Arratsaldetan, gauetan zein asteburuetan. Esperientzia daukat. Erreferentziak. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 650-17 24 33.

Durango. Zaintzaile euskalduna uztailean 13:00etatik aurrera eta abuztuan goiz etaarratsaldez umeak zaintzeko prest, Berrizen edo Durangon. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 673-68 97 69.

Nagusiak zaintzeko. Bertako emakumea, 50 urte, dibortziatua eta familia kargarik gabe, pertsona nagusiak zaintzeko eskeintzen da. Interna lanetarako ere. Deitu zenbaki honetara eta Idoiagatik galdetu. 697 24 51 86

Zarautz. Gizon euskalduna naiz,lan egiteko prest nago, edozein lanetarako. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 658-73 08 08.

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Debagoiena. Kontabilitateko eskola partikularrak emango dizkidan behar dut, uztailean zehar. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 670 45 47 99

Debagoiena. Uztailean zehar katalan eskolak jasoko nituzke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685 72 61 64

502. EMAN

Antzuola. Injeniari tekniko mekanikoa marrazketa teknikoko klase partikularrak emateko prest. Irakaskuntzan esperientzia. Talde txikiak. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 699-38 26 34.

Aretxabaleta. Klase partikularrak emateko eta etxekolanak egiten laguntzeko prest. 2. batxilergorarteko klaseak ematen ditut udan eta urten zehar jarraitzeko aukerarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 653-01 76 67.

Arrasate. Arrasateko irakaslea eskola partikularrak udan emateko prest, 6-12 urte bitarteko umeak. Esperientzia handikoa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 635-75 05 26

Bergara. Ingeleseko eskola partikularrek emango nituzke. Uztailean ikastaro trinkoak. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618 91 32 89

Debagoiena. Ingelesa. Eskola partikularrak ematen ditut. Ordutegi malgua. Esperientzia handia daukat. Taldeka nahiz banaka. 15 euroan ordua. Banaka. Eskoriatza, arrasate edo inguruak. Alemaniera ere eskeintzen da. Deitu konpromezurik gabe. 635-12 87 82/943-25 05 79.

Debagoiena. Informatika eskolak ematen dira: programazioa, weborriak eta blogak. Ordenagailuen konponketa ere bai. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679-74 00 61.

Debagoiena. Goi mailako arkitektoa, udan klase partikularrak emateko prest. Edozein maila eta ikasgai. Deitu 661-09 35 00 / 943-78 31 62 telefono zenbakira.

Debagoiena. Klase partikularrak edo umeak zaintzea psikologia bigarren maila ikasten ari den neska prest dago umeak zaindu edota klase partikularrak emateko. Batxiler mailara arte, edozein irakasgai. Esperientziaduna. Deitu 663-73 49 95 edo 943-79 31 93 zenbakietara.

Debagoiena. Batxilergoko bi mailetako filo, gazte, euskara eta historiako eskola partikularrak ematen ditut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618-12 86 48.

Debagoiena. Enpresa administrazioa eta zuzenbideko ikasketak egiten ari naiz eta prestnago eskola partikularrak emateko uztail eta abuztuan.Interesatuok deitu zenbaki honetara:662-10 14 41.

Debagoiena. Gitarra elektrikoko eskola partikularrak ematen ditut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679-74 00 61.

Durangaldea. Alemanierazko klaseak ematen dira haur, gazte eta helduentzat. Deitu zenbaki honetara: 670-79 33 12.

Durangaldea. Psikologo euskalduna dementzia edo alzheimerrra duten pertsonekin estimulazio kognitiboa emateko prest. Laguntza psikologikoa ere eskeintzen da hirugarren adineko pertsonei. Deitu zenbaki honetara: 679-38 23 69.

Debagoiena. Ingeleseko eskolak ematen ditut:azterketak gertatu zein ahozko praktika lantzeko. Maila guztiak. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 610-97 49 68.

Donostia. Klase partikularrak Lehen Hezkuntza eta DBHko ikasleentzat. Esperientzia handiko irakaslea, heziketa berezian diplomaduna eta gizarte eta kultur antropologian lizentziaduna. Behar izanez gero, jarri nirekin harremanetan 628-04 15 26 telefonoan.

Donostia. Panderoa, kainabera eta txaramelak. Astearte eta asteazken goizetan, Donostiako Arrano Beltza Euskal tokian (Ikatz kalea, 10) informazio gehiago nahi izanez gero idatzi mezu bat: *arranokoikastarook@gmail.com*

Durango. Durangoko neska euskalduna uda osoan zehar haurrak zaindu zein klase partikularrak emateko prest. Esperientziaduna. Deitu 665-71 56 08 telefono zenbakira edo idatzi mezu bat *alainegarmendia@hotmail.com* helbidera.

Ingelesa edo alemaniera. Banakako zein taldekako klaseak ematen ditut. Ordutegi malgua. Udan edo udazkenean hasteko. Esperientzia handiko profesionala. Eskoriatza, Arrasate edo inguruak. Deitu konpromezurik gabe. Beti da garai aproposa hizkuntza berri bat ikasteko. Euskara eta gaztelaniako klaseak ere ematen dira atzerritarrentzat. Deitu 943 25 05 79 edo 635 12 87 82 zenbakietara.

Oñati. Irakaslea eta psikologoa naiz eta eskola partikularrak emango nituzke udan, maila guztietan. Esperientzia handia daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 666-21 73 48.

Oñati. Urte askotako esperientziadun irakasleak (Jaione) klase partikularrak ematen ditu udan etaikasturte osoan zehar. Ordutegi malgua. Deitu zenbaki honetara: 943-78 28 43.

Urdiain. Esperientzia handiko irakasleak ingeles klaseak ematen ditu. Ordutegi malgua. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 626-34 02 76.

6. MOTORRA

701. SALDU

Citroen Xsara salgai. Xsara, 2000 HDI 90 zp, jabe bakarra, a. A., ABS, 120.000km, 2001 urtekoa, gorria. 3.000 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 656-79 10 27.

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Astoa salgai. Urte biko asto arra, etxean jaio eta hazitakoa. Txipa jarrita. Deitu zenbaki honetara: 656-77 29 94.

Doberman txakurkumeak. Bi arbeltzak eta eme marroi bat. Aita (HD-a, BH, ZTP eta RCI.2) eta ama (HD-a eta BH). Biak erakusketan lehen postuetan eta RCI lanetan. Kirolarientzat edo zeozer egin nahi dutenentzako baldintza bereziak. 800 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 656-79 10 27.

703. EMAN

Katakumeak. Debagoienean, katakumeak dohainik ematen dira. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 79 20 40

704. BESTELAKOAK

Agapurni txoria desagertu da. Berdea eta horia da eta etxekotuta dago. Norbaitek ikusi badu edo etxean hartu badu, mesedez deitu Josemiri. 656 79 82 16

Katua galdu da Bergaran. Katu laranja da, hiru urtekoa, arra. Ekain bukaeran galdu zen Bergarako Poligono inguruan. Bolito izenari erantzuten dio. Txipa dauka. Aurkitu edo ikusi baduzu, deitu mesedez zenbaki honetara:. 663 65 76 06

8. DENETARIK

801. SALDU

Bebe Confort etxeko kapazoa eta aulkitxoa salgai. 2009koak. Oso gutxi erabiliak. Debagoienean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 629 18 40 63

Canon Powershot G5 argazki kamera salgai. Bost megapixel. 35 milimetrotako objektiboa. TFT pantaila birakorra. JPG eta RAW formatuak. Lowepro poltsa eta giga bateko txartela opari. 100 eurotan salgai. Deitu667 95 73 16 telefonora.

Erremolkea salgai. Trasteak eramateko erremolkea salgai. Tapa dauka. Egoera onean. Deitu zenbaki honetara:655-72 45 16 (Mikel).

Freskagarri makina. Freskagarri latak edo ur boteilatxoak saltzeko makina salgai. Azkoyen etxekoa. Ia berria eta beti barruan egon da. Prezio interesgarria. 943 71 82 74.

Gimnasiorako bonoa. Arrasateko gimnasio baterako 20 hilabeterako bonoa salgai. 333 euro. Klaseak(pesak, spinning, eta abar), makinak, sauna eta Pilates. Interesatuak *marysea15@hotmail.com* helbidera idatzi edo deitu zenbaki honetara: 653 72 22 54,

Kanpadenda salgai. Kanpadenda ia berria saltzen da. Baten bakarrik erabilia. 4 pertsonarentzat. Marechal britania markakoa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 615-00 72 16.

Karabana salgai. Bustner etxekoa. Oso ondo zainduta. Bi abanzerekin: negukoa eta udakoa. 4.500 euro. Deitu 660 98 37 05 telefono zenbakira.

Karbonozko bizikleta. Flanders etxekoa. 56 neurrikoa. 750 euro. Deitu 637 29 66 79 telefono zenbakira.

Kafetegiko terrazarako aulki eta mahaiak sagai. Oso egoera onean. Gutxi erabiliak edota estreinatu gabeak. Deitu 943-71 88 11 edo 650-06 02 07 telefono zenbakietara.

Plegadora. Iturgintzako plegadora saltzen da, 2 metrotakoa. Baketoirako osagarriak kobre, zink eta abarrentzako. Neurri ezberdinetako arrabolak jeitsierak, pesebreak etab. Egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 94-682 45 90

Mendi bizikleta. Orbea lanza mendi bizikleta paregabea salgai. Foc orkillarekin, diskodun frenoak, kalak... Oso bizikleta ona da eta ezinberriago dago. Merezi du ikusteak. Beste behar ekonomiko batzuk ditudalako eta 3 aldiz erabili dudalako daukat salgai. Deitu eta ikusi konpromisorik gabe. Aukera ezin hobea. Argazkiak bidaltzeko aukera ere badago. Mila esker. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 657-55 46 46.

Monokultorea. Agria markako gasoilezko motokultorea eta Agria 3.000 motoaitzurra salgai. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 94-682 45 90.

Pultsometroa. Polar CS200-cad salgai. 90 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 635-70 30 57.

Renault Clio baten errubera bi salgai. 2011koak. Llantak txapazkoak dira eta estreinatu barik daude. Neguko erruberentzako aldaketa eukitzeko aproposak. 120 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 667-93 93 70.

Scooterrarentzat parabrisas pantalla. Scooter motorrarentzat haizearentzako pantalla, bere torloju eta guzti. 50 euro. Informazio gehiagorako deitu telefono zenbaki honetara: 686-89 77 32.

Solariuma. Gorputz guztiko philips hb solarium tolesgarria sagai. Egoera onean. 3 lampara Philips Cleo Hpa flex-power ditu, azalerako filtroa, bi tenporizadore. 1.200 euroan baloratua. 600 euroan salgai . Interesatuok deitu: 685-72 46 86 / 943-79 96 55.

Umeak eramateko motxila salgai. Umeak eramateko mendiko motxila salgai. 6 aldiz bakarrik erabilia. 15 kilora artekoa. Berri-berria. Plastikoa eta eguzkitarako sonbrila barne. Tel.: 616-63 05 61.

Umeendako kotxe kapota salgai. Umeendako kotxe kapota salgai. Silver-cross modeloa. Urdina. Ia-ia berria. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 615-74 13 47.

802. EROSI

Lursaila. Lursaila erosiko nuke Bergara edo Oñati inguruan. Kotxez hetzeko modukoa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 669 17 09 51

806. GALDU

Betaurreko graduatuak. galdu nituen Eskoriatzan, maiatzaren 22an (hauteskunde eguna) kultur etxean edo Azkoagaenea hotelean. Armazoi beltza dute eta kaxa urdina. Udaletxera eroan edo deitu 656 75 30 57 telefonora.

Motxila Aretxabaletan. Eguzki taberna osteko kolunpixotan laukidun motxila gris bat ahaztuta utzi genuen ekainaren 10ean, ostiralean. Norbaitek aurkitu badu, mesedez deitu dezala. Eskerrik asko. Deitu 605 77 56 66 edo 688 80 04 79 telefono zenbakira.

Ordenagailua Aretxabaletan. Ordenagailu eramangarria galdu nuen Aretxabaletako plaza inguruan ekainaren 8 edo 9an. Zorro granate batean zegoen. Familiako argazkiak dauzkat bertan eta eskertuko nuke itzuliko balidate. 652 73 31 48

Bi Pen-drive Etxarrin. Bi pen -drive edo USB memoria galdu dira Etxarri Aranazko parke inguruan, kartera txuri-urdin baten barruan. 659-75 96 37.

807. AURKITU

Giltzak. Hainbat giltza topatu zituzten uztailaren 4an Aretxabaletako Kurtzebarri eskola inguruko jolastokian. Arkupeko harreran galdetu. 943 08 10 01

9. HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Dance-Arrasate. Dance musika eta nahasketak egitea gustoko duen jende bila nabil, musika elkarbanatzeko, nahasketak egiten ikasteko, etab. *i_like_dance@hotmail.es* edo 647 08 68 75 Angel Mari eta Agurtzane.

Donostia Alde Zaharreko Joaldunak. Zuk ere joaldun izan nahi duzu? Etorri gure entsaioetara eta proba egin! Edo zure herriko jai edo ikuskizunetan gu han egotea nahi baduzu ere bai. Idatzi mezu bat. *aldezaharreko-joaldunak@gmail.com* helbidera.

Emakume lagun laztantxoaren billa. Kaixo!hitzegitea(euskeraz edota erderaz), musika, zine-antzerkia,ateraldi kulturalak, bizikleta, masajea, natura etabar gustoko dituen donostiako gizon atsegina antzeko emakume laztantxoa ezagutu nahiko luke. Nire euskerazko maila ez da oso altua, gaztelaniaz hobeto moldatzen naiz. Hobe donosti ingurukoa izanda, baina irekita nago. Ezkongabea naiz. 616 12 03 10.

Mutil atsegin bat neska atsegin baten bila. Mutil atsegin bat naiz eta neska atsegin baten bila nabil,43 urte ditut,altua eta morenoa naiz. Amodiozko erlazio sendo baten bila nabil. Alaia naiz eta bidaiatzea gustatzen zait. Deitu 609 48 11 24 telefonora.

www.inmosalbide.com

Salbide
SALBIDE
Higiezinen zerbitzuak

Aia. Eraikuntza berria. 3 logela, 2 bainugela eta 127 m2ko terraza. 46.588.000 pezeta.

Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 28.500.000 pezeta.

Iraeta. Etxabe berria. 2 logela, terraza eta lorategia. Garaje handia. Komunitateko igerilekua. 39.000.000 pezeta.

Getaria. Herrerieta kalean. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trastelekuarekin. Egoera onean. Oso prezio onean. 39.000.000 pezeta.

Zarautz. Langako plaza (Salbiden). 2 logela eta bainugela bat. Guztiz berritua. 45.000.000 pezeta.

Zarautz. Azkenportu. 57 m2tako 3 logelako etxea. Berrituta dago. Oso prezio onean. 46.000.000 Pezeta.

Zarautz. 4. pisua igogailurik gabe. 2 logela. Berritu beharra dago. 35.000.000 pezeta.

Zarautz. Vista Alegren. 3 logela eta 2 bainugela. Etxe handia, terrazarekin. Oso prezio onean. 47.000.000 pezeta.

Zestoa. Erdialdean. Etxe bifamiliar batean, 3 logelako etxebizitza. 31.000.000 pezeta.

Bizkaia kalea, 6 • 20800 Zarautz
Telef.: 943-01 07 00 • Mug.: 665- 71 85 96

Etxebila higierinak
943-44 61 66

SALGAI
HERRERA: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 15m2-ko Terraza. Igogailua. 29.900.000 pta.
AMARA: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Dena kanpora. Terraza. 48.700.000 pta.
AMARA: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. Altua. 49.500.000 pta.
AMARA: Morlans. Apartamentua. Kanpora. Bistak. 37.800.000 pta.
AMARA: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. Sartzeko. 39.000.000 pta.
AMARA: Dena kalera. 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Terraza. 61.600.000 pta.
ANTIGUA: Benta Berri. 90m2. Altua. Terraza. Garajea, trastelekua. Polita.
ANTIGUA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Igogailua. 47.990.000 pta.
EGIA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Igogailua. Balkoia. 29.990.000 pta.
EGIA: logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Bista politak. Berritua. 39.990.000 pta.
MARTUTENE: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. Kanpora. Aparkalekua. 28.990.000 pta.
ERRENTERIA: Erdialdean. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 25.900.000 pta.
LEZO: Baserri-etxea. Solairu bakarra. 4 logela. Terrenoa. 36.500.000 pta.
LEZO: Eraikuntza berria. 2 edo 3 Logela. Terraza. Garajea. 280 €-tik aurrera.
ASTIGARRAGA: 60 m2. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 26.950.000 pta.
LASARTE: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Igogailua. Terraza. 30.990.000 pta.
HONDARRIBIA: 2 Logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza handia. 39.500.000 pta.
PASAI DONIBANE: Bistak portua. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 34.500.000 pta.

IKASLEENTZAKO ALOKAIRUAK
AMARA: 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. 800 €
AMARA: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 750 €
AMARA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 700 €
AMARA: 4logela,sukaldea, egongela, 2 bainugela.1.100 €

ALOKAIRUAN
AMARA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 700 €
AMARA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 750 €
USURBIL: 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Polita 690 €

www.etxebila.net
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

'Idazlagun', euskaraz idazteko aplikazio informatiko bateratua martxan

Elekak zerbitzu berria martxan du enpresei eta autonomoei euskaraz idazten laguntzeko

'Idazlagun', euskaraz idazteko aplikazio informatikoaren orria. | ELEKA

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Idazlagun tresnak, euskaraz ekoiztutako testuen kalitatea hobetuko duela iragarri du Eleka Ingeniaritza Linguistikoak. Izan ere, hiztegia, gramatika, deklinabidea, aditzen jokatzea, hizkuntza zalantzak edota ortografia moduluak batzen ditu erreminta berri honek. Horrez gain, Xuxenweb, Opentrad, esteka interesgarriak edota hainbat dokumentu eredu ere eskaintzen ditu aplikazioak.

Mikroenpresei, enpresa txikiei, ertainei, Administrazio Publikoari eta *freelance* moduan ari diren profesionalei zuzenduta dago. Aplikazio berri hau erabiltzaile kopuruaren araberako tarifen bidez eskuratu daiteke.

Eskaintza zabala

Prezio baxuena norbanakoei eta lau erabiltzaile bitarteko enpresei ezarriko zaie, eta 20 eurokoa izango da. 30 erabiltzaile bitarteko enpresa eta erakundeek 67 eta 127 euroko tarifak eskuratu ahal izango dituzte, kontratatutako zerbitzuen arabera. Azkenik, 30 erabiltzaile baino gehiagoko enpresa eta erakundeen kasuan, aurrekontu berezia eskainiko die Elekak. "Moldagarria da, gardena, programarik instalatu gabe erabili daiteke, bezero bakoitzaren beharretara moldatzeko aukera ematen du eta, gainera, urteko 365 egunetan, momentu oro, kontsulta daiteke", azaldu zuen aplikazioaren aurkezpenean Elena Gartzia Elekako kideak. Gartziaren iritziz, azken batean, proiektu honek hainbat berrikuntza eskaintzen dizkie bezeroei zerbitzua euskaraz ere eskaini nahi dieten enpresei, bereziki enpresa txiki eta autonomoei: "Euren produktibitatea hobetu ahal izango dute, euskaraz ekoiztutako testuen kalitatea hobetu, eta haien lehiakortasuna hobetu ahal izango dute. ASP motako aplikazioa izanik, enpresa batentzat ez da hainbesteko kostua izango hori ezartzea".

Idazlagun aplikazioa ezagutzeko eta ikasteko, lehen workshop -a uztailaren 22an egingo da Elekaren Usurbilgo egoitzan, 09:00etatik 11:00etara.

Googlek denbora errealeko bilaketak desaktibatu egin ditu

Arrazoia da Twitter sare sozialarekin zuen akordioa uztailaren 2an eten egin zela

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Googlek hasiera batetan adierazi zuen Google Plus plataforma ezartzeko desaktibatu zituela denbora errealeko bilaketak sare sozialetan.

Orain, baina, jakin da, joan den uztailaren 2an Twitterrekin tuitak eskaintzeko zuen akordioa eten egin duela eta ezingo dituela tuit horiek denbora errealean eskaini.

Google erraldoiak, 2009a geroztik eskaini ditu denbora errealean sare sozial ezagunekoko tuitak. Googlek beti defendatu du sare sozialetako edukiak eskaintzearen aukera. Facebook, aldiz, aukera honen kontra azaldu da beti.

Google Plus

Facebook Friend Exporter da Googleren azken aplikazioa. Honek, Facebookeko kontaktuak, Googleren sare sozialera eramateko aukera ematen du.

Momentuz baina, ingelesezko bertsio batetan egiteko aukera bakarrik dago. Honek eztabaida sortu du, izan ere, Facebookeko datuen jabetza zalantzan jartzen da. Facebookek ez du bere kontaktuen gaineko informazioa hartzen uzten. Horregatik, sare sozialak blokeatu egin du Googleren lana. Harrigarriena, baina, Facebookeko Mark Zuckerberg-ek Google+ sare sozialean kontua zabaldu izana da.

Googlek denbora errealeko bilaketak desaktibatu ditu. | GOOGLE

15 urte bete ditu Hotmail e-posta zerbitzuak

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Hotmail zerbitzuaren erabiltzaileek egunean 300 milioi e-mail bidaltzen dituzte. Jaso, berriz, 9.000 milioi. Guztira 25.000 milioi kontu daude posta elektroniko zerbitzu ezagunean alta emanda.

Hotmail izan zen doako e-posta zerbitzuetan lehenegoetakoa eta berehala bilakatu zen popularrenetakoa. 1996an sortu bazuten ere hurrengo urtean erosi zuen Microsoften. Benetako bultzada baina MSN Messengerrarekin etorri zen beharrezko baitzen Hotmail kontu bat txat eta mezularitza zerbitzu ezaguna erabilitzeko.

Munduan erabiliena

Oraindik ere posta elektroniko zerbitzuetan munduan erabiliena da Hotmail, 360 milioi erabiltzailerekin. Windows Live zerbitzuaren osagarria da Hotmail eta Microsoften zerbitzu horren barruan daude 500 milioi erabiltzaile mundu guztian zehar. Mezu eta postaritza baina Hotmailek eskaintzen duen duen biltegiratzen sistemaren %5a besterik ez da. Hain zuzen, fitxategi eta bestelako edukien on-line biltegratzeak betetzen du zerbitzuaren zatirik handiena. Azken ekarpena Office Web Apps izenekoa da, bulegorako aplikazioekin, hain zuzen ere.

Abuzturako prest Facebooken joku sarea

J.B. | ARRASATE

Project Spartan izenarekin sare sozialaren barruan joku plataforma abiatuko du Facebookek abuztuaren 1a baino lehen.

Ehunka garatzaile jarri dituzte helburu horrekin lanean eta iOS sistema eragilean HTML5 teknologia erabilita izango dute sarbidea erabiltzaileek, hasiera baten. Ordainketa Facebookeko kontuarekin eta bertako kredituekin egingo da

Lankidetza gehiago

Facebookek eta Applek eskutik elkarrekin joateko luzarorako asmoak dituzte eta ematen duenez, aurki argazkilaritza aplikazioa aurkeztuko dute bi handikiek elkarrekin. Kontuan hartzekoa da, era berean, laster aurkeztuko dituztela bideo-txatak Facebooken Microsoftek berriki erositako Skypen teknologiarekin. Googlen aurka egiteko indarren batuketa baten antza daukate beraz, mugimendu hauek, hain zuzen, Google Plus zerbitzua aurkeztu berritan. Ematen duena beraz, Apple eta bere Storearen aurka egitea baino, Android eta bere plataformaren kontrako erabakia dela gehiago. Elkarlanarekin gainera Applek zenbait ezaugarri berezi eta esklusibo lortuko lituzke esamesek diotenez.

Googleko profilak publikoak izango dira hilaren 31etik aurrera

Erabiltzaileei euren artean aurkitzeko erraztasunak eman gura dizkielako hartu omen dute erabaki hori. Publiko egingo den informazioa, besterik aldatu ezean, izena eta generoa izango dira eta gainontzeko guztia erabiltzaileak berak editatu beharko du. Hala ere, ematen duenez, behin publiko egin eta gero profila pribatura itzul daiteke.

Telefonia tarifen merkatzea eskatuko du Europar Batasunak

Telefonia tarifa garestiekin amaitzeko proposamena onartzea nahi du Europar Batasunak herrialdeen arteko deiak merkatzeko. Interneten nabigatzeko muga aldatzea eta mezu eta deien prezio maximoak aldatu gura dituzte, SIM berarekin herrialde ezberdinen artean ibiltzeko. Momentuz, operadore nagusiak aurka dituzte.

Bideo-txata izango du Facebookek aurki, Skyperekin

Taldeko txatak eta baita bideoa ere dutenak izango ditu sare sozialak. Hala ere, bi erabiltzaileren artekoak izango dira bideo-deiak eta ez taldekoak (Google Plusek izango ditu halakoak). Gainera, erabiltzaileek ez dute zertan Skype konturik izan, zuzenean erabili ahalko baitute zerbitzu berria Facebooken bertan.

TELE-BEGI

AINHOA VITORIA

Gora San Fermin!

Iritsi dira San Ferminak! Iruñea, Lesaka,Pasaia... txuri gorriz jantzita daude, dagoeneko. Baina ez dira bakarrak. Telebista ere txuri gorriz ikusiko dugu uztailaren 14ra arte. San Ferminak mundu mailan ezagunak dira eta telebistako kateek ondo dakite hori. Txupinazoa, entzierroak, jendea festan... guztiaz disfrutatuko dugu etxetik mugitu gabe.

San Fermin garaian telebistak garrantzia handia hartzen du eta jende ugari entzierroa ikusteko altxatzen da goizero. Hortaz arduratu da orain arte TVE katea; berak du entzierroen esklusiba.

Baina euskal kateek ere jaie horiei jarraipena egin nahi izaten die, eta entzierroa ikusteaz gain, festa giroa ere ikus dezakegu bertan. ETBn, goizetan, berriemaileak zuzenean Iruñetik, Euskadi Directo saioaren lan talde gehiena ere Iruñetik, arratsaldean ere Iruñeko kaleak zuzenean eta gauetako albistegietan eguneko laburpena, entzierroak eman duen guztiarekin. Uztailaren 7tik 14ra ez zaigu ahaztuko San Fermin garaian gaudela; telebista arduratuko da hortaz. San Ferminak arrakastatsuak baldin badira audientzietan ere nabarituko da, ezta?

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 11

Txakurrendako luxuzko arropa

19:45

Lizzura enpresako Arantxa Izura oñatiarra etorriko da *Magazinea* saiora txakurrendako luxuzko arropari buruz berba egitera.

13:15 Marrazki bizidunak
13:35 Kantari
14:10 Berbetan
14:46 Berriak
15:16 Jaiak: Tolosako jaiak
16:10 Gipuzkoa kultura
16:40 Berriak
17:10 Leku txiki bat
17:20 Nere herrie: Berroeta
18:21 Onein
18:42 Ikusmira
19:37 Berriak
20:07 Kantari
20:42 Magazinea
21:42 Harmailatik
22:27 Magazinea
23:27 Harmailatik

MARTITZENA, 12

Iñaki Galdosi elkarrizketa

19:45

Hamaikabatekoek hilak 16 egingo dute batzarra etorkizunean zer egin erabakitzeko; presidentea gurean izango dugu.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:20 Onein
14:46 Berriak
15:16 Harmailatik
16:01 Hamaika.bit
16:31 Leku txiki bat
16:44 Berriak
17:14 Bi tartean
17:47 Tertulia
18:47 Berriak
19:17 Kantari
19:47 Magazinea
20:47 Bi tartean
21:17 Magazinea
22:17 Harmailatik
23:02 Magazinea

EGUAZTENA, 13

Politikari buruzko tertulia

20:45

Julen Iriondok gidatuta politikaren inguruko solasaldia egingo dugu platora etorriko diren gonbidatuekin batera, eguaztenean.

13:15 Marrazki bizidunak
13:30 Kantari
14:00 Harmailatik
14:45 Berriak
15:15 Onein
15:41 Ikusmira
16:36 Berriak
17:06 Bizitegia
17:34 Bi tartean
18:07 Gipuzkoa kultura
18:37 Leku txiki bat
18:47 Berriak
19:13 Kantari
19:46 Magazinea
20:46 Tertulia
21:46 Magazinea
22:41 Tertulia
23:41 Nere herrie: Berroeta

EGUENA, 14



Koadro erakusketa

22:17

Koldo Mitxelenan Javier Valverdek 1981etik 2011ra bitartean egindako koadroen erakusketari buruz jardungo gara.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:20 Onein
14:46 Berriak
15:10 Hamaika.bit
15:40 Tertulia
16:40 Hamaika.bit
17:35 Ikusmira
17:43 Berriak
18:13 Ipupomamua
18:43 Berriak
19:13 Kantari
19:46 Magazinea
20:46 Bi tartean
21:17 Magazinea
22:17 Gipuzkoa kultura
22:47 Magazinea
23:47 Bizitegia

EGUBAKOITZA, 15

Rikardo Arregi Sariak ikusgai

22:18

Goienak jaso du Rikardo Arregi kazetaritza sarietan sari nagusia eta horri buruzko erreportajea izango duzue ikusgai.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:18 Onein
14:44 Berriak
15:14 Ur eta lur
15:49 Hamaika.bit
16:19 Leku txiki bat
16:44 Berriak
17:14 Berbetan
17:50 Ipupomamua
18:23 Leku txiki bat
18:48 Berriak
19:18 Kantari
19:48 Magazinea
20:48 Gipuzkoa kultura
21:18 Magazinea
22:18 Erreportajea: Rikardo Arregi sariak
22:51 Tertulia
23:51 Magazinea

ARRASATE IRRATIA

Udalbatza berriko zinegotziak ezagutuko ditugu, 107.7an

Udaleko batzorde informatzaileetako buruak ezagutuko ditugu gertutik Arrasate Irratian. Gaur, astelehena, Maider Morras Pertsonal eta Berdintasun Saileko batzordeburua ezagutuko dugu 10:30ean hasita *Uda giroan* irratsaioan eta poliki-poliki guztiak ezagutuko ditugu.

Donostia 2016ko eta Euskalteleko kamisetak zozketan

Kamisetak ditugu zozketan aste honetan; Donostia 2016koa eta Euskaltelekoa. Beraz, sariak lortu nahi baldin baditugue animatu eta hartu parte zozketan. Horretarako bi bide dituzue; deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.com* helbidera. Zorte on.

Tourra ikustera joango diren debagoiendarrak, Arrasate Irratian

Arrasate eta Oñatiko zaleek urtero egiten dute tourrera irtenaldia eta eguenean irtengo dira euren autobusak Pirineo aldera. Guk telefono konekxioa egingo dugu egubakoitzean han gertatzen ari denaren berri jakiteko eta baita debagoiendarren nondik norakoak jasotzeko ere 107.7an, *Uda giroan* irratsaioan.

TELE-ALBISTEAK

Sustrai Aloña Mendiren gainean, 'Harmailatik' saioan, 21:45ean

Klubeko ordezkariak saioan izango dira, aurrean duten erronkaren gainean berbetan

Sustrai Aloñako jokalariak, eta Campo presidentea, igoera ospatzen. | GOIENA

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Duela aste batzuk baieztatu zuen Sustrai Aloña Mendiko zuzendaritzak datorren denboraldian taldeak EBA mailan jokatuko duela. Horretarako esfortzua egin behar izan du klubak –eta egin beharko du denboraldian zehar– eta buru-belarri ibili dira erronkari aurre egiteko beharrezkoa den aurrekontua osatzeko lanean.

Hala, lan horrek eman dituen fruituak egubakoitzean aurkeztu zituzten [Ikus 24. orria], kirol proiektua, egin dituzten fitxaketak eta denboraldi berriari begira taldeak dituen erronkak.

Saioan, sakonago

Hala, egubakoitzeko hitzordua aprobetxatuta, gaurko Harmailatik saioan klubeko ordezkariek azalduko dituzte datorren denboraldi berrirako dituzten asmoak.

Zuzendaritza arlotik Gorka Judez izango da, jokalarien ordezkari moduan kapitaina izango da platoan, azken urte hauetan taldearen gorabeherak –eta hazkundea– bertatik bertara jarraitu dituen Iñigo Zabaleta. Eta eurekin batera, taldeko beste kolaboratzaile bat ere izango da saioan, besteak beste, klubeko komunikazioaz arduratuko den Aratz Losada. Mahaingurua, berriz, egubakoitzeko ekitaldiak emango duenarekin osatuko dute, eta taldeak egin dituen lau fitxaketak aurkeztu. Horiei ere, pertsonalki, taldean izango duten erronkaren gainean galdetuko diegu, eta EBAn duten esperientziaz galdetu.

'Harmailatik' saioan klubeko ordezkariek taldearen asmoak azalduko dituzte

ESKER ONA

Felisa Ormaechea Goitana

Arrasaten hil zen 2011ko ekainaren 29an, 83 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Aramaion, 2011ko uztailaren 11n.

GOIENAN ESKELA JARTZEKO
DEITU EGUEN EGUERDIA BAINO LEHEN: 943 25 05 05. EDO ZATOZ ORDEZKARITZA BATERA.

Eskelaren prezioa: 126 euro. Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro.
Goiena: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.

ZORION AGURRAK

ESKORIATZA
Oskar Andetxaga Bengoa
Uztailaren 16an, urtebetetzea. Zorionak, aitatxo! Oso ondo pasatu zure egunian. *Patxito* potolo-potolo etxekoen partetik: amatxo, Gentzane eta Oinatz.

ARRASATE
Oxel Etxenausia Arrizabalaga
Uztailaren 16an, urtebete. Zorionak, Oxel! Ondo-ondo pasatu zure lehenengo urtebetetzean. Muxu handi bat familia guztiaren eta, bereziki, zure lehengusu Xabaten partetik.

ESKORIATZA
Saioa Larrañaga Guergue
Uztailaren 15ean, urtebetetzea. Zorionak, izeba! Muxu pila bat Gentzane eta Oinatzen partetik.

OÑATI
Lorea Lazkanoiturburu Palacios
Uztailaren 14an, 6 urte. Zorionak, prexioxi! 6 muxu goxo-goxuak etxeko guztion partetik eta ondo pasa, *maripasa*, zure egunian.

OÑATI
Ekain Hernandez Delgado
Uztailaren 13an, 3 urte. Zorionak, potolo! Oso ondo pasatu zure egunean. Muxu handi bat etxekoen partetik.

ANTZUOLA
Xabi Alonso Berezibar
Uztailaren 12an, 5 urte. Zorionak, Xabi, eta urte askotarako! Bost urte beteko ditu gure mutiko jatorrak. Ondo pasatu urtebetetze eguna. Patxo handi bat familiako danon eta, bereziki, Oinatz eta Maddiren partetik.

OÑATI
Irati Igartua Arabaolaza
Uztailaren 12an, 10 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partetik, eta oso ondo pasatu Baratzen laguntxoekin.



ARRASATE
Txiki
Uztailaren 12an, 43 urte. Zorionak, tio Txiki! Bazatoz pastelosuak gurekin Donostira ikustera? Edo hobe, pastelak zuk jarri eta guk jango ditugu! Ederto pasatu egun berezi hau eta pastel-muxu potolo-potolok loba Beñat, Maren eta etxeko guztien partetik. Gozozale, *guapo*!

LEGUTIO
Kepa Martelo
Uztailaren 12an, urtebetetzea. Ahaztu ID behingoz eta irten haizea eta ardo bat hartzera Parralera! Ondo ospatu!

LEGUTIO
Mirian Biteri
Uztailaren 11n, urtebetetzea. Eguraldi ona etorri da eta bada ordua deskapotablea ateratzeko. Ondo ospatu!

BERGARA
Irati Eguren Guereñu
Uztailaren 11n, 7 urte. Zorionak, printzesa! Oso-oso ondo pasatu zure egunean eta patxo handi bat denon partetik.



ARETXABALETA
Eñaut Oskoz
Uztailaren 10ean, 9 urte. Zorionak, mutikote eta ondo pasatu zure urtebetetze eguna! Muxu handi bat zure familixaren, eta bereziki Ana Mari, Pako, osaba Unai eta Nerearen partetik.

BERGARA
Nora eta Miren Gabilondo Aristi eta Maren Cordoba Aristi
Mirenek uztailaren 10ean 4 urte, Norak uztailaren 14an 6 urte eta Marenek ekainaren 27an 4 urte. Zorionak eta patxo bat etxekuen partetik.

ANTZUOLA
Usoa Agirre Jauregi
Uztailaren 8an, 30 urte. Zorionak, prexioxa! 30 urtekin neskatillatxua moura, hori da hori suertia! Ondo pasatu eta zelebratu aste bukaeran! Patxo handi bat lankidien partetik.

ARRASATE
Jone Aranburuzabala Loiti
Uztailaren 8an, 4 urte. Zorionak etxekuen partetik! Patxo potolo-potolo bat!

ESKORIATZA
Maddi Mondragon Alonso
Uztailaren 8an, 9 urte. Zorionak, maittia! Patxo asko tia Piliren eta Leireren partetik.

BERGARA
Diego eta Cristina
Zorionak, amatxo eta aitatxo, zuen urtebetetzean. Amak uztailaren 5ean eta aitak 14an. Muxu pila-pila bat Naia eta Ikerren partetik.

ARRASATE
Sara Yan Azkarate
Uztailaren 5ean, 6 urte. Merendola Udalpen izango da. Zorionak!

AZPEITIA
Aitor Kaperotxipi
Uztailaren 8an, urtebetetzea. Kotxe berri honekin azkarrago etorriko zara gure sokorru! Zerbitzailearen lagunak!

ARETXABALETA
Oihane Agirre
Uztailaren 6an, urtebetetzea. Halako konpetentziarekin herriko gozogileak ikaratuta izango dira. Benetan goxua! Zorionak lankideen partetik.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Hiru bide dituzu GOIENAren bidez zoriontzeko:

Internet
Sar zaitez *goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu. Bete eskatutako datuak eta bertan argitaratuko da zorion agurra. Baita Goiena paperean ere.
Posta elektronikoa
Mezu bat bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, adieraziz: izen abizenak, herria, urtebetetze data eta nahi duzun testua.
Ordezkaritzak
Etor zaitez GOIENAko ordezkaritza batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK

Alain Abajo Alberdi

Bergara 3,480Kilo. Uztailaren 6a. Gurasoak: Ainhoa eta Alex. Argazkian, Alain sehaskan.

Amaiur Illarramendi Aginagalde

Arrasate 3,260Kilo. Uztailaren 6a. Gurasoak: Jone eta Aitzol. Argazkian, Amaiur amarekin.

Ainara Etxezarreta Mujika

Antzuola 4,280Kilo. Uztailaren 6a. Gurasoak: Aintzane eta Txomin. Argazkian, umea amarekin.

Elene Guridi Arriaran

Oñati 3,980Kilo. Uztailaren 6a. Gurasoak: Eli eta Xabi. Argazkian, umea gurasoekin.

Fernando Riviere Alvarez

Aretxabaleta 3,700Kilo. Uztailaren 7a. Gurasoak: Leticia eta Pablo. Argazkian, Fernando amama Francisca eta aitarekin.

Eneko Abarrategi Sgura

Arrasate 3,420Kilo. Uztailaren 3a. Gurasoak: Karmele eta Lander. Argazkian, umea amarekin.

Eneko Berasaluce Regidor

Antzuola 3,710Kilo. Uztailaren 2a. Gurasoak: Leonor eta Andoni. Argazkian, umea lotan.

Helene Ugarte Muñoz

Oñati 3,370 Kilo. Uztailaren 1a. Gurasoak: Gemma eta Iñaki. Argazkian, Helene aitatxo, amatxo eta Izarrekin.

BABESLEA

IKUSI MAKUSI

Umeen paradisua

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK



	Toka, diet / Gajo	Ergel / Toka, digute	Konortea galdu / Beherago joan	
	Gipuzkoako hiria / Bilkura			
Hegal / Hesiz itxi	Treneko orga / * Bulgaria-ko hiriburua			
		Telebista / Igo		
Futbol tanto / Kafea edate-ko tokia	Tuberkulosi / Onoma-topeia			
Tiro eginez / Gizon izena			Tona / Bokala	
		Naizen hau, nerau		

LUMA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

I	S	A	A	K	N	E	U	
T	I	R	O	K	A		T	
K	A	F	E	T	E	G	I	A
	G	O	L		T	I	S	I
H	E	S	I	T	U		T	B
	H		B	A	G	O	I	A
R	A	B	E	I		A	J	O
	Z		Z		B			Z

B	G	L	A	E	T	E	A	A
G	A	O	T	Z	E	T	I	N
A	L	A	A	L	A	A	A	A
T	T	U	N	S	E	M	O	P
H	Z	E	G	B	M	A	A	A
J	A	K	A	M	I	S	O	I
O	R	T	A	K	R	A	A	A
A	I	G	H	E	I	P	K	D
K	U	L	E	R	O	H	O	R

7	6	5	9	8	4	2	1	3
4	2	1	5	3	6	9	7	8
9	3	8	2	1	7	4	5	6
2	5	7	8	9	1	6	3	4
8	1	4	7	6	5	3	9	2
3	9	6	4	2	5	1	8	7
1	7	2	6	5	8	3	4	9
5	4	3	1	7	9	8	2	6
6	8	9	3	4	2	7	6	1

Hieroglifikoa:
...eta garbi.

SUDOKUA

		7	2			9		
		8	9					6
9				5				
7					4			3
	9			6		4		8
	3	6	1			7	5	2
6		4			2			
			6				2	
	1	2		8	9	5		

HIZKI SALDA

Topa itzazu bost azpiko arropa mota.

B	G	L	A	E	T	E	A	A
G	A	O	T	Z	E	T	I	N
A	L	A	A	L	A	A	A	A
T	T	U	N	S	E	M	O	P
H	Z	E	G	B	M	A	A	A
J	A	K	A	M	I	S	O	I
O	R	T	A	K	R	A	A	A
A	I	G	H	E	I	P	K	D
K	U	L	E	R	O	H	O	R

HIEROGLIFIKOA

Esamoldea. Argi...

AI, ENE!

Trekkiek ere jaten dituzte gailetak

Star Trek telesailaren jarraitzaileak fanatiko samarrak omen dira; argi uzten du hori gailetak gordetzeko ontzi honek.
www.nopuedcreer.com

AHOBERO

"Hau konpontzen ez badugu, gure Liga Europako kakazaharra izango da"

JOSE MARIA DEL NIDO | SEVILLAKO PRESIDENTEA

Haserre dago del Nido, Real Madrilek eta Bartzelonak besteek baino askoz gehiago kobratzen dutelako telebista-eskubideengatik. Sevillakoak dio sistema horrekin, ezinezkoa dela gainerakoek Liga irabaztea. Ezin ukatu arrazoi puntu bat behintzat baduela.
Cope irratia

EGURALDIA

Max. 27º
Min. 15º

Goizak aurrera egin ahala eta batez ere arratsaldean urdingune zabalak irekiko dira.
euskalmet.net

ASTELEHENEKOA
goiena
2011-07-11
HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

HAMARREKOA

Mariasun Landa Besteak beste errusierara, koreerara edo grezierara itzuli dira euskarazko haur eta gazte literaturako idazle ezagun honen lanak. Idazlea bakarrik ez, irakaslea ere bada| **TXOMIN MADINA**

"Haur literaturan edozein gai jorra daiteke; kontua da nola"

1. Txan fantasma, Iholdi, Errusika... Kontziente izango zara lagun imajinario ugari sortu dituzula.
Denok izan dugu *alter ego* bat, zeinari zuzentzen gatzaizkion lagunak bagina bezala. Nire *alter ego*-a Iholdi izango litzateke; ni izan nintzen neskatora hurbiltzen da.

2. Edozein gai jorratu daiteke haur literaturan?
Bai, kontua da nola. Zaindu egin behar da hori, eta umorea izan daiteke baliabide nagusiena.

3. Berdina da orain 30 urteko eta egungo gazteendako idaztea?
Hasieran, nolabaiteko abileziak haurren testuak idazteko jarri nituen; nituen erreferentzia literarioekin idazten nuen. Egun, ez dut pertsona konkretuetan pentsatuta idazten: idazten dut idatzi gura dudan istorioa. Zuzenketetan hasten naiz moldaketekin.

4. Harry Potter: nola egin aurre?
Ez da lehiatu behar; zoritxarrez liburuak produktu komertzial bihurtu dira eta hori onartu behar da. Norberak bere bideari ekin behar dio, jakin arren ez dela komertzialena. Harry Potter ez da produktu txarra izan, eta jendea irakurtzera zaletu du.

5. Eskolak bisitatzean, zer da gehien galdetzen dizutena?
Galdera normalak dira, baina zailak ere berean. "Ideia nola sortu zitzaizun?" galdera da zailenetakoa, askotan idazlea berak ere ez daki-eta sorburua.

JON POZO

6. Helduendako zure liburu bakarrak kutsu autobiografiko nabarmena du. Katarsi beharra?
Ez, aspaldiko desioa. Guztiz autobiografikoa da, esandako dena benetan gertatutakoa da. Oso modu narratiboan idatzi nuen, jendeak eleberri moduan irentsi zezan.

7. Zer sentitzen da norbere lanak koreera itzulita ikustean?
Emozio berezi bat; gainera hainbat hizkuntzatan ez dut nire izena ezagutzen, beste alfabeto bat erabiltzen dute-eta.

8. Moskun egon berri zara zure lana aurkezten. Nolako esperientzia?
Nire lana aurkeztu nuen lekuetan jendea hurbiltzen zen, entzuten zuten... Harrituta geratu nintzen. Hango unibertsitateko mintegi baten ere hartu nuen parte, eta oso interesgarria izan zen; kultura handiko pertsonak aurkitu nituen. Halakoetan, Euskal herriko enbaxadore ere bazara.

9. Literatura egiteaz gain, irakatsi ere egiten duzu. Zer zailagoa?
Egitea, zalantza barik! Irakaskuntza, oso atsegina da: horrek dakarren komunikazioa, dakizun apurra transmititzea... Idaztea askoz nekagarriagoa da.

10. Asko harritu egingo dira euskaldun berria zarela jakitean.
Ez dut uste; nire belaunaldian askok egin genuen apustu gogorra euskara ikasteko. Onuragarria da aipatzea ikasi daitekeela.

LEHENDAKARIA BANINTZ

"Lehentasuna, genero bortizkeria"

"Arazo askori egin beharko nieke aurre, baina genero bortizkeriari emango nioke lehentasuna. Emakume asko ari dira hiltzen, eta horrek erakusten du orain arte egindakoak ez duela funtzionatu. Zerbait egin behar da, bikoteak bestea hiltzea ez da da posible".

BIHARAMUNA

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

Juanito Vega

Erabat konbentzituta nago informazio hurbilaren bertuteaz. Idazleok askotan goi erpinetara igotzen gara, handik gure predikua unibertsalagoa bihurtuko delakoan. Eta hala gertatzen da normalean, munduko ekonomiaz idazteak irakurle gehiago eduki baitezake, adibidez, Aramaio errekan aurki ditzakegun errotei buruz arituko bagina baino. Baina informazioaren zabalera, ia beti, darion sentimenduaren alderantzizko proportzioan dago erlazionatuta sendoerarekin.

Nora nahi dudan iritsi? Artikuluaren tituluak dioen moduan, Juanito Vega gogoan edukita idatzi berri dut nire blog batean artikuluxka bat. Zuetariko askok ez du jakingo zein zen Juanito, 1975ean hil baitzen eta bere ospea 1951 -1975 aldian erdietsi zuen, hain zuzen Arrasateko igerilekuko arduraduna izan zen bitartean. Gizon jatorra, xumea, zalapartaria genuen eta garaiko arrasatear gizartearen pertsonaiarik adierazgarrienetakoa bilakatu zen.

Juanitori buruz idatzi dut, beraz, eta egun bakar batean nire blogak inoizko irakurle kopururik handiena izan du. Marka horren arrazoia, zalantzarik ez, Juanitok arrasatear askorengan utzi zuen oroitzapen positiboan datza.

ASCENSORES HEMEN
Igogailuaren mantentze arrunta 90 € -tan eta arrisku orotakoa 115 € -tan
AURREKONTUA 2 EGUNETAN
Informa zaitez:
Tel.: 943 04 40 01
debagoiena@ascensoreshemen.com
www.ascensoreshemen.com
Deitu!
943 04 40 01
Eskerrik asko, gugan konfiantza jarri duzuen guztioi